

Goienkaria

2007ko martxoaren 23a > Egubakoitza > VII. urtea > 281. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Debagoiena Korrikaren puntu oso indartsua izan da, partaidetza handiagatik"

Edurne Brouard
Korrikako koordinatzailea > 09



G2a

Udaberriko III. Musikaldia Arrasaten > 43


ARRASATE
Diputazioak dio ikutixo ez dela leku egokia zabortegia egiteko > 15

BERGARA
Victoriano Gallastegi alkateari elkarrizketa > 24

KIROLA
Gorlako txirrindulari igoera jokatu da domekan > 40

Ordu aldaketa

Udako ordutegia estreinatuko dugu zapatuan: goizeko ordu bietan hirurak izango dira. Ez ahaztu!



LANA > ISTRIPUA

Langile bat hil da Oñatin

Hijos de Juan de Garay enpresan gertatu zen ezbeharra; 48 orduko lanuztea egin dute > 05

Ezkontzen gaineko gehigarria

GOIENKARIArekin batera, 16 orriko gehigarria ezkontzei buruz, dena koloretan.



AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-42
Kultura > 45
Saillatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55



AMAK Materiala batzeko orduan profesionalen iritziak eta ibarreko gurasoen iritziak izan dituzte kontuan.

XABIER URTZELAI

EUSKARA > FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

Euskarazko materiala, ama direnei zuzenduta

MANKOMUNITATEA 'Zorionak: ama izango zara' liburua eta DVDa aurkeztu zituen martitzenean

ESKURAGARRI Euskaraz landutako materiala haurdunen eta emaginen eskura jartzea izan da helburua > 02-03

ELURTEA > DEBAGOIENA

Arazo ugari elurraren eraginez

Iragarrita egon arren, arazoak errepidean > 06

UGARTE

AROTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean • Horma armairuak • Altzariak • Leihoak • Ateak



ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30



ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91 Faxa: 943 76 08 04



SUPER AMARA

DENAK GUTXIAGO BALIO DU

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkalekua

EUSKARA > FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOAK EUSKARAREN NORMALIZAZIOAN DUEN GARRANTZIA DA LANAREN OINARRIA

'Zorionak: ama izango zara' liburu eta DVDa, haurdun daudenendako

LEHENENGO ALDIZ Euskal Autonomia Erkidegoan lehenengo aldiz argitaratu dute horrelako materiala euskara hutsean; 1.500 ale argitaratu dituzte

PROFESIOALEN IRITZIAREKIN Liburua eta DVDa egiteko orduan, osasun arloko profesionalek batutako informazioa izan dute kontuan

IBARREKO GURASOekin DVDko irudiak jasotzeko orduan, Arteman enpresakoek ibarreko gurasoengana jo dute; gertutasuna eman du horrek

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Martitzenean aurkeztu zuten, Arrasateko Kulturaten, *Zorionak: ama izango zara* liburu eta DVDa. Mankomunitateko presidente Arritxu Olidenek, Mankomunitateko Euskara teknikari Amaia Axpek eta Arrasateko Udaleko Euskara teknikari Aintzane Lasak egin zituzten aurkezle lanak, liburua eta DVDa egiten esku hartu duten guraso eta umetxoek lagunduta.

Hala, Aintzane Lasak azaldu digu lan horren helburua: "Material horren helburu nagusia da haurdunen eta emaginen esku jartzea euskaraz landutako materiala. Liburuan, adituek aukeratutako eta landutako bost gai nagusi lantzen dira, eta DVDan, liburuxkan lantzen diren atal praktikoen azalpenak daude. Hasieratik garbi izan dugu irakurtzeko gogo sortu behar zuela lanak eta irakurtzeko erraztasunak eskaini behar zituela. Horregatik, diseinu erakargarriarekin egin dugu liburuxka eta irakurketa errazteko hiztegia eta testu aipamenak atera ditugu".

"EZ ZEGOEN HORRELAKORIK"

Hori azaldu zuen aurkezpenean Amaia Axpek: "Orain arte emaginek ez dute horrelako materialik izan". Hutsune hori betetzeko, duela bi urte Mankomunitateko Euskara teknikariek horrenbeste urtean emaginek pilatutako ezagutza batzen hasi



AURKEZPENA Aintzane Lasa, Arritxu Oliden eta Amaia Axpe martitzenean egindako aurkezpenean.

XABIER URTZELAI

ziren, gero euskaratzeko. Informazioa batuta zeukatenean, Arrasateko Arteman kooperatibak eman zion forma, eta liburua eta DVDa egin.

Lana banatzeko orduan, oraingoz umedunendako izango da, nahiz eta jende gehiagok eskatu duen produktu hori oraingoz 1.500 ale argitaratu dituzte.

Banaketa, berriz, eskualdeko emaginak arduratuko dira; horrenbestez, Arrasaten Txaro Arregik izango du liburua eta DVDa banatzeko ardura.

BOST ATALETEKO LIBURUA *Zorionak: ama izango zara* liburu bost ataletan dago banatuta. Aintzane aurreratu duenez, liburua esku artean hartu ordu-



Servimasa

Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Haitz-Iturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxe: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxe: 943 51 57 57
20100 LEZO

ko, irakurlea liburuak dituen kolore eta marrazki bidez eta zein erraz irakurtzen den ohartuko da.

Lehenengo atalean haurdunaldiko zainketaren gainean egiten dute berba: kirolaren onurak, gorputzaren postura edo jarre-rak, higiena... Erditze osteko zainketa da hurrengo atala, erditu eta gero kontuan hartu beharrekoak azaltzen ditu. Edoskitzea lantzen dute hirugarren atalean, umearen elikadurari dagokion gaia, alegia. Eta, masajea eta haurraren zainketa dira laugarren eta bosgarren gaiak: liburuan, haurrari masajeak emateak duen garrantzia azpimarratzen dute:

"Hasieratik garbi izan dugu lanak irakurtzeko gogo sortu behar zuela eta irakurtzeko erraztasunak eskaini behar zituela; horregatik, diseinu erakargarriarekin egin dugu liburuxka"

"Teknika goxo eta atsegina da; aukera ematen du ukimenaren bidez haurraren gorputz eta emozioen munduarekin komunikatzeko. Begiradaren, irriaren, ukimenaren, hitzen, jolasen... bidezko komunikazioa", dio liburuak.

AZALPEN PRAKTIKOAK, DVD-AN
Liburuaren osagarri moduan, DVDak irudien bitartez ematen ditu azalpen guztiak. Gainera, azpimarratzekoa da ibarreen guraso izan berri direnekin egindako lana dela, euri grabatutako irudiekin osatu dute eta ikus-entzunezkoa. Horrek gertukoago egiten du lana.

Aintzane Lasa > Euskara teknikaria "Gertuko lana da, eta horrek balioa erantsi dio produktuari"

X.U. > ARRASATE
Arrasateko Udaleko Euskara teknikari Aintzane Lasa da *Zorionak: ama izango zara* liburuaren eta DVDaren gainean berba egiteko pertsona aproposetako bat. Gertu-gertutik jarraitu du -eta esku hartu- egitasmo horretan.



X.U.

Zein asmorekin heldu zenioten proiektu horri?

Euskararen normalizazioan familia bidezko transmisioak garrantzi handia du, familia hizkuntza transmititzeko gune naturala delako. Familia transmisioaren inguruan lehen ere urrats batzuk eginak genituen -Zorionak haur jaioberrien gurasoendako materiala, 4 eta 8 urte bitarteko haurren gurasoendako materiala...-, eta oraingoan guraso izango direnentzako materiala sortu dugu.

Euskaraz egindakoa da, eta bertako jendearekin. Hor dago lan horren aberastasuna?

Bai, duda barik. Bildumako protagonistak bertako gurasoak dira. Gertuko produktua da, eta horrek balioa erantsen dio produktuari. Bestalde, adituen laguntza izan dugu gaiak aukeratzeko, testuak zuzentzeko, gidoiak egiteko... Haien laguntzarik gabe ez zen posible izango produktu hau egitea. Eskerrak ematen

dizkiegu, beraz, bilduma hau posible egin duten guztiak.

Zelan egin da lana?

Lan honen abiapuntua da familia bidezko transmisioaren inguruan egindako hausnarketa. Hausnarketa horretan taula batera ekarri genituen familia bidezko transmisioaren inguruko interbentzio guneak eta eragileak. Guk, Mankomunitatean, gurasogaien esparruari heldzea erabaki genuen. Erabakia hartuta, ibarreko emaginekin jarri ginen harremanetan, lanerako eske-ma osatu genuen eta bilduma osatzen hasi ginen. Prozesu luze horretan etengabe izan dugu adituen laguntza: emaginak, masaje zentroko ardura-duna, bide hezkuntzako teknikaria...

MANKOMUNITATEAK ARGITARATU DITUEN BESTE LAN BATZUK




'Gazteak eta administrazioa'

Administrazioa gazteei hurbiltzea, eta hurbiltze hori euskaraz egitea. Horiexek dira *Gazteak eta administrazioa* unitate didaktikoaren helburu nagusiak. Elkarlanean egindako proiektua, Debagoieneko ikastetxeetako ikasleek lantzeko sortu zuten.



'Kantu eta jolasak'

Kantu eta jolasak bilduma 4-8 urte bitarteko haurrentzako prestatuta dago. Euskara hutsean, 21 jolas eta abesti batzen dira ikus-entzunezkoan. Hizkuntzaren inguruan gurasoei zuzendutako aholku batzuk ere jasotzen ditu bildumak.



'Idatzia I' eta 'Idatzia II'

Zorion agurrak, doluminak, eskolako oharrak, erreklamazioak, etxe atariko auzokideen komunitateen idatzia... Azken batean, idatzia euskaraz egiteko helburua du bi liburuz osatutako bildumak, euskara normalizatzeko helburu nagusiarekin.



R.P.S. Nº 190/04 I.L.G.

MULTIOPTICAS

1.A ZERBITZU OPTIKOETAN

EspaciOsol
MULTIOPTICAS

AZKENEAN!
Espezialistak
EGUZKITAKO
betaurrekoetan

eta orain %50 arteko
deskontuarekin!

J. Carlos Guerra, 1
Tel.: 943 79 29 95

ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75

BERGARA

C/ Nueva, 15 - GROS
Tel.: 943 32 66 49

DONOSTIA

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22

EIBAR

Koldo Mitxelena, 7
Tel.: 943 51 78 11

ERRENERIA

Mendibil M.G.
Tel.: 943 63 99 01

IRUN

J.M. Barandiaran Enp.
Tel.: 943 88 99 88

ORDIZIA

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70

TOLOSA

KORRIKA > EUSKARAREN ALDEKO LEKUKOA GUREAN

Gurera bidean da Korrika, eta gauerdian iritsiko da

Debagoiengan 53 kilometroko ibilbidea egingo du Korrikak, gaur eta domekan

Gaur, egubakoitza, 23:35 aldera iritsiko da lekukoa Debagoienara, Leintz Gatzagara

AINTZANE IRIZAR > BERGARA

Hasi da Korrikaren 15. aldia. Atzo, eguena, ekin zion ibilbideari euskararen aldeko lekukoa, Karrantzan (Bizkaia), 17:30ean. Euskal Herri osoko ehunka herri, hiri, auzo eta txoko zeharkatu eta gero, martxoaren 31n, zapatua, iritsiko da helmugara, Iruñera, hain zuzen ere, eta eguerdian bukatuko da. 2.376 kilometroko bidea egingo du, guztira, Korrikaren lekukoak.

Ibilbide horretan, birritan pasatuko da guretik, Debagoienetik. Gaur, egubakoitza, lehenengo aldiz. Leintz Gatzagara 23:35ean sartuko dira lasterkariak eta Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Oñati zeharkatu ondoren, Legazpi aldera jarraituko du. Domekan berriro itzuliko da euskararen lekukoa Debagoienara; 06:35ean sartuko da gurean, Deskargatik. Egun horretan lekukoa pasatuko da Antzuola, Bergara eta Elgetatik.

Kontuan hartu behar dugu zapatutik domekarako gauean ordua aldatzen dela; 02:00etan 03:00ak izango dira. Hortaz, kontuz domeka goizean Antzuolan, Bergaran edo Elgetan parte hartu behar duzuenok.

53 KILOMETRO, 110 BAT EROSLA

Jakinekua da erantzun ona izaten duela Euskal Herri osoan bi urtetik behin AEK koordinatutako Korrika ekimenak. Eta badirudi aurten ere halaxe gertatu dela. Izan ere, Debagoiengan 53 kilometroko ibilbidea egingo du, guztira, Korrikak, eta 110 kilometro erostle daude gurean. Kilometro bakoitzari 380 euroko prezioa jarri diote, baina badago kopuru handiagoa ematen duenik ere, Korrikaren antolatzaileek azaldu digutenaren arabera.

DENERAKO EROSLAK

Euskararen alde 380 euro (edo gehiago) emateko prest dauden denerako erosleak daude Korrikak eman digun zerrendan, hala nola emakume taldeak, enpresak, elkarte gastronomikoak, kirol elkarteak, erretiratuak, abesbatzak, dantza taldeak, euskara elkarteak, alderdi politikoak, udalak, ikastetxeak, sindikatuak eta gazte asanbladak. Baita anonimoren bat edo beste ere.

Korrikaren inguruan hainbat ekitaldi antolatu dituzte Debagoieneko herri gehienetan (ondo-ko taulan egitarau guztiak).



GOIZEAN GOIZ Bergarara domeka goizean iritsiko da.

GOIENKARIA

IBILBIDEA, HERRIZ HERRI

> **MARTXOAK 23, EGUBAKOITZA**
23:35: Leintz-Gatzaga.
00:00: Eskoriatza (Marulanda).

> **MARTXOAK 24, ZAPATUA**
00:42: Aretxabaleta (Ederlan).
00:59: Arrasate (gasolindegia).
01:51: Oñati (San Prudentzio).
02:30: Oñati erdia.
03:23: Legazpi.

> **MARTXOAK 25, DOMEKA**
06:31: Antzuola (Deskarga).
07:10: Bergara (sarrera).
08:00: Elgeta (Ubera).
08:30: Elgeta-Elorrio muga.

Oharra: Domekan ordua aldatzen dute:
02:00etan 03:00ak izango dira.

Korrikaren inguruko ekitaldien egitaraua, herriz herri

ARRASATE

Martxoak 23

15:00: Korrika Txikia, San Isidro plazan hasita.
16:30: Karaoke-dantza plazan.
Txistorra postua jarriko dute Gazte Txokokoek.
19:00: Kantuzaleen kalejira.
19:30: Gontxa Taldieren aurkezpena (Mikel Gonzalezen lagunartea).
21:00: Afaria Uarkapen. Bertsolariak, kantuak, trikitilariak...
Afalostean, kalejiran abiatuko dira Aretxabaleta aldera, Korrikari ongietorria egitera.

BERGARA

Martxoak 23

15:15: Korrika Txikia.
17:00: Txokolate-jana.
17:30: Jolasak eta tailerrak plazan, Jardunekoekin. Ondoren, Musika Eskolako Haize Taldearen kalejira.
19:00: Kale antzerkia. La Resistence taldearen *Brakala* ikuskizuna.
21:30: Kantu afaria eta bertsolariak.
Martxoak 25
07:00: Korrikari ongietorria eta txalapartariak San Antonion.
08:00: Txokolate-jana eta salda plazan, musika eta guzti.
19:00: Euskal film laburrak Agorrosinen.

OÑATI

Martxoak 23

15:30: Korrika Txikia.
17:00: Artzain jolasak Kulki taldearekin.

20:00: Triki-poteoa herriko trikitilari eta bertsolariarekin.
02:30: Herrigunean ongietorria Korrikari.

ARETXABALETA

Martxoak 23

15:30: Korrika Txikia.
16:15: Bola egingo dute Kurtzebarriko bakoitiek.
16:45: Ume eta gaztetxoendako dantaldia Herriko Plazan.
18:30: Buruhandiak eta trikitilariak Durana kalean.
19:00: Larrin dantza Mitarte kalean.
Txistorra pintxoak ere egongo dira hantxe.
19:30: Poteoa.
21:00: Afaria. Jatekoa norberak eraman behar du. Sagardoa dohainik egongo da. Animazioa Iñigo Basaberen eskutik.
Afalostean: Omenaldia hiru andereñori.
00:30: Korrikari ongietorria Eskoriatzara bideko biribilgunean.
Ondoren: Txokolatea banatuko dute udaletxe zaharreko atarian.

ESKORIATZA

Martxoak 23

15:30: Korrika Txikia.
16:30: Artzain jolasak.
17:00: Korrikako arropak salgai jarriko dituzte plazan.
17:30: Txapa tailerra eta salmenta Korrikari laguntzeko, Gaztelekuko gazteen eskutik.
19:00: Dantza-erromeria plazan,

txistulariaren.

21:00: Afaria frontoian.

00:00: Korrikari ongietorria.

ANTZUOLA

Martxoak 23

16:00: Korrika Txikia.
Ondoren: Ume jolasak eta tailerrak.
Martxoak 24
Iluntzean: Triki-poteoa.
Ondoren: Afaria gaztetxean.
Afalostean: Karaokea eta gazte olinpiadak.
Martxoak 25
06:45: Korrikari ongietorria etxafuegoekin, herriko sarreran.
Korrika pasatu ondoren, txokolate-jana.
17:00: Antzerkia. Txalo taldearen *Pizti hezlea* antzezlan.

ELGETA

Martxoak 23

15:00: Korrika Txikia.
Martxoak 25
08:05: Korrikari ongietorria Ubera gaineko biribilgunean.
08:20: Elgetara iritsiko da lekukoa.
10:00: Tailerrak plazan.
12:00: Karaokea plazan.

LEINTZ GATZAGA

Martxoak 23

11:00: Korrika Txikia.
17:00: Antzerkia umeendako.
18:30: Zirku tailerrak.
20:00: Afaria Garro jauregian.
Korrika pasatu ondoren, txokolate-jana.

MILAR ELKORO

Eta orain ere... **SUKALDE ALTZARIAKI!**

- Eskatu aurrekontuak konpromiso barik.
- Neurria egindako finantzaketa.



Milar Elkoro Olarte, 1 ARRASATE Tel.: 943 79 18 86

169€

Ufesa AC 5818
Xurgagailua + VL 0710
Lurrun garbitzailea

- Poltsa gabe
- 1.800 W
- Lera-xurgagailua
- HEPA Filtroa
- Metalezko eta hodi teleskopikoa
- Kablea jasotzekoa



189€

Panasonic
DMC FX3 EGMK
Argazki kamera digitala

- 6 megapixel
- Oparia: 512 mb tarjeta
- 2.816 x 2.112 pixel gehieneko erresoluzioa
- 13,5 Mb barne memoria



199€



Samsung VP-D361
Bideo Kamera

- 2,5" LCD pantaila
- Mini DV
- Zoom optikoa: 33x/digitala 1.200 x.
- Sentsore erresoluzioa: 0,8 Megapixel
- Pisua: 430 g.
- Irudiaren egonkortzaile digitala

> HAUTESKUNDEAK

Rebeka Ubera da Batzar Nagusietarako zerrendaburua

Rebeka Ubera elgetarra da Aralar-Ezker Batua koalizioak Gipuzkoako Batzar Nagusietarako aurkeztuko duen zerrendaburua. Koalizio horrek Deba-Urola barrutian aurkeztuko duen zerrendaburua izango da Ubera, hain zuzen ere. Aralarrek Oria barrutian ere izango du zerrendaburua eta Gipuzkoako beste bi barrutietan Ezker Batukoa izango da lehen hautagaia. Rebeka Ubera Batzar Nagusietako batzarkidea da.

> GAZTE MARTXA

Autobusa egongo da gazte martxarako apirilaren 6an

Apirilaren 6tik 8ra egingo dute aurtengo gazte martxa, Untzagatik Laudiora. Debagoiengan autobusa egongo da joateko; 09:20an abiatuko da Bergaratik eta Oñatin, Arrasaten eta Aretxabaletan ere jasoko du jendea. Bestalde, hiru egunerako txartelak Aretxabaleta, Arrasate eta Bergarako Arrano tabernetan daude salgai 33 eurotan. Domekarako sarrerak 15 euro balio du.

> ENPRESAK

Bergarako Lazpiur enpresak zilarrezko Q saria jasoko du

Bergarako Lazpiur enpresako langileek zilarrezko Q saria jasoko dute datorren eguenean, martxoak 29. Ana Agirrek, Eusko Jaurlaritzako Industria sailburuak, emango die saria Lazpiur osatzen duten kideei. Xabier Alkorta Euskalit-eko lehendakaria eta Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea ere egongo dira ekitaldian. Ekitaldian, enpresa bisitatuko dute gonbidatuek eta hitz batzuk ere esango dituzte.

> ELKARTASUNA

Saharako umeak udan ekartzeko bilera egingo dute Arrasaten

Aurtengo udan ere 7 eta 12 urte bitarteko ume sahararrak ekarri gura dituzte ibarrera uztaile eta abuztua hemen pasatzeko. Oporrak Bakean izeneko programa horri buruz berba egiteko, bilera egingo dute Arrasateko Kulturaten astelehenean, 18:30ean. Nubi elkarteak antolatuko du bilera eta Arrasate, Oñati eta Eskoriatzako herritarrei zuzenduta dago. Umeak ekartzeko deialdia martxoaren 30ean bukatzen da.

KOMUNIKABIDEAK > MODU DIGITALEAN EMITITZEKO BAIMENA LORTZEKO

Goienak eta Hamaika taldeak lankidetzara akordioa sinatu dute

Eskualdean digitalean emititzeko baimenari begira, Hamaika ez da Debagoiengan aurkeztuko

GOITBko ekoizpen erdia taldeak kudeatu edo sortuko du; Hamaikak Goienaren %5 du trukean

OIHANA ELORTZA > BERGARA
Goiena Komunikazio Zerbitzuak eta Hamaikak, Telebista Hedatze-ko Taldeak, lankidetzara hitzarmena sinatu dute. Astelehenean sinatu zuten hitzarmen hori alde bietan Bilboko Kafe Antzokian. Inazio Arregik -Tokikoko lehendakaria eta Goienako zuzendari nagusia-, Iñaki Altzagak eta Iñaki Uriak -Hamaikako lehendakaria eta zuzendaria- sinatu zuten.

ABANTAILAK

Lan hitzarmen horrekin, Goienak izaera eta izena gordeko

ditu; ez da Hamaikako kide bihurtuko. Horrek abantaila hauek ditu, besteak beste: eskualdean modu digitalean emititzeko baimena lortzeari begira, Hamaika ez da Debagoiengan aurkeztuko eta epe luzera, programazioa osatzeko aukera handiagoak izango ditu Goienak, baita ekoiztutako programak trukatzeko edo saltzeko ere. Ekoizpen batzordea osatuko dute eta GOITBren ekoizpen erdia taldeak sortu edo kudeatuko du. Trukean, Hamaikak Goienaren kapitalaren %5 dauka.



HITZARMENA Iñaki Uriak, Inazio Arregi eta Iñaki Altzaga.

GOIENKARIA

LAN ISTRIPUA > 18 URTE ZERAMATZAN LANEAN HIJOS DE JUAN DE GARAY ENPRESAN

Langile bat hil da Oñatiko enpresa baten, altzairuzko bobinak azpian harrapatuta

Garayko langileek 48 orduko lanuztea egin dute eguazten eta eguenean; baita eguenean manifestazioa ere, enpresa batzordeak deituta

OIHANA ELORTZA > OÑATI
Eguaztenean gertatu zen lan istripua Oñatiko Hijos de Juan de Garay enpresan. Rafael Zubiagirre 42 urteko langile oñatiarrari altzairuzko bobina erori zitzaion gainera eta momentuan hil zen. Hala, langileek 48 orduko lanuztea egin dute eta atzo, eguena, eguerdian, kontzentrazioa egin zuten enpresaren aurrean eta manifestazioa plazaraino enpresa batzordeak (ELA eta LAB) deituta. ESK eta ESTEILASek ere babestu zuten. Iluntzean, kontzentrazioa deitu zuten ezker abertzaleak herriko plazan.

ARRAZOIAK ARGITU BARIK

Istripua goizeko seietan gertatu zen, langilea lanean hasi eta gutxira. Oraindik argitu gabe daude istripuaren arrazoiak. Antza, altzairuzko bobina bat toki batean beste garraiatu zuten langileak garabi batekin. Bobina zegoen tokian utzi ondoren erori zitzaion gainera. Jaurlaritzako Lan Seguratasunerako Institutuko (Osalan) teknikariak istripua gertatutako tokira joan ziren gertatutakoa aztertzeraz. Osalanek emandako datuen arabera, 77 milimetroko zabalera eta 1.500

mm-ko diametroa zuen gainera erori zitzaion bobinak eta bobinaren eta garabiaren hankaren artean harrapatuta gelditu zen langilea. Oraindik ikertzen ari dira zergatia. Rafael Zubiagiri

rrerekin batera beste 25 lagun zebiltzan lanean sekzio horretan. Hildakoak 18 urte egin ditu garabilari lanetan Garayn. Martxoaren 5ean hasi zen lanpostu berrian. Guztira 370 langile dabilen enpresan eta altzairuzko hodiak eta latoia egiten dituzte.

Lan istripu gehiagorik ez

mezua zuen pankartarekin egin zuten kontzentrazioa eta manifestazioa atzo. Deialdiarekin sin-

dikatuek euren dolua agertu nahi izan dute eta laneko segurtasun neurriak ez direla behar bezala bermatzen salatu dute. Lanpostuz aldatzean langileak formatzeko ere eskatu diete enpresei. CCOO eta UGTk ordubeteko lanuztea deitu zuten EAEko hiri-buruetan eraikuntza sektorean.

Lan istripu horrekin, 38 langile hil dira Euskal Herrian urte hasieratik, 10 Gipuzkoan.



nuclertec. s.a.

Tel.: 943 20 89 96

Zentro laguntzaile:

naturgas
energia

GALDARAK BERRITZEKO KANPAINA

Zure galdarak 10 urte baino gehiago baditu eta arazoak ematen badizkizu, prezio ezin hobean galdara itxi batengatik aldatuko dizugu.

270 euroko diru-itzulketaren duen Renove plana tramitatuko dizugu, zuk nahi duzun markarekin eta ezertaz kezkatu barik.

Dei ezazu eta gure teknikariek bisita egingo dizute, eta aholkatua eman.

Urkizu 11, solairuartera
EIBAR

Tel.: 943 20 89 96
nuclerteceibar@euskalnet.net



HERRI-GUNEAk Errepideetan ez ezik, kaleetan ere arazoak sortu zituen elurrak eta elurra kentzen jardun zuten makinek. Irudian, Elgeta.

IBAN ARANTZABAL

ELURTEA > ARAZOAK ARAZO, EZ DA EZER LARRIRIK GERTATU DEBAGOIENEAN

Iragarrita zegoen arren, arazo ugari sortu zituen elurrak Debagoienez

Deskargan hainbat kamioi ez atzera eta ez aurrera geratu eta auto ilara handiak sortu ziren

PESAk hainbat autobus zerbitzu bertan behera laga behar izan zituen eguaztenez

AINZANE IRIZAR > BERGARA

Eguazteneko elurteak arazo ugari sortu zituen Debagoienez. Zerrenda luzea izan daiteke, baina errepideetako arazoek sortu zituzten eragozpen handienak.

Dena dela, badirudi atzean lagatzen goazela elur ekaitza eta tenperaturak epeltzen hasiko

direla. Euskalmet-en arabera, euri ugari botako du gaur, egu-bakoitza, baina tenperaturak gora egingo du.

ERREPIDEETAN ARAZO GEHIEN

Ohikoa den moduan, errepideetan eragin du arazo gehien elurteak. Eguazten goizean, Deskar-

ga, Leintz Gatzaga eta Udana mendateak itxita egon ziren; Kurtzetan eta Elgetan, berriz, beharrezkoak izan ziren kateak. Deskargan, gainera, hainbat kamioi geratu ziren ez atzera ez aurrera eta auto ilara luzeak sortu ziren; itota geratu zen mendatea eta elurra kentzeko makinak ezin izan ziren pasatu. Gainera, gidari batzuk herri barruan sartu ziren eta han ere arazo handiak sortu ziren.

Autobus zerbitzuan ere egon ziren arazoak; PESAko hainbat zerbitzu bertan behera geratu ziren eta beste hainbatek atzerapenak izan zituzten.

Istripuak ere gertatu ziren eguaztenez; Oñatin gertatutakoak auto ilarak sortu zituen. Bergaran, kamioi bat errepidetik irten zen eta Arrasaten autobus bat. Eguenez, bestalde, Leintz Gatzagako mendatea itxita egon zen eta Kurtzetatik pasatzeko beharrezkoak ziren kateak.

Autobidea hartu nahi zutenek ere hainbat eragozpen izan zituzten; izan ere, Bergara parean itxita egon zen eguaztenez AP-1 autobidea. Arrasaten, bestalde, autobidean sartu eta metro gutxira auto ilarak sortu ziren. Hainbat erabiltzailek euren kexa eta haserrea adierazi zuten.

ERREPIDEK KANPO ERE BAI

> IKASLEAK

Mondragon Unibertsitateko hiru fakultateetan (Arrasateko Eskola Politeknikoa, Eskoriatzako Huhezi eta Oñatiko ETEO) bertan behera geratu ziren eskolak.

> OÑATIN, ARGIBARIK

Oñatiko erdigunean eta hainbat auzotan argindar barik egon ziren eguaztenez, sei orduz.

> UDAL LANGILEAK

Herriguneetan elurra kentzen eta gatza botatzen lan handia egin dute egunotan udal langileek.

Hezurren kalitatea zain ezazu. Hezur-dentsitometria orain Arrasaten.

CG

CONSULTORIO
GINECOLOGICO



Policlinica Gipuzkoa

ARRASATE

Zerkaosteta 17

943 79 20 18

Donostia: 943 30 82 08

Eibar: 943 12 10 21

Irun: 943 61 78 88

kontsumoa



Butano-botila merkeagoa izango da apirilaren 1etik aurrera. GOIENKARIA

Butano-botilaren prezioa %2,12 jaitsiko da eta 11,53 euro balioko du

MIRIAM BITERI > BERGARA

12,5 kiloko butano-botila bakoitzak 11,53 euro balioko du datorren apirilaren 1etik aurrera. Urte hasieran, urtarrilaren 1ean, bonbonaren prezioa 11,78 euro zen. Aste honetan bertan, baina, prezio berria jakinarazi du Espainiako Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak.

Izan ere, hiru hilabete behin prezioa berriro aztertzen du Energia eta Meatze Politikako Zuzendaritza Orokorrak. Eta oraingo honetan, bonbonaren prezioa merkatzea erabaki du. Datorren hilabetean, %2,12 gutxiago balioko du. Alegia, gaur egun baino 25 zentimo gutxiago.

Jaitsiera zehazteko bi faktore nagusi izan dituzte kontuan: alde batetik, materialaren garraioaren kostuak behera egin duela aintzat hartu du Energia eta Meatze Politikako Zuzendaritza Orokorrak; eta, beste alde batetik, dolarraren aurrean euroak duen balio-igoerak eragina izan du beherakada horretan.



1.355 euro gastatu genuen iaz bakoitzak etxeko produktuetan

Pasa den urtean, pertsona bakoitzak etxean erabilitako elikagaietan 1.355 euro gastatu genuela jakinarazi du *Consumer* aldizkariak. 2005ean baino %5,3 gehiago.

Diru gehiena produktu freskoak erosteko erabili genuen, hala nola arraina, okela, fruta, barazkiak, esnea, esnekiak eta ogia. Kostu osoaren %59 osatu zuten produktu horiek.

Elikagaiak Internet bidez erosten dituztenen kopurua ere igo egin zen. Kontsumitzaileen %4,4k noizean behin erabili zutela azaldu dute.



Iaz %21ek ez zuten gainditu ibilgailuen azterketa tekniko

AECA-ITV elkarteak azpimarratu duenez, iaz ibilgailuen %21ek ez zuten gainditu azterketa tekniko; bostetik batek. Hutsigate larri batekin nahiko da ibilgailua ibiltzeko gauza ez dela zehazteko eta baita mena atzera botatzeko.

Hain zuzen, balaztek eta argiztapen eta seinaleztapen sistemek eman zituzten arazo gehien. Gorpulen pneumatiko, ardatz eta esekidura eta isuri kutsakorrak, berriz, atzerago geratu ziren onarpena ez lortzeko ohiko arrazoen zerrendan.



ANTOLATZAILEAK Debagoieneko Mankomunitateko presidentea eta *Euskal Herria* aldizkariak aurkezpenean. MANKOMUNITATEA

KULTURA > EKAINAREN LEHEN ASTEBURUAN EGINGO DEN JAIALDIA AURKEZTU DUTE

Aretxabaletak hartuko du aurtengo Mundumira

Bost kontinenteetako musikaren, antzerkiaren, gastronomiaren eta artisautzaren gaineko ekimenak izango dira egun horietan

I.S. / M.B. > ARETXABALETA

Mundumira munduko kulturen festaren nondik norakoak aurkeztu zituzten atzo Debagoieneko Mankomunitateko presidente Arrixe Olidenek eta *Euskal Herria* aldizkariako ordezkariak. Azken horiek jaiaren antolaketan parte hartzen ari dira, Gin Tonic ekoizpen etxearekin batera.

Jaialdiaren hirugarren edizioa Aretxabaletan izango da, ekainaren 1etik 3a bitartean. Hango kaleak musikaz eta kolorez beteriko festa bilakatuko dira.

DENETARIK

Bost kontinenteetako musika, antzerkia, gastronomia eta artisautza ezagutzeko askotariko

ekintzak egingo dira. Guztiak doan izango dira. Horretaz gain, elkartrukerako eta eztabaidarako kultura askotariko foroak, haur topaguneak, jaialdia egiten den ingurunea ezagutzeko ibilbideak, kirol lehiaketak, liburu azokak eta musika edonon aurkitu ahal izango dira egun horietan.

Gune berean mundu osoko ekitaldi artistiko ugari egingo dute topo, hala nola dantzek, pinturek eta eskulturek. Aurreikusita dauden ekintzak adin guztietako jendeari zuzenduta daude jakinarazi zuten antolatzaileek.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

nolako ikasketak, halako etorkizuna

Mikel Balerdi
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizenziatua.
Proiektua Finlandiako Turku Unibertsitatean.

"Proiektua, ekintzailetasunari zuzendutako ikerketa aplikatzen aitzindaria den unibertsitate batean egiten ari naiz"

www.mondragon.edu/etorkizuna

gure artekoak

ALFA ROMEO 159 > Iaz merkaturatu zuten automobil hori; Carlos Ruizek azaldu digu 100 urteko ibilbidea eta eskarmentua duela Alfa Romeo etxeak kirol-automobilak egiten, eta horixe da azkeneko modeloa.

Carlos Ruiz > Kanpanzar-eko salmenta arduraduna

"Kalitate eta erosotasun handiena eskaintzen dizkigu"

AINZANE IRIZAR > ARRASATE

Kirol-automobilaren errege dira Alfa Romeo etxeak, Carlos Ruiz Kanpanzar kontzesionarioko salmenta arduradunak adierazi digunez. Iaz merkaturatu zuten Alfa Romeo 159 eta horrelaxe deskribatu digu Ruizek: "Potentzia handiko automobila da, oso eroso eta segurtasun handia eskaintzen digu. Kalitate eta erosotasun handiena eskaintzen digu".

Estetikari dagokionez, Alfa Romeo guztien estiloari jarraitzen dio: "Automobilaren muturrak itxura oso erasokorra, oldarkorra dauka, Alfa Romeo markaren ezkutuarekin. Aipatzekoa da, gainera, Giorgetto Giugiaro diseinugile ezagunak diseinatu duela Alfa Romeo 159". Faro boro-bil bereizgarriak ere aipatzekoak dira.

SEGUENEN ARTEAN

EuroNcap-ek egiten duen balorazioan, bost izarrak ditu automobil horrek. Airbag sistema osoa dauka eta oso automobil sendoa da. Xasis malgua dauka eta aurreko suspentsioak karratuak. Horrek esan nahi du errepideari heltzen zaiola egonkortasun handiarekin. Gainera, 150 ZP-ko indarrarekin, aurreratzean eta irteera arriskutsuetan segurtasuna ematen digu.



Carlos Ruiz familiar erako Alfa Romeo 159 automobila erakusten.

A.I.

Alfa 159 1.9 JTD 150 ZP Selective

Prezioa	31.310 eurotik hasita
Luzera	4,66 metro
Zabalera	1,82 metro
Maletategia	405 litro ⁽¹⁾
Kontsumoa	6 litro /100 km ⁽²⁾
Abiadura	210 km/h ⁽³⁾
Otik 100era	9,4 seg.
CO2 isurketak	159 g/km

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

Bestalde, kirol-automobila den heinean, aipatzekoa da nerbio biziko motorra duela eta gidatzeko orduan berezia dela.

ESPAZIO HANDIA

Bidaiariei automobilak espazio eta erosotasun handia eskaintzen die. Eserlekuak bereziki erosoak dira eta diseinua oso dotorea da barrutik ere.

Aipatzekoa da, azkenik, berlina edo familiar erakoa daudela aukeran. Lehendabizikoa da lau atekoa eta bigarrena bost atekoa. Azken horrek espazio handiagoa eskaintzen digu.

etxeke leihotik



Aitziber Aranburuzabala > Arrasate Irratiko arduraduna

Elurrari aurre egiteko, informazio zaparrada

Ez dakigunean zer esan, baina kortesiagatik behartuta gauden uneetan, eguraldia erabiltzen dugu komodin moduan. Asteon, gainera, eman du motiborik.

Irratian ere elurrak minutu asko bete ditu. Alde batetik, uste dut hori dela gure betebeharra; jende guztiak ez du eta uneoro Interneten konektatzeko biderik. Beste alde batetik, baina, elkarrizketatu batek esan zidan moduan, komunikabideetan elur gehiago egiten duela dirudi. Nik ere pentsatu izan dut, bai, etengabeko informazio eman eta jasotzeak ez ote duen *histeria kolektiboa* gizentzen. Baina era berean, errepidean egiten ditugun astakeriak ikusiz, informaturia egotea beharrezkoa dela iruditzen zait.

Egunotan autobusean egin ditut lanerako joan-etorriak, beste askok moduan. Autobusa jendez lepo ikusteak poztasuna eman dit nahiz eta bidea zutik egin behar izan nuen. Egun arrunt batean ez omen da jarlekurik faltan izaten.

Lehenengo aldian, ez nekien bidaiagatik ordaindu beharrekoa. Egunero autobusa erabiliko banu, ez nuke "zenbat da?" galdetu beharrik izango, ezta?

"Pentsan elur gehiago egiten omen duela esan dit astean entzule batek"

> **Udaberrian sartu ahala, dagoeneko ekarri dizkigu bi lore. Bat oso polita, euskaren aldeko Korrika. Beste, aldiz, zatarra oso, Oñatiko lan istripua; zoritxarrez sarriegitan ditugu horrelakoak.**

> **Heldu Korrikari! Heldu euskarari! Heldu elkarlanari! Heldu lekukoari! Heldu hitzari! Heldu herriari! Lelo horiek oihukatu behar ditugu asteburuan Debagoinean. Prest izan, bada, zapatilak!**

begi-bistan



Ura oxigenatzeko sistema (Arrasate) 2006/03/20

Argazkia: Anabel Dominguez.
Testua: Ainzane Irizar.

Aramaio errekararen saneamendu sarea amaitu dute eta Jaurlaritzako agintarien bisita izan dugu. Bide batez erakutsi digute ura oxigenatzeko sistema berezia, irudiko ur-zurrusten bitartez.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak



Andoni Salamero

IDAZLEA



Luis Duran

KOMIKIGILEA



Xabier Altube

IDAZLEA

Oñatiko Elkar Hezi ikastetxeko irakasle da Andoni Salamero. Datorren aste-ko egubakoitzean, martxoaren 30ean, *Bide ertzeko printzak* poesia liburua aurkeztuko du, kultura etxean, 19:00etan. Aurkezpena, era berean, poesia errezitaldia ere izango da.

Astelehena ezkerreko ikusgai daude Luis Duran oñatiarraren lanak, Gaztelekuko Kuboan eta kultura etxeko erakusketan aretoan. Apirilaren 4ra arte egongo da zabalik erakusketak. Egunkari, fanzine, liburu eta albumetan argitaratutako lanak jarri ditu Duranek.

Bilboko Udalak antolatzen duen Gabriel Aresti ipuin lehiaketa irabazi du Xabier Altube aretxabalarak, *Aldaera#01* ipuinarekin. Euskal Filologian lizentziaduna da eta ipuinaren gaia da hizkuntza. Datorren urtean emango dute argitaratu ipuina.

Edurne Brouard (1959, Bilbo) | ka antolatzeko lana hartzen | ka bizi izan ditu. Prestaketa | pozarekin amaitzen duela esan
1980an sartu zen AEKn. Irakas- | du. Korrikako koordinatzaile | lanak gogorak diren arren, | digu. Aurten, Iruñeko Gaztelu
lea da eta bi urtetik behin Korri- | lanetan, 1982a ezkerreko 13 Korri- | euskararen aldeko lasterketa | plazan egingo dute agur festa.

Edurne Brouard > Korrikako Koordinatzailea

"Debagoiena Korrikaren puntu oso indartsua da, esku-hartzea itzela da"

AMAGIOIA LASAGABASTER > ARRASATE
Duela 27 urte, Euskal Herria Oñatitik Bilbora zeharkatu zuen lehenengo Korrikak. Orduetik hona, euskararen alde antolatzen den ekitaldirik jendetsuena eta garrantzitsuena da. Edurne Brouard bilbotarrak ondo daki zer den horrelako lasterketa erraldoi bat antolatzea. Aurten ere, hark koordinatu du Korrika.

1980. urtean egin zen lehenengo Korrikak Oñatin izan zuen irteera. Zelan gogoratzen duzu egun hura?

Ez nintzen Oñatin egon, amaieran izan nintzen, Bilbon. Lehenengo Korrika arraroa izan zen guztiondako; ez genuen gaur egungo indarrarekin hartu eta proba antzeko bat izan zen. Bigarren Korrikan sartu nintzen ni antolatzaile lanetan.

Zertan aldatu da urte hauetan guztietan?

Hiru oinarri kenduta, beste guztia aldatu dela esango nuke. Korrikak betidanik hiru gauza mantendu ditu: lehenengoa, euskararen eremu osoan egiten den jaialdia dela; bigarrena, lekukoa eskuz esku pasatzen dugula eta horrek irudikatzen duela denok garelako beharrezkoak euskara berreskuratzeko lanean; eta hirugarrena, korrika egin behar dela, lasterketa bat dela. Gainerako guztia zeharo aldatu da. Petoak, adibidez, bosgarren Korrikan sartu genituen. Zer esanik ez abantailla teknologikoek ekarri duten aldaketa. Korrikak sake-lako telefonorik gabe iraun du. Hirugarren Korrikan Gurutze Gorriak utzitako irrati erraldoi antzeko tramankuluarekin ibili ginela gogoratzen dut. Horrez gain, ikustekoak ziren orduko auto eta furgonetak. Korrika gizartearekin batera aldatu dela esango nuke.

Zelako lana da Korrika antolatzea?

Normalean Korrika Aberri Egunaren aurreko domekan amaitzen dugu; hortaz, behin bukatuta opor txiki batzuk hartzen ditugu. Gero, udako oporrak bitartean, amaitutako Korrika ixten dugu; hau da, balantzeak egin, diru kontuak, txostenak idatzi... Eta behin ikasturtea hasten dugunean, irailean-edo, Korrika berria prestatzen hasten gara. Batzordeak eratzen, Korrikaren mezua lantzen, ibilbidea zehazten...



Edurne Brouard 1980tik ari da AEKn. Bera dugu Korrikako koordinatzailea azken urteotan.

KORRIKA

Dagoeneko martxan da 15. Korrika. Debagoienara gaur iritsiko da aurrenekoz. Zelako erantzuna espero duzue?

Betikoa, oso ona. Zuena oso inguru euskaltzalea eta euskalduna da. Duda barik, Debagoiena Korrikako puntu indartsuena da bat dela uste dut.

Gurera gauez iritsiko da. Nola bizi da Korrika gauez?

Momentu politak izaten dira gauez ere. Gainera, badaude moduak ordu horiek alaiagoak izateko, afariak-eta egin daitezke. 14 Korrika daramatzagu eta ikusi dugu gaueko kilometroek ez dutela eguneko inbidiarik. Beste xarma bat dute. Egunak jendea erakartzen du, eta gauak zuziak, intimitatea, ikusgarritasuna... ekartzen ditu.

Momentu hunkigarriak bizi izaten dituzue?

Bai, batez ere lekukoa pasatzeko momentu horiek oso bereziak izaten dira. Laztanak, nega-

BILAKAERA

"Korrika gizartearekin batera aldatuz eta garaietara egokituz joan da"

GAUEKO KILOMETROAK

"Gaueko kilometroek ez dute eguneko inbidiarik; gauak ere oso bereziak izaten dira"

EKIMEN HUNKIGARRIA

"Adin guztietako jendeak Korrikan esku hartzeak oso une hunkigarriak sortzen ditu"

rrak, barreak... Izan ere, ume zein nagusi, denetarik ikusten dugu ibilbidean zehar.

Emakumea omenduko duzue aurten; zergatik?

Oraingo Korrikak *heldu* du lelo nagusi. Eta pentsatu genuen inork euskarari ondo *heldu* badio, hori euskal emakumea izan dela. Pentsatu genuen bazela garaia euskal emakumeari omenaldi hori egiteko. Hain zuzen ere, erakutsi gura genuen euskal emakumeak euskara gordetzeaz gain, transmititu ere egin duela urte luzez. Guk uste dugu hori begi-bistakoa dela, eta horren itsu egongo ez bagina beharbada ez genuke omenaldi hori egin beharko. Baina itsuak gara eta nolabait ikusarazi egin gura izan dugu lan hori.

Zein erronka ditu AEKk gaur egun?

Uste dut AEKren eta euskaltzale guztion erronka dela Euskal Herrian euskara berrezar-

tzea. Hori da gure nahia eta hori da gure erronka. Uste dugu Korrika moduko mobilizazioak eginez gure aletxoak jartzen dugula. Badakigu horrekin ez dela guztia konpontzen. Norberaren konpromisoa beharrezkoa izango da Korrika amaitutakoan ere. Edonola ere, Korrika moduko ekitaldiekin bi gauza erakusten ditugu: Euskal Herria euskaldun izan dadin herritarrek duten nahia; eta bi, helburu jakin batekin jende ugari mugiarazteko gai garelako.

Iruñeko festa egin eta gero, dena amaitutakoan, zelan gelditzen zaio gorputza Edurne Brouardi?

Normalean ordurako oso-oso nekatuta izaten naiz, baina sekulako poz sentimendua ere izaten dut barruan. Espero dugu aurten ere egun horretan Iruñeko Gaztelu plaza jendez lepo egotea. Horixe litzateke Korrikari amaiera ezin hobea emateko modurik onena.



zabalik

Javier Marcos

Heziketaz

Radio Euskadin programa berezia egin zuten aurreko astean gure seme-alaben heziketaren gainean. *Nola hezten ditugu gure seme-alabak?* galderaren inguruan iritzi eta esperientzia mordoa bildu zen. Gora eta behera ibili ziren eztabaida honetan game-boyak, telebista eta ordenagailuak. Bideo-kontsolak oso gustukoak omen daukate, Internet eta *messenger*-arekin eroso ibiltzen dira, telebistako marrazki bizidun guztiak ezagutzen dituzte eta *Wazemank*, *Martin* eta *Goenkale*-ren ikusle amorratuak dira.

Ez ziren falta bestelako aipamen hauek: gaurko umeak eguzki epeletakoak direla, den-dena eginda ematen diegula, iniziatiba gutxi dutela, gurasook lan asko egiten dugunez denbora gutxiago pasatzen dugula euren, ikastetxeari gehiegi exijitzen diogula (formazioaz gain heziketaz arduratzea), irakasleek autoritatea galdu dutela, eta abar.

Entzundakoan artean honako hauekin gelditzen naiz:

Erantzule izatea. Egiten dituzten gauza batzuk neutroak izango dira, baina beste batzuek aldeko eta kontrako ondorioak izango dituzte. Hau da, egiten/esaten dituzten gauza gehienek aurrean erantzukizunaz jokatzeko behar dute.

Mugak ipini. Denak ez du balio, umeek ere mugak behar dituzte. Ezin daitezke telebista ikusten hiru ordu egon, ezta etxerako lanetan egunero bi ordu eman.

Komunikazioa sustatu. Guraso eta seme-alaben arteko komunikazioa ezinbestekoa da. Familiaren makinariak zaratik atera ez dezan komunikazioa behar-beharrezko olio da. Eta ez da erraza espazioak bilatzea elkarrekin hitz egiteko.

Autoritatea. Gurasook guraso papera jokatu behar dugu. Etxeko demokraziak hierarkiaren beharra dauka.

Teoria laster ikasten dugu. Aplikazioan datoz komeriak!

"Gaurko umeak eguzki epeletakoak direla, iniziatiba gutxi dutela... zioten irratian"

"Gurasook guraso papera jokatu behar dugu. Etxeko demokraziak hierarkia behar du"

Goienkaria

Argiraratzaila Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Edu Mendibil **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.155 ale • **Difusioa:** 18.629 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko
Jauriaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaleto
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

herritarrak galdezka

ASTE SANTUAN ZABALIK EGONGO DIRA IBARREKO IGERILEKUAK?

Aste Santua apirilaren 5etik 9ra ospatuko da. Egun horietan ibarreko igerilekuak zabalik izango diren jakin nahi du Debagoieneko bazkide txartela duen oñatiar batek.

Debagoieneko kiroldegietara jo dugu argibide eske: Bergaran, Aste Santuan aste bukaerako ordutegiarekin zabalduko dute Agorrosin: goizez 09:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 16:00etatik 21:00etara izango da zabalik kirol eremu berria apirilaren 5etik 9ra. Apirilaren 10ean Agorrosin itxi egingo dute, garbiketa egiteko. Apirilaren 16an zabaldu dute berriro.

Arrasaten, Musakolako kiroldegia Aste Santuan goizez bakarrik izango da zabalik, 08:30etik 14:00etara.

Aretxabaletan, apirilaren 9an itxita izango da eta hilaren 5etik 8ra 09:00etatik 13:15era egongo da zabalik igerilekua.

Eskoriatzan ere apirilaren 9an itxi egingo dute eta gainerako egunetan 09:30etik 13:00etara

zabalduko dute igerilekua.

Azkenik, Oñatiko Zubikoa kiroldegiko igerilekuak itxita izango dira apirilaren 2tik 9ra (biak barne), egin behar duten garbiketa dela eta. Aste Santuan, apirilaren 7an eta 8an zabalik izango da gainerako instalazioa, ohikoa ordutegian.

BERTSO SAIORIK IZANGO DA ERRAMU ZAPATUAN BERGARAN?

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoiokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

Hurrengo zapatuan, martxoaren 31n, Erramu Zapatuko Feria ospatuko da Bergaran. Gauean bertso saiorik egongo ote den galdetu digu Arrasateko bertsozale batek.

Hala da, bai. Bertso saioa iragarrita dago hurrengo zapatarako Bergaran. Udal Pilotalekuan izango da 22:30ean eta honako bertsolari hauek hartuko dute parte: Andoni Egaña, Xabier Paia, Igor Elortza, Unai Iturriaga, Jon Maia eta Mailen Lujanbiok. Gai jartzaile lanetan Enaitz Alustiza arituko da. Sarrerak 5 eurotan salgai jarriko dituzte egunean bertan, Udal Pilotalekuko leihtilan.

BERGARAKO TURISMO BULEGOA NOIZ ZABALDUKO DUTE?

Bergarar batek deitu digu telefonoz, jakiteko zein egunetan zabalduko dute Turismo Bulegoa.

Kultura Zerbitzuan zera adierazi digute: Turismo Bulegoa martxoaren 29tik maiatzaren 1era bitartean zabalduko dutela. Argibide gehiago 943 77 91 28 telefonon jaso ditzakezue.

marraskiz

Alex Ugalde



Buruzagi jeltzaleen matrailak

Markos Zapiain

www.eibar.org./blogak/zapiain

Euskaldunen artean forua baino zaharragoa da agintea ar-ezaugarri nabarmenak dituen gizonari ematea. Ez dirudi indoeuroparren eragin hutsa, txinpantze taldeek berdin dihardute.

EAEn boto gehien jasotzen duen alderdira mugatzearen, tradizioak agintzen du jeltzale-

en buruzagiak matrailezur eta kokots sendoduna izateaz gain begien bistan erakus dezan: Agirre, Irujo, Ajuriagerra, Sodupe, Arzalluz...

Baina haustura bat gertatu da berriki: gaur egungo noraez eta zalantzak Imazen matrailaren inkognitari zor zaizkio beharbada, bixarraz tapatzen baitu.

Historiaren astunak, halatan, jeltzaleen zinezko buruzagia bilatzekotan, EBBkideen matrailezurak aztertzeraz bultzatzen gaitu, eta eztabaidaezina da emaitza: Urkulluren kokotsak Imazenak baino artezago lotzen gaitu

Arzalluzen eta Ajuriagerraren sokarekin. Gaur egun Urkullu da benetako agintaria.

Bestalde, jeltzaleen inguruko *Izarone.com* webgunean, txitean-pitean, Ibarretxeren eta Imazen arteko xextrak direla eta, Imazek Ibarretxe egotziko balu –sozialistek atsegin ez dituzten ekimenekin tematzeagatik–, Josune Ariztondo jo izan dute Ibarretxe bota osteko lehendakaritzat. Berehala Jose Luis Bilbaori emango lioke lekukoa.

Matrailezur jeltzaleen Historian zail da Ariztondorena kokatzea. Baina ematen du alderdiaren ohiturak aldaketa

plazara

Iñaki de Juanaren auzia dela eta, PPK gobernu sozialista astintzeko aitzakia topatu duela dio Karlos Ormazabalek. Bazirudien bake

prozesu garaia gobernu sozialistak nahi zuen bezala kontrolatzen zuela, baina egoera kontrari jarri zaió Barajasko atentatua gerta-

tu zenetik. Edozelan ere, maiztzeke hauteskundeetan PPK eta sozialistek bat egingo balute, ez litzateke harrituko egilea.

Karlos Ormazabal *

Botika ezaguna

Demokrazia ezarri zenetik, prozesurik inboluzionistetariko baten aurrean gara. Politikako lehen lerrotik alderatu behar direnek, beren loriazko memento hobe edo okerragoa pasa ondoren beste batzuei dagoen tokia utziz, ez dute alde egin nahi edozein aitzakia erabiliz eta aitzakia hau beraien kontra egon daiteke hautesleen pazientzia akabatzen bada.

2003an PP demokratikoki baztertua izan bazen ere, beraien hanka-sartzeengatik batik bat, jada lortu du gobernu sozialistaren aurka joateko modua. Iñaki de Juanaren auzia izan baita oposizioko talde nagusienak mendebaldeko demokrazia guztien artean legez osaturiko gobernuaren aurka joateko bidea.

Jakina da De Juanak aspaldian etxean behar zuela, bere garaian ezarritako zigorra bete baitu, baina albo batean utzi behar da artifizialki beste zigor bat ezarri nahi zaiola, eta bade-la zerbait, iritzi bat emateagatik (horrela aitortu baita) *arintze* kartzela ezarri zaiolako eta berori betetzen ari delako.

Tribunalek gobernuari pozoi-tutako enkargua eman zioten, *barkamen* neurriak ematea bere esku geratu baitzen eta ondorioz Kartzela Erakundeek ez zuten beste erremediorik izan *hildakoa pasatzea* baino, honela buka zitekeelarik guztia, Euskadiri pasatuz hain zuzen ere, oraindik beronek transferentzia hau eskuratu gabe duela kontuan hartuz. Ez dago gizaldekoko neurririk, saldu nahi izan diguten bezala eta inork sinesten ez duen bezala. Geratzen zitzaizen baka-



MIKEL ARROIABE

rra, De Juanak bere egunak kartzela batean edo Estatu Espainoleko ospitale batean bere egunak akabatzea, bere zigorra beterik izanda. *Banadero* gisa gera zitekeen Estatu Espainola mendebalde guztiaren aurrean.

Baina De Juanaren auzia bere testuinguruan ipini behar da. Eta berau Barajasko ETArek eraso da. Mayor Orejak berak ere aitortu du hainbat preso kartzelatik atera edo Euskal Herri-*ra* gerturatu zirela ETak erasorik egiten ez zuenean.

ETArek erasoaren ondoren izandako Bake Prozesu garaiak, gobernu sozialistak nahi zuen bezala kontrolatu eta kudeatzen zituela ziruditenak, orain kontra

**"Bai batzuek zein
besteek batera lotsarik
gabe gainontzekoei
eskatzen diete legea
betetzeko, beraiek bete
ez dutenean"**

**"Popularrek adierazi
nahi izan dute kalea
eurena dela, Fragak bere
garaian egin bezala"**

ipini zaizkio. Espainiako banderaren erabilpen lizuna, himno nazionala edo biktimen erabile-*ra* egitean, popularrek adierazi nahi izan dute kalea eurena dela, Fragak bere garaian egin bezala.

Eta bai batzuek zein besteek batera lotsarik gabe gainontzekoei eskatzen dietenean legea betetzeko, beraiek bete ez dutenean eta betetzeke jarraitzen dutenean. Ez dirudi geratzen den denboran sozialistek beren burua defendatu beste egingo dutenik, hauteskunderi begira...

Kasu honetan bakarrik uler genezake preso hurbilketa edo balizko Ezker Abertzalearen legalizazioa, bere presentzia ikusteko hauteskundeetan eta gero, lagungarri izan ditzakete-lakoan, hurrengo udal edo legebiltzar hauteskundeetan. Estatu-ko Gobernuak galtzea, baina, *katalanen* moduko gobernuak irabaziz alderdi nazionalistekin batera (Katalunian gertatua, Galizian edo Euskadin beste saia-*kera* bat behintzat eginaz), esker-*rrak* emango lituzkete Rodriguez Ibarra edo Maragall bezalakoak gainetik kentzearen, agian ez da porrot izugarria izanen...

Aurrean aipaturiko hipotesia guztiz zilegi ez izan arren, ez litzateke guztiz arraroa izanen Euskadin popularrek eta sozialistek bat egitea. Bestela nola uler daiteke Gipuzkoako sozialistek bi alkatetza gehiago lortu nahi izatea, batzuek PPKoei esker, gaur egun dituztenei gehituz? Xedea da: Noren laguntzarekin?

*Karlos Ormazabal Gipuzkoako EAJ-ko Erki Batzarreko kidea da.

zer deritzozu?

www.goiena.net

Aste Santuan eskaintza ona dago gurean?

BAI	% 00
EZ	% 100

> AUKERA GUTXI

Egia esateko, ez dakit Aste Santuko eskaintza dagoenik... Turistendako zabal-tzen dituzte turismo bulegoak baina hortik aparte ez da gauza berezirik antolatzen. Eta alde batetik logikoa da jende gehiena herritik kanpora joaten delako. Ez da ezer egoten eta beharbada bertan geratzen direnei eta kanpo-tik datozei zuzenduta ondo egongo litzateke ekitaldiren batzuk antolatzeta.

Ainara

> MUSIKA JAIALDIA?

Aste Santuan eta uda partean gauza gutxi antolatzen dituzte ibarrean. Ikasle asko oportetan gaudenez musika jaialdiren bat egitea ondo legoke, kanpoko jendea erakartzeko eta gure txokoak ezagutzera emateko. Gazte jende asko mugitzen da Aste Santuan eta urrin joaten ez direnentzat aitzakia polita izan daiteke. Ea kultura programatzaileek asmatzen duten. Unai

**DATORREN ASTEKOA:
Elurteak eragindako
trafiko arazoak erraz
saihestu daitezke?**

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu erantzun interesgarrienak.

- top

sakon bat beharko lukeela ondarrutarraren kokots finari agintaritzan onartu ahal izateko.

Insomnioa

Anjel Lertxundi

www.berria.info/blogak/lertxundi

Eskuinaren kulpaz insomnioarekin bainabil, publizitateaz asko dakien adiskide bat etorri zait bisitan: "Beti ezetz eta ezetz ari dituk. Berea defendatu ordez besteena txikitzea ditek estrategia bakarra. Apokaliptikoak dituk beren mezuak, neurri kanpo-

koak, beldurraren makina batean koipeztatuak... Publizistok overpromise deitzen zioagu neurri kanpoko mezu-klase horri. Baina hago lasai, estrategia negatibo horrek boomerang efektua izaten ditek eta. Alimaleko hanka-sartzea duk arerioaren produktua neurri kanpo kritikatzeta. Beren estrategiak irentsiko ditik, ikusiko duk".

Porro bat erre banu baino aingerutxoago, loak hartu nau. Eta, halako batean, hor ikusi dut Sanz Alli irensten; etorri da Raxoi, eta Sanz irensten; etorri dira gotzainak, eta Raxoi irensten dute...

Lagunak dio oihuka pasatu dudala loaldi laburra: Eta gotzainak? Nork irentsiko ditu gotzainak?

Insomnioarekin segitzen dut.

Oharrak (Post scriptum)
- Sekreturik gabeko zutabe bat. Ipuin polit bat memorian iltzatuta geratu izanaren fruitua.

-Pirandello-ren Enrike IV.a ere ekarri liteke gogora. Aktore bat Enrike IV.arena jokatzeko ari da. Halako batean, zalditik erortzen da eta kolpe bat hartzen du buruan. Handik aurrera Enrike IV.ena dela pentsaturik biziko da... (...)

koplak

Lierni Altuna

Abiadura Handiko Trena

Azkar ta eroso joan behar gara gu alde guztietara, hori garapena izan arren zentzurik hortan ba al da?

Natura txikitzen ari gara zentzu ta etenik gabe, Abiadura Handiko Trena hemen horren adibide

Ez dut ulertzen proiektu hori nola dijoan aurrera, herriak hartuko du horrela eskalestrikan tankera

Gobernua diotenez dago pertsona guztien alde, baina tren hori gehienontzako ez da irtengo debalde

Inori ezer galdetu gabe proiektu hau egin dute, herriari engainatzen denek dituzte hainbat bertute

Erokeria ez onartu ta alarma guztiak piztu, guztion artean behar dugu txikizio hau gelditu.

Oraindik garaiz gaude: AHT Gelditu!

Jesus Mari Garitano

Bergarako Ezker Abertzalearen izenean
Bergara

Pasa den larunbatean Arrasaten argi geratu zen Debagoieneko gizartearen sektore garrantzitsu eta zabal bat AHTren proiektuarekin bat ez doala. Beste hainbat euskal herritan bezala, gure bailaran ere inposatutako azpiegitura honen kontrako mobilizazioek gero eta herritar gehiago biltzen dute, jendeak AHTrena gauza publikoak kudeatzeko modu zehatz baten adierazle nagusizat jotzen baitu.

Zein da politika egiteko modu hau? Garraioarena oso arazo konplexua da, baina sintesi bat egiteko esan dezakegu gure errepide sarea ia kolapsoraino eraman duten faktoreak hauexek direla: ibilgailu pribatuaren gehiegizko erabilera desplazamendu motzetan zein eskualdeen artekoetan eta merkantzien garraioaren etengabeko hazkundera (barnekoa zein nazioartekoa). Arazo hauei aurre egiteko derrigorrezkoa da errepide bidezko trafikoa gutxitzeko neurriak hartzea.

Jaurlaritzaren proposamena? Itzelezko kostu ekonomiko (6.000 milioi eurokoa) eta ingurumenari sekulako eraso suposatuko lukeen trenbide azkar berri bat eraikitzea, hiru hiriburuak euren artean lotzeko. Obra honek ez lituzke lehen aipatutako arazoak konponduko, abiadura handia merkantzientzat errentagarria ez delako eta, geltokiak hiriburuetan bakarrik egonda, soilik euren arteko trafikoa eragingo liokeelako (hiru hiriburu arteko bidaiak %0,72 bakarrik suposatzen du). Horrela ikusita ez da harritzekoa gure bailaran, eta baita euskal gizarte osoan ere, askoz xamurragoa izatea AHTren kontra edo gaia ezagutzen ez duen jendea topatzea obra honen alde dagoena baino.

Beraz, bistan dago tren hau ez dela herritarren arazoak konpontzen laguntzeko sortu, baizik eta lobby kapitalista batzuek etekin ekonomikoa lortzeko. Eta zein da eszenatoki honetan administrazio publikoaren jokaera? Diziplina handiz, aginte katearen kate-mailak bezala, Jaurlaritzatik udaletaraino amen esan eta bakoitzak bere esparruan proiektuak behar dituen pausoak exekutatzea, edozein eztabaida edo kontraste publiko galarazten, gainera.

Ume txikien jolas parkeak

Maximo Garcia > Oñati

S arri aipatzen da egunkari eta aldizkarietan ume txikientzako parkeen kontua. Normalean gutxi daudela esateko izaten dira idatzi horiek. Gutxi daudela? Ez dut ezer esango horren gainean, baina, gutxienez, daudenak egoera onean egotea eskatuko nuke. Ez da itxura kontua, segurtasun kontua baizik, bertan ume mordoa ibiltzen baita...

Oñatik Ramon Irizar kalean dagoen parkeko txirristan duela urtebete inguru norbaitek egurra erre zuen eta zuloa geratu zen. Gaizki, baina ez orain dagoen bezain arriskutsu. Orain zuloa ez ezik, herdoildutako iltze pila bat ere badago, eta ez pentsa duela gutxi kontua denik. Nik dakidala, hiru hilabete edo badaramatzate bertan iltze horiek eta zuloak urtebete edo. Noiz arte itxaron behar dugu, umeren bat zauritu arte?

Honen aurrean, ozen eta argi entzun zen Arrasateko kaleetan herritar askoren eskaera, obrak gelditzeko eta benetako eztabaida bati ekiteko. Oraindik garaiz gabiltza. Ea noiz katearen norabidea aldatzen dugun eta, Gobernuo ordezkariak propaganda egitera eta gu konbentzitzera etorri beharrean (Aramaiora etorri ziren bezala), herritarren iritzia jasotzera etortzea lortzen dugun. Ez al da hori ba demokrazia?

SOS Udalatx, SOS ingurunea, SOS gu

Urtzi Mendizabal
(Ekosistemen biologoa)
Arrasate

Meteorologian adituek eta zientzialariek behin eta birritan esaten zuten azken urteotan Ameriketako Estatu Batuetako hegoaldean haize-rauntsien frekuentzia gero eta handiagoa zela, hala nola negutegi efektuak fenomeno honekin zerikusi handia izan zitekeela; neurriak hartu behar zirela, bereziki Missisipiko deltako dikeak konpondu eta berrindartu behar zirela. Bush presidentek, Kyotoko hitzarmenari muzin egin ondoren (bere industriak munduko negutegi gas sortzaile handienak izan arren), nahiago izan zuen bere administrazioko petrolio konpainien interesak defenditu bere herritarrenak baino, eta deblauki ukatu zuen negutegi efektua existitzen zela. Honela, New Orleansko dikeek ez zuten behar zuten babesa izan, eta Katrina haizearauntsia iristerakoan marrazoak arrain geldoa bezala irentsi zuen hiria. Bushek, hildakoak tartean zirenean ere, albisteari garran-

tzia kendu eta... hiru egun! behar izan zituen egoeraz jabetzeko.

Bushen jarrera gure herriaren etorkizuna kudeatzen duten azpiegitura erraldoien (Eibar-Gasteiz, AHT...) aldeko hainbat agintaritan errepikatzen dela dirudi. AHTk bakarrik bailara asko lur hondakindegia erraldoiz estaliko lituzke, bereziki tunelen ahotatik gertu, horren adibide gisa Angiozarren gertatzeko arriskua den bezala. Lur emankor eta baso ekosistema ugari desagertuko lirakeke trazatuaren eraikitze zuzenaren ondorioz edo eta hondakindegia hauen azpian. Aski ezaguna da ekosistema hauek, eta bereziki basoak, gure gizarteak iraun dezan oinarri gisa duten garrantzia: negutegi efektua sortzen duen dioxido karbonikoa (CO2) zurgatu eta hain beharrezkoa dugun oxigenoa ekoizten dute. Baita ere lurra ongarriritu eta emankor bihurtzen dute, eta ura metatu eta filtratzen dute, edangarri bihurtuz.

AHTren obrak Lukun (Araba) hasteaz gain, dagoeneko atera dira enkante prozesuan, eraikuntzako enpresek lanean has daitezen, Eskoria-tza-Aramaio eta Aramaio-Arrasateko zatiak, 6,5 kilometro bat eta 4 kilometroko bituneltzar egiteko asmoa izango dutelarik Euskal Herriko mendi enblematiko batean: Udalatx. Oinarritzako iraunbizi-tze funtzioei dagokienez, Udalatx baten dauden ekosistema naturalek inguruko lurraldeko airearen *birika* gisa funtzionatzen dute, eta aldi berean haizeak ekarritako hodeietako uren biltzaile gisa.

Eusko Jaurlaritzak Udalatx Interes Naturalistikodun Gune deklaraturik dauka eta Debagoieneko Lurralde Zatik Plan definitiboan (2005) Euskal Herriko Naturgune Babestuen Sarean sartzeko proposatzen

da, Aizkorri-Aratz parke naturalarekin batera. Sare horretan sartzeko maila du, zalantzarik gabe. Europako 1992ko Habitat Zuzentarauari jarraiki, Eusko Jaurlaritzak Interes Komunitarioko Leku gisa proposatu ditu antzerako ingurune-balioak dituzten beste mendi batzuk, hala nola Arno, Izarraitz, Ernio-Gazume, Jaizkibel, eta abar... eta harrigarria bada ere, Udalatx ez. Nola ulertu daiteke? Erabaki bidegabe hau irizpide naturalistikoetatik kanpo oinarritu daiteke: AHTk, hain zuzen, Udalatx laster alderik alde zulatuko duela aurreikus-tzen baita.

Ekosistema naturalen desagerpen-tasa aurretik inoiz ezagutu gabeko mailetara iristen ari da. Udalatxi eman nahi dioten kolpe latza gizarte-ko gehiengoari eman diezaio- ketenaren *iceberg* punta besterik ez da. Bushen kasuan bezala, azpiegitura erraldoien aldeko agintariek ez dute ikusten, eta badirudi ez dutela ikusiko hankak amildegian sartu arte, herriaren aire, lur eta ur oinarritzako baldintzak arrisku larrian jarriaz, eta batez ere, hauen itzulgarritasuna edo konponbidea batere bermatu gabe. Metafora bat eginez, gaixo bagoade azpiegitura hauekin azkarrago iritsi gaitzke hiriburuko medikura...baina aldi berean medikura gehiagotan joan beharko gara... aire edo ur kutsatuagatik gaixotasunak ere azkarrago hartuko ditugulako.

Beharrezkoa da guztiok erokeria hau geratzeko parte hartzea, ez bakarrik Udalatxengatik, ez bakarrik ingurunearengatik, baizik eta bereziki, guregatik.

Berri ona euskarazko telebistendako

Jon Gantxegi
Bergara

Goiena Telebistan ikusi nuen beste egunean eta baita egunkarietan ere, Hamaika taldeak eta beste telebista lokal batzuek elkarlan hitzarmena sinatu dutela. Egia esan zehaztasun handirik ez daukat gai honen inguruan, hedabide-etatik jaso dudana dakit bakarrik. Baina, hasiera batean, poztekoa da berria.

Hamaika sortzea poztekoa izan zen bezala, ze, hiriburuetan eta eskualdeetan euskarazko telebista lokalak sortzeko ezaugarri, jabe, interes... ezberdineko enpresak elkartu ziren Hamaika sortzeko (*Gara, Deia, Berria*, Euskaltel...). Eta,

orain, Hamaika eta eskualdeetako telebista lokalak (Tokiko elkarteak) gauza izan dira elkarrekin lan egiteko.

Horrek esan nahi du gure eskualdean Goiena Telebista eta Hamaika eskutik doazela eta Lurreko Tokiko Telebista Digitalean emititzeko Jaurlaritzaren lizentzia banaketa lehiaketara elkarrekin doazela. Eta gurean moduan, beste hainbat tokitan ere bai: hain justu ere, lehendik telebista lokalak zeuden tokietan.

Ez dute erronka erraza euskarazko telebista lokalek, konpetentzia handia delako eta, batez ere, gazteleraz emititzen duten talde indartsuak ditugulako gaur egun han eta hemen. Baina, erronkari aurre egiteko ezinbestekoa da elkarrekin jardutea eta hori, behintzat, irabazi dute Goienak eta Hamaikak. Bejondeiela!

San Simon eta San Juda...

Ainhoa Gallastegi (Arrasateko Ezker Abertzalearen izenean)
Arrasate

Joan zen negua eta udaberria heldu da. Gure ordua heldu da, txo! Asteazkenean, hilak 28, Arrano elkartearen izango gara. 19etatik 21etara. Lau teilatuen erdian, ilargia erdian. Zatozte, zatozte denak. Izan ere, herri zahar batek bide berritik ekingo dio urduri. Lana eginaz goaz aurrera, kate horretan denok batera. Diru zakarrak bihotzik ez du, lotuko dute gogor eta estu. Ibiltzen aspaldi ikasia dugu. Eta horrela bizitzaren gera, sortuz eta sortuz gure aukera. Ezaren gudaz baietza sortuz, gure sustraiak lurrari lotuz. Beren aukeren jabe eraikiz, eta erortzean berriro jaikiz. Gure ametsa arrazoi garbiz, egiztatuko dutenak.

Badator Korrika!

Ane Fernandez
Arrasate

Heldu, heldu Korrikari. Heldu, heldu Euskarari. Ibiliz goitik behera. Karrantzatik Iruñera!... Horixe, bada, heldu euskarari eta egin antxintxika Korrikaren alde. Asteburu honetan izango du Debagoienean eta, aurten gauez badator ere, ziur nago jende pilo batuko dela. Euskarak merezi du, Korrikak merezi du, AEK-k merezi du, urte pilo daroatza eta jendea euskalduntzen. Nik, behintzat, parte hartuko dut Arrasaten, bai antolatzen diren ekitaldietan eta baita lekukoaren atzetik arinetan.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

TANTARIK EZ ALFERRIK!

Ura ezinbestekoa zaigu. Ura, ordea, baliabide mugatua da. Horretxegatik, arduraz kontsumitu behar dugu. Izan ere, ura zaintzea, geroa bera bermatzea baita. Biek ere, ura zein geroa, gure konpromisoa eskatzen dute. Gure esku dago, beraz.

Martxoaren 22a
URAREN NAZIOARTEKO EGUNA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO



ingurumena.net

Gure esku dago
está en nuestras manos



DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA



GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

ZEURE ENPRESA**SORTU NAHI****BADUZU...ZATOZ!** Garapen agentziara
edo deitu 943 79 30 90 zenbakira.**ENPRESA EKIMEN BERRIEI LAGUNTZA**

- Informazioa eta aholkularitza
- Lokalen lagapena, Arrasaten eta Antzuolan
- Ekintzaile berrientzako ikastaroak
- Negozio-ideiak sortzeko mintegiak
- Merkatarientzako aholkularitza espezializatua
- Turismo-sektorean aholkularitza espezializatua
- Bideragarritasun planak egiteko homologatuak




Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35
Antzuola > 36 Elgeta > 37 Aramaio > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **ARRASATE**
San Antolingo proiektuaren datu batzuk gezurtatu egin dituzte > **18**



> **BERGARA**
"Hasieran zituen helburuak beteta" doa Gallastegi Udaletik > **24**



> **ARETXABALETA**
Herriko zirkulazioa arautuko duen Udal ordenantza gertu dago > **31**



> **ARAMAIO**
Arabako bertso txapelketako, bigarren final-aurrekoa, etzi > **38**

ARRASATE > IKUTIXOKO ZABORTEGIA

Ikutixo ez da leku egokia zabortegia egiteko, Diputazioaren iritziz

'Autropotamobius pallipes' bizi da, babestu beharreko karramarro mota

Alkateak dio Aldundiak ezetz badio ez dutela zabortegia Ikutixon egingo

UBANE MADERA > ARRASATE

Arrasateko Udalak abenduan onartu zuen behin-behinerako Ekutioarroan (Uribarri auzoa) zabortegi bat sortzea, Olandixoko tunelak eta beste obra batzuek sortuko dituzten hondakinak batzeko. Behin hori egin ostean, gune hura egokitu egingo luke industrialde izateko.

Proiektua jendaurrean egon da eta bederatzi alegazio izan ditu, tartean Uribarriko auzotarrak eta Ezker Batuarena.

Besteak beste, Ekutioarroaren edo Ikutixoren aberastasuna nabarmendu dute alegaziotan, aberastasun naturala, alegia.

Orain, alegazioak aztertu eta haiek erantzuteko prozesuan dago zabortegiaren proiektua.

DIPUTAZIOAK, EZETZ

Baina, bien bitartean, gai horren gaineko bi ohar iritsi dira Arrasatera. Bata Gipuzkoako Foru Aldundiarena. Diputazioko Landa Garapenerako Sailak eskatu

dio Arrasateko Udalarik "berriro azter" dezala Ikutixoko proiektuari emandako hasierako onespina, "kontuan hartuta gune hark natura aldetik interes handia duela eta Gipuzkoan karramarro autoktonoa bizi den leku bakarrenetarikoa dela".

Horrez gainera, azpimarratu du Olandixoko tunelaren proiektua aztertu zutenean, "zehaztu zen obrako hondakinak Muxibaroko zabortegira eramango" litzuketela.

JAURLARITZAREN OHARRA

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailatik hauxe ohartarazi dute: Euskal Herriko ingurumena babesteko lege orokorren arabera, "nahitaez egin behar da ingurumenaren gaineko ebaluazioa", proiektu horrek eragina daukalako 14,2 hektareako zuhaitz gune batean eta errekaen ibilbideen 1.988 metroan.

ALKATEAREN ERANTZUNA

Hori guztia dela eta, Inazio Lakuntza alkateak jakinarazi du berak ez duela Diputazioaren jakinarazpen ofizialik. Eta nabarmendu du Ikutixoren proiektua Egitamu Orokorrean jasota dagoela eta Egitamu Orokorrak baduela Foru Aldundiaren onespina. "Dena den, Diputazioko eta Jaurlaritzako ordezkariekin berba egingo dut eta haiek etzez esaten badute, guk ez dugu kontra egingo", gaineratu du Arrasateko alkateak.



ERREKASTOAK Ikutixoko errekaetok eta haien inguruko habitatek garrantzi handia dute; argazkian Ikutixoko erreka bat. u.m.

Oskar Mayor > Biologoa

"Ikutixok garrantzi handia dauka natura aldetik"

u.m. > ARRASATE

Ekutioarroaren aberastasunaren eta karramarro autoktonoaren garrantzia azpimarratu ditu, baita ere, Oskar Mayor biologo arrasatearrak.

Horren latza da karramarro autoktonoaren egoera?

Arrantzarengatik presioa handia izaten hasi zen 50eko hamarkadan. Gainera, ekonomikoki irabazi handiak ematen zituenez karramarroaren arrantzak, sartu zuten kanpoko karramarro mota bat: amerikarra. Harkonddo mota bat ekarri zuen eta ondoko karramarro autoktonoa akabatu egin zuen, leku askotan. Ondorioz, autoktonoa apurka-apurka joan da babesten ur hotzagoetan, karramarro amerikarrak bizi irauten ez duen uretan. Baina karramarro amerikarren eragin kaltegarria mugatze aldera, beste karramarro



IKER BARANDIARAN

mota bat ere sartu zuten: karramarro seinaleadun. Harkonddo transmitituegiten zuen, eta gainera karramarro autok-

tonoa akabatu egin du baita ere, eta, haren moduan, ur hotzetan bizi da. Bestalde, erreken agortzeak ere eragin handia izan du karramarro autoktonoaren desagertzean. Horregatik karramarro hori dago babestuta.

Arrasaten bada karramarro autoktonoa duen beste lekuri?

Bada beste erreka bat, baina sekretupean gordeta dago. Bestela, ezkutuan harrapatzen dituzte.

Diputazioak dio, baita ere, amuarrain autoktonoa dagoela Ikutixon...

Amuarrainaren kasuan ere kanpoko espezieak sartu zituzten; beraz, amuarrain autoktonoek badute garrantzia.

Eta orokorrean, Ikutixok garrantzi handia du natura aldetik, eta Arrasaten halako lekuen gabezia handia dugu.



KARRAMARROA *Austropotamobius pallipes* karramarroa.

I.A.

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Zapatua, 24	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Domeka, 25	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Astelehena, 26	Español	Araba etorbidea 14	943 79 18 65
Martitzena, 27	Ruiz	Maala 31	943 79 14 09
Eguaztana, 28	Etcheberria	Zarugalde 42-44	943 77 16 30
Eguena, 29	Azkoaga	Ferrerias 1	943 79 15 15
Egubakoitza, 30	Azkoaga	Iturriotz 17	943 79 79 99

BERGARA

Zapatua, 24	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Domeka, 25	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Astelehena, 26	Mozos	Iparagirre 2	943 76 12 15
Martitzena, 27	Urrutikoetxea	Oxirondo 4	943 76 11 74
Eguaztana, 28	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Eguena, 29	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Egubakoitza, 30	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63

OÑATI

Zapatua, 24	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Domeka, 25	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Astelehena, 26	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Astelehena, 27	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Eguaztana, 28	Anduaga	San Lorenzo 3	943 78 21 16
Eguena, 29	Anduaga	San Lorenzo 3	943 78 21 16
Egubakoitza, 30	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22

ARETXABALETA

Zapatua, 24	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Domeka, 25	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Astelehena, 26	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Martitzena, 27	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Eguaztana, 28	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Eguena, 29	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Egubakoitza, 30	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramaiio.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 03 54 30
Udalzaingoak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

GARRIAOK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaiio.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 71 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Oñati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltzgia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Oñati.....	943 78 36 67
Kiroldegia	
Aramaiio.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Oñati.....	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola.....	943 76 60 65
Aramaiio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Aramaiio.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

URBANOAK

ARRASATE

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obreiro, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obreiro, Galizia, Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

BERGARA

San Lorenzo/San Juandik irteerak
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorenzo (Sorraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta/Olabarretetik irteerak
07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ARAMAIOKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramaiio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	Aramaiio	Arrasate
08:30	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoeta-koendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 24

Egubakoitzetik zapatua igarriko dugu hobekuntza, batez ere, zapatu arratsaldean hasita. Temperaturek ere gora egingo dute, dezente.




Domeka, 25

Nahiko eguraldi polita aurreikusten da, zertxobait txukunduko du-eta. Alde handia igarriko dugu azkeneko eguneko.

EUSKAL HERRIAN

Gaur, egubakoitza, euri lardatsa eta mendebaldeko haizea izango ditugun arren, datoen egunotan hobetu egingo du dezente. Batez ere, ikusiko dugu hori zapatu arratsaldetik aurrera. Hala, domeka bera nahiko polita geratuko zaigu, nahiz eta garbi-garbia ez izan.



oharrak eta deialdiak

OÑATI

> EHNERen bilera gaur gauean Oñatin

Urteko batzarra egin aurretik, sindikatuko kide direnendako bilerak antolatzen ari da Gipuzkoako EHNE hainbat bailaratan. Debagoieneko bileran parte hartzeko dei egin dute. Gaur izango da, egubakoitza, Oñatiko Uribarriko eskolan (Txopekua jatetxearen ondoan), 21:30ean.

DEBAGOIENA

> Lankidetzak ikastaroak udan, Hego Amerikan eta Afrikan

Bakerako Lankidetzak Batzarrak (BLB) Hegoaldeko herrialdeetako lankidetzak ikastaroak antolatu ditu udarako: Guatemalan, Hondurasen, Marokon, Senegalen, Tunisian eta abar. Argibide gehiago 94 444 32 07 telefonoan edo www.acpp.org helbidean.

BERGARA

> 1927an jaiotakoen bazkaria

Apirilaren 14an, Lasa jatetxean. Izenematea (20 euro) Euskadiko Kutxan egin daiteke, apirilaren 10era arte.

BERGARA

> Kilometroak: herriko rock taldeekin bilera eta kantu poteoa

Bergarako Aranzadi ikastolak bilera batera dei egin nahi die egunean bertan parte hartu nahiko

luketen Bergarako

rock taldeetako ordezkariak. Bilera martxoaren 28an egingo dute, 19:30ean, San Martin plazako eraikineko hirugarren solairuan. Kantu-poteoa martxoaren 30ean izango da, 19:00etan San Martin plazan hasita. Herriko abesbatzak ere daude gonbidatuta eta jendea animatzen bada, afaria egingo dute.

ESKORIATZA

> 1957an eta 1958ko urteetako irteera

Udan, ekainaren 9an egingo dute irteera Arratiara. Interesatuak honako telefonoetara dei dezakete: 619 21 97 53 edo 943 71 50 42.

BERGARA

> 1981ean jaiotako bazkaria

Martxoaren 31n egingo dute, Agorrosin tabernan. Izenematea Euskadiko Kutxan egin daiteke, martxoaren

27ra arte. Bazkari egunean Pol-Pol tabernan elkartuko dira, 13:00etan.

ARRASATE

> 1940an jaiotako emakumeen bazkaria

Martxoaren 31n, Arrasateko batzokian. Aurretik, meza parrokian. Izenematea (20 euro) Zabaleta lurrindegian.

BERGARA

> Olio dastatze ikastaroa hurrengo astean

Blas Melgarejo eta Andres Martos olio ekoizleen eskutik, martxoaren 28an eta 29an, 19:00etatik 21:30era, kultura etxean. Ikastaroa gaztelaraz izango da. Izenematea doan da, 943 77 91 58 telefonoan.

BERGARA

> Eski irteera Aste Santuan Pol-Polen eskutik

Apirilaren 6tik 14ra bitartean Alpeetara, Val Thorens-era irteera antolatu du Pol-Polek.

TENPERATURAK

MINIMO
Eguena, 15

1 °C

MAXIMO
Eguena, 15

20 °C

ASTEKO
EURIA (l/m²)

142,9L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztana, 14	17 °C	6 °C	0 l/m ²
Eguena, 15	20 °C	1 °C	0 l/m ²
Egubakoitza, 16	16 °C	8 °C	0 l/m ²
Zapatua, 17	12 °C	3 °C	0 l/m ²
Domeka, 18	16 °C	5 °C	22,4 l/m ²
Astelehena, 19	7 °C	6 °C	52,3 l/m ²
Martitzena, 20	6 °C	2 °C	68,2 l/m ²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

ILARGIA MARTXOAN

Ilbehera 12	Ilberri 19	Ilgora 25	Ilbete 3

Argibideak 943 76 48 51 telefonoan edo pol.mendialdea@hotmail.com helbidean.

BERGARA

> Hitzez elkartaren hitzaldia egunean

Sortu berri duten Hitzez emakume base-rritarren elkartaren hitzaldia egunean, martxoaren 29an, kultura etxean, 15:30ean. Argibideak: 625 70 47 74 (Arantxa Eizagirre).

OÑATI

> Antzerkia Pake-Leku elkartean

Gaur, egubakoitza, Legazpiko erretiratuen antzerki taldearen emanaldia, 18:00etan.

DEBAGOIENA

> Arantzazura ibilaldia martxoaren 31n

Elizbarrutiak Arantzazuko Ibilaldia deitzen du. Martxoaren 31n izango da, Igo gainera eta zabaldu begirada lelopean.

BERGARA

> Bergarako Orfeoia, Donostiara

Orfeoia emanaldia zapatuan, martxoaren 24an, Mariaren Bihotza elizan, 20:00etan.

ARRASATE

> Bizigune programako autobus informatzailea

Bizigune programako autobus informatzailea eguaztanean, martxoaren 28an, Arrasateko plazan, 09:00etatik 21:00etara.

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

kale inkesta

Zer iruditzen zaizu aita izategatik 15 egun izatea?



Amaia Inza
Langilea
Arrasate



Jose Antonio Ramos
Langilea
Arrasate



Ane Martinez
Ikaslea
Irun



Laura Ortuzar
Langilea
Arrasate



Xabier Ansorregi
Langilea
Arrasate

Ondo ikusten dut. Horrela, umearekin egon eta etxera iristean andrea lagundu ahal izango du gizonak. Hala ere, luzeagoa izan edo bestelako baimenak eskaini behar-ko lituzketela uste dut.

Zalantza bat daukat: gizonak 15 egunok hartuz gero emakumezkoari deskontatu egiten dizkiote? Aitak bai behar ditu bi aste gutxienez. Eta gehiago izan badaitezke, hobe.

Ondo dago. Haurren zaintza ez da bakarrik amaren ardura. Hala, amak egun gehiago baldin baditu, aitak zergatik ez? Egundak gehiago izan beharko liriateke, umearekin egon ahal izateko.

Ondo. Ez da nahikoa, baina lehen ez zegoen ezer eta orain, behintzat, zeozer badago. Lehen ere horrela izan behar zen baina beste ohitura batzuk zeuden. Nonbaitetik hasi beharra dago.

Ondo. Haurrak izateko nahiko laguntza gutxi daude eta umeak asko gustatu behar zaizkizu bat ekartzeko. Aitarentzat 15 egun nahikoa dira, emakumearentzat lau hilabete gutxi samar.

5 galdera...

Angel Zubillaga

Mapfreko arduraduna
Aretxabaleta

1. Euskal Herrian autoen aseguruak beste inon baino garestiagoak direla jakinarazi berri du RACcek...

Ez dira garestiagoak. Desberdinak dira prezioak Euskal Herrian eta beste leku batzuetan ere bai. Batzuk garestiagoak dira eta beste batzuk merkeagoak. Baina egia da ez direla merkeenak.

2. Zergatik dago halako alde toki batzuetatik beste batzuetara?

Faktore askok eragiten dute. Hemen leku gutxian auto asko dago. Hori pasatzen da hiri handietan. Hemengo bideak, normalean, estuagoak dira eta klimatologiak ere ez du asko laguntzen, euri gehiago egiten du-eta. Guzti horri tailerrek kobratzen dutena gehitu behar zaio. Eta soldatak ez dira berdinak hemen edo Andaluzian.

3. Aseguratu gabeko auto ugari dago gure ibarretan?

Nik ez dut sumatzen, baina esaten dute auto asko dabilela aseguru barik. Hala eta guztiz ere, jakin badakigu batzuk Trafikon alta emanda egon arren aseguru barik daudela. Adibidez, baserri-ateratzen ez diren autoak, motor txikiak eta baita traktore batzuk ere.

4. Autoaren kolorea eta aseguruaren titularrak emakumea edo gizona izateak eragina al du prezioan?

Guk sekula ez dugu ezberdintasunik egin kolorearengatik. Emakume eta gizonen artean, ordea, bai. Estatistikek esaten dute emakumeek istripu gutxiago izaten dituztela eta, ondorioz, aseguruaren prezioa merkeagoa izaten da haien kasuan.

5. Zein da istripu gehien dituzten pertsonen profila?

Estatistikek esaten dute, normalean, gazteek nagusiagoak baino istripu gehiago izaten dituztela; gizonzkoek emakumezkoek baino gehiago eta baita auto txiki potentziadunek ere. Estatistikek esaten dutena, azkenean, aseguruaren prezioan igartzen da.



txaloak eta txistuak



M.B.

Gautxori parean, gidarientzako arriskua



Joan zen martxoaren 8an, euri zaparradaren ondorioz, hodi potolo bat apurtu zen Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunearen inguruan. Kalte handiak eragin zituen Aramaiorako errepidean. Zati hori arriskutsu samar dagoen arren, konpondu barik jarraitzen du.

ustek uste

Aintzane Irizar

Euskal hiztunok eta Elebide

Gaur iritsiko da gurera Korrika. Horrelakotan tentel samar jartzen naiz eta emozionatu egiten naiz. Euskal hiztun moduan errespetatzen ez nautenean, berriz, beste muturrera joaten naiz: haserre bizian jartzen naiz (edo hobe, naute). Elebide bezalako ekimenek, berriz, ez naute batere emozionatzen (haserretu gehiago egiten naute), gure eskubideen defentsarako zerbitzua denik ez dut eta sinesten; sinestu nahi nuke, baina, ezin dut. Izan ere, ez dut ezertxo ere ulertzen. Gainera, gaztelerako hiztunendako ere ba omen da. Ez nekien eskubide urraketa-rik jasaten zutenik.

Euskal hiztunon eskubi-ak bermatu behar dituztenak erakunde publikoak dira; hortaz, alde batetik ez errespetatu eta beste alde batetik horrelako zerbitzu bat jartzeak ze zentzu dauka? Bada, errespetatzen dituztela eta kitto. Guk jo behar dugu zerbitzu horretara erakunde berak gaizki jokatzen duela esatera? Bada, telefono horretara deitzen hasiko banintz... Zer arrai! Hasi egingo naiz: atzo ospitaleko larrialdietan egon nintzen eta medikuak ez zekien euskara zer zenik ere; ezta herenegun deituen erakunde publiko bateko prentsa arduradunak ere...

asteko datua

26

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak Arrasateko erreken saneamendurako obretan parte hartzen du. Aramaioko ibairako 14 milioi euro eman ditu eta Deba errekarako, berriz, 12 milioi.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



SAN ANTOLIN Auzotarren artean kezka handia eragin du Bruesek egin nahi duen proiektuak.

XABIER URTZELAI

ETXEBIZITZAK > SAN ANTOLINGO PROIEKTUA

San Antolingo etxeen gaineko zenbait datu gezurtatu egin dituzte

Bigarren batzarrean parte hartu zuen atari bateko buruak dio ez dela egia auzotarren hiru laurdenak proiektuarekin ados daudenik

UBANE MADERA > ARRASATE

Joan den asteko GOIENKARIAN argitaratutako artikulua dela-eta, San Antolingo bizilagun batzuek artikuluan esandako zenbait datu gezurtatu egin dituzte.

Lehenengo eta behin, argi utzi gura dute ez dela egia San Antolingo bizilagunen hiru laurdenak ados daudenik Brues enpresak aurkeztu duen proiektuarekin.

San Antolingo 25 atarietako buruekin egindako bigarren batzarrean, "zortzi atarietako buruek bakarrik jakinarazi zuten atariko bizilagunen iritzia. Eta zortzi atarietako bizilagunen artetik, lau atarietako gehienak kontra daude"; hala adierazi du batzarrean parte hartu zuen atari buruetako batek.

BANKETXEAREN ABALA DELA-ETA

Gezurtatu gura izan duten beste puntuetako bat da Bruesek eskaini dieten banketxearen abalaren gainekoa: "Guri ez digute eskaini 360.000 euro pasatxo, baizik eta 150.000-180.000 euro arteko abala".

Bestalde, kontatu du Bruesek oraindik ez diela proiekturik aurkeztu: "Diote hirugarren batzarrean aurkeztuko dutela; gero diote egin barik dutela; gero,

Udalera eraman behar dutela lehenengo...". Auzotarrei ez die esan, ezta ere zenbat etxebizitza eraikitzeke asmoa duten, nahiz eta "behin ihes egin zitzaizen 500 etxebizitza eraiki gura dituztela". Edozelan ere, jarrera horrek auzotar askoren mesfidantza eragin duela nabarmendu dute: "Nik esan nion ez dudala batere garbi ikusten kontua; izan ere, norbait zerbait saltzera datorrenean, eta ez badu ezkutatzeko ezer, gauzak garbi esaten ditu, eta ez haiek dabilzan moduan: kontraesaneekin eta egin behar dutena garbi esan barik".

Horrez gainera, nabarmendu dute auzotar asko ez dagoela proiektuaren alde eta kezka handia eragiten dabiltzala: "Beti ondo konpondu izan gara gure artean; orain, berriz, elkarrekiko mesfidantza dugu". Eta pertsona nagusi asko oso kezkatuta dagoela ere aipatu gura izan dute. Bestalde, Bruesek abisua egin diela ere badiote: "Abisatu ziguten proiektu hau eurek ez badute egiten, kontuz ibiltzeko, beste norbaitek egingo duela".

Argi dagoena da San Antolinen askotariko sentsibilizazioak eta kezka handia daudela hango bizilagunen artean.

Edozelan ere, Brues enpresa eraikitzaileak ez du eman proiektuaren gaineko datu zehatzik oraingoz, GOIENKARIA ahalegindu bada ere.

HAUTESKUNDEAK > ITZIAR LAMARAIN, PP-KO HAUTAGAIA

Zaharren egoitza berriaren alde egin zuen Lamarainek

Regina Otaolak, Batzar Nagusietako PPko kideak, Itziar Lamarain aurkeztu zuen alkatetzarako

UBANE MADERA > ARRASATE

Alderdi Popularrak Itziar Lamarain aurkeztu zuen Arrasateko alkatetzarako zerrendaburu moduan. Euskal Herriko eta Gipuzkoako exekutibako kide eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako kide Regina Otaolak aurkeztu zuen oraingo asteko martitzenean.

Hark aurkeztu zuen Lamarain emakume borrokalaria moduan, "egiazalea eta ez daukana maliziarik". Bestalde, nabarmendu zuen "Arrasateko beharren alde borrokatu" dela eta baita "Udaleko kontu zikinak herritarrei jakinarazi diela". Besteak beste, Iturbide egoitza herritzairen alde lan handia egin duela ere nabarmendu zuen.

"ZINTZOTASUNA"

Itziar Lamarainek (Arrasate, 1945), berriz, azpimarratu zuen ahalegindu dela "gestio zintzoa" egiten, "zintzotasuna eta argitasuna gauza guztien gainetik". Azpimarratu zuen, baita ere, Arrasaten jaiotakoa izanda, ilusio handiarekin egiten duela Arrasateren alde lan: "Beti ahalegindu naiz Arrasateren alde gauza positiboak egiten"; Kulture ipini zuen horren adibide moduan, nahiz eta, era berean, obra horrek izan duen "larregiko" kostua salatu zuen. Halaber, bestelakoan artean, Arrasateko egoitza berria behar duela esan eta datorren agintaldian hori defendatuko duela gaineratu zuen, besteak beste.



AURKEZPENA Regina Otaola eta Itziar Lamarain.

U.M.

> UDAL HAUTESKUNDEAK 2007

"Kalitateko enplegua" defendatu du ESK sindikatuak, hauteskunderi begira

Arrasateko Udalean dagoen lan egoera salatu zuen ESK-k, udal hauteskundeak badatozela aprobetxatuz: "Kanpaina hasi baino lehen gure ikuspegia azaldu gura dugu guri zuzenean eragiten digun gai bati buruz: Udalaren menpean dagoen enplegua". Besteak beste, zera salatu zuten: "Zuzenean kontratatutako lantaldearen %71raino iritsi dira langile birkontratatuak", gaineratu zuten birkontrata dutenen %76 direla emakumeak eta zeharka kontratatutako emakumeen eta gizonezkoen soldaten artean %14ko desberdintasuna (gizonen alde) dagoela, besteak beste. Iturbide egoitzako eta CESPako zenbait langilek babestu zuten prentsaurrekoa.

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK

AGR
García Ripa

ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaia eta aulkia

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

HISTORIA > ARTXIBO HISTORIKOA

Udal artxiboa indartu gura du Udalak

2004ko uholdeetan kaltetutako dokumentuak iraila-urrian ekarriko dituzte Madrildik

UBANE MADERA > ARRASATE

Laster izango ditugu bueltan orain hiru urteko uholdeetan kaltetutako udal artxiboko dokumentuak.

Arrasateko artxibo historikoaren %20 kaltetu zuen urak 2004ko abuztuan. Kalte handienak jasan zituzten dokumentuak izoztu eta Madrilerako eraman zituen Diputazioarekin elkarlanean dabilen Barbachano y Beny SA enpresak, han berritzeko. Beste batzuk, berriz, Oñatiko biltegi batean daude gordeta.

Oñatin dauden dokumentuei dagokienez, guztiak sikatu ziren 2004an egindako lanetan. Udaleko idazkari Ainhoa Guenagak esan duenez, "seguru aski dokumentu horiek Monterronera ekarriko ditugu laster".

Madrilen dauden dokumentuei dagokienez, berriz, bi urte daramatzate haiek berritzen eta aurten bukatuko dute lana. "Irailan edo urrian bueltatuko dituzte", jakinarazi du udal artxibo arduradun Marijose Axpek.

Uholdeek kaltetutako dokumentuak berritzea 300.000 euro kostako zaio Udalari. Izan ere, Madrilen egiten dabilzan lana oso delikatua da, txosten edo dokumentu asko goitik behera desmuntatu, papera berri, josi eta atzera ere muntatu egin behar izan dituztelako, besteak beste.

Hori bai, emaitza ikusgarria da (ondoko argazkiak erakusten duen moduan) eta alde horretatik, behintzat, Arrasateko artxibo historikoaren zati hori oso egoera onean geratuko da.

BERRIKUNTZAREN ERAKUSKETA

Horren harira, Udalaren asmoa da dokumentazioa Mondragoera ekarri ostean erakusketa bat egitea, herritarrek ikus dezaten zein pro-


zesu jarraitu duten dokumentuak berritzeko. Erakusketa hori egingo dute argazkiek lagunduta, baina ez dute datarik zehaztu.

GERO, MONTERRONERA

Bestalde, etorkizunera begira, Udalaren asmoa da udal artxibo historiko guztia Monterron jauregian kokatzea. Hori egiteko, baina, jauregia egokitu egin beharko dute lehenengo. Idazkariak jakinarazi duenez, proiektua egiteko dago, eta jauregian igogailua ipini egin behar dute, besteak beste. "Udaleko zerbitzu teknikoak dabilza plegua prestatzen proiektua egin ahal izateko lehiaketa deitzeko", jakinarazi du Ainhoa Guenagak.

ARTXIBO ABERATSA

Behin kokaleku egokia aurkituta, Udalaren asmoa da, baita ere, Arrasateko artxiboa indartzea, kanpora begira. "Oso artxibo aberatsa dugu. Dokumentu zaharrena 1260koa bada ere (Carta Puebla), badaude hainbat dokumentu, Udaleko aktak edo kontuak, 1500etik gaur egunera arte eten



MADRILEN Bi urte daramatzate Madrilen Arrasateko dokumentuak berreskuratzen; oso lan delikatua da.

ARRASATEKO UDALA

barik Udalaren jardueraren berri ematen dutenak", nabarmendu du artxibo arduradunak. Horrez gainera, pergamino kopuru garrantzitsua ere badute: 41 dokumentu. Narruzkoak dira guztiak, oso sarri ikusten ez diren horietakoak.

Eta bestelako dokumentazioaren artean, lehenengo euskaldunen kaparetasun frogak, auziak, epaiketak eta bestelako dokumentu solteak ditu artxiboak, esaterako, Viteri fundazioarenak.

BIDEOTEKA, FOTOTEKA ETA BESTE

Bitxikerien artean, Axpek nabarmendu du bat: "Esteban de Garibairen testamentua, testamentu hori baita San Frantzisko komentaren fundazioaren oinarri. Oso aberatsa da. Bi arrazoiengatik: Erdi Aroko dokumentu asko ditugulako eta ez dagoelako egoera fisi-

ko txarrean. Gure asmoa da dokumentu originalei kopia ateratzea, faksimileak egitea. Hala, dokumentu originalak ondo gordeta izan ditzakegu eta gainerakoak herritarrek ikus ditzaten ipini".


Horrez gainera, fototeka egiteko asmoa ere badu Udalak, baina horretarako herritarren laguntza beharko du: "Udalak baditu argazki zaharrak, baina ez asko. Asmoa da jendearekin deialdia egitea argazkiak eta argazki horien gainerako datuak utz diezazkiguten. Hondarribin hala egin zuten eta arrakasta handia izan zuen".

TOPONIMIA ETA GENEALOGIA

Hori izango da etorkizunera begira. Baina udal artxiboan burubelarri dabilza lanean orain. Izan ere, dokumentu historikoen artean, badaude batzuk *escrivanías*

esaten zaiela, direla ezkontza kontratuak, salmentak, testamentuak... Bada, horiek guztiak digitalizatzen dabilza, XVI. mendetik XIX. mendera artekoak, hain justu ere. Gero, Udaleko informatikariek egin duten programa bati esker, posible izango da pertsona baten abizena edo toki baten izenaren gaineko bilaketa egitea dokumentu horietan guztietan. Garrantzitsua da hori herriko toponimia berreskuratze edo zuhaitz genealogikoak egiteko.

Digitalizazio hori egin ahal izateko, artxiboko langileak dabilza dokumentu guztiak banan-banan irakurtzen eta dokumentuen gaineko fitzak egiten, "dagoeneko 54 kutxa bete dokumentu ditugu gertu, fitxa eta guzti. 10.000 dokumentu inguru izango dira".



LEHEN ETA ORAIN Berreskuratutako dokumentuak oso egoera onean geratu dira, argazkiak erakusten duen moduan.

ARRASATEKO UDALA

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

kapikua
OPARIAK ETA OSAGARRIAK

UGARTE

Industria
hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6
Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

HEZKUNTZA > XVII. ESKOLA-ANTZERKIAREN JARDUNALDIAK

Ikasleak antzokietara erakartzeko ekimena abian

Ikasleak antzerkiarekin zaletzeko helburua dauka ekimenak eta 2.258 ikasle batuko ditu

Ikasleek ikuskizunak egin dituzte; eta talde profesionalen lanak ere ikusiko dituzte

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Udaleko Hezkuntza Sailak, Kultura Sailaren laguntzarekin, XVII. Eskola-antzerkiaren jardunaldiak antolatu ditu.

Jardunaldi horien barruan atzo eta herenegun Arrasateko hainbat ikasle antzezlanak egin zituzten Amaia Udal Antzokian. DBHko 1. zikloko ikasleek presatutako sei antzezlan egin zituzten LHko 4., 5. eta 6. mailako ikasleendako: *Egia bazen, sar dadila kalabazan*; *Maritxu nora zoaz*; *Asteburu aztoratua*; *Apustuak... nondik*; *Amona honekin...kontuz*; eta *Kale gorrian*.

ANTZOKIA BARRUTIK EZAGUTU
Hurrengo ekimena izango da Amaia Udal Antzokiko barruko instalazioak bisitatu eta ikustea. Horretarako, antzokiko langileek bisita gidatuak egingo dituz-



BRENGO MUSIKARIAK Paraiso taldearen ikuskizuna maiatzaren 9an izango da.

GOIENKARIA

te apirilaren 25ean, 26an eta 27an. LMHko 6. mailako ikasleak joango dira bisita horiek egitera.

Azken urteotako eskema jarraituko dute, eta aurten 2.258 ikasle batuko dituzte.

Bukatzeko, apiriletik maiatzera bitartean lau antzerki talde profesional eramango dituzte Amaia Udal Antzokira: apirilaren 17an, Dar Dar taldearen *Andersen, ahatetxo itsusia*; 24an,

Pikor taldearen *Jokoaut*; maiatzaren 2an, Gorakada taldearen *Titirikontu-kontari*; eta maiatzaren 9an, Paraiso taldearen *Brengo musikariak* ikuskizuna, hain zuzen ere.

LIBURUAK

Liburu eta disko azoka jarri dute Biterin

Gaurtik apirilaren 1era bitartean liburu eta diskoen 17 erakusmahai

I.B. > ARRASATE

Aurtengoa hirugarren aldia da jarraian Arrasatera liburu eta disko azoka ekartzen dutena. Euskadiko Liburu Azoken batzordeak antolatu du ekimen hori, eta gaurtik, egubakoitza, apirilaren 1era bitartean egingo dute Biteri plazan.

Azoka egunero zabalik egongo da 11:00etatik 14:00etara, eta 15:00etatik 21:00etara bitartean.

AURTEN 17 ERAKUSMAHAI

Aurreko 2 urtetan azoka Seber Altuben egin dute, baina aurten Biterira joan dira. Aurten iaz baino bizpahiru erakusmahai gehiago egongo dira: Bilboko Plaza Nueva komiki denda, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Munduko liburu txikiak.

Azokan liburuak, diskoak, jokoak eta DVDak egongo dira salgai, ume zein helduendako. Horien artean nobedadeak eta aukerakoak izango dituzte eskuragarri. Nobedadeei dagokionez, horiek salneurria %10eko beharapena izango dute.

MUSIKA > BLUES GAUAK 3.60 ARETOAN

Marcus Malonen bluesa 3.60 aretora

Bihar, zapatua, Marcus Malone Bandek kontzertua egingo du 3.60 aretoan, 23:00etan

I.B. > ARRASATE

Marcus Malone zuzenean ikustea ikuskizun hutsa da. Hala diote bluesaren Europako eta AEBetako hainbat adituk. Bestalde, bluesaren puristek ez dute beti Malone oso begi onez ikusi. Horren arrazoia da Malonek bluesaz gain, rocketik, funkytik eta beste doinu batzuetatik ere edate duela; eta hala erakusten du zuzenekoetan.


Marcus Malone Detroiten (Michigan) jaio zen, eta gitarra jotzaile onaren ospea hartu zuen AEBetan. Horren ostean, Ingalaterrara jo zuen eta han arrakasta erdiestea lortu zuen. Are gehiago, European ezaguna egiten hasi

zen eta jaialdi garrantzitsuetan esku hartu zuen: Colne, Maryport, Stanley, Warrington, Warners eta Darlington (Ingalaterra), Harlebeke (Belgika), Bospop (Holanda), Valdagno (Italia) eta beste batzuk.

HENDRIX, RAY VAUGHAN...

Maisua da Malone gitarra jotzen eta oso ondo abesten du; zuzeneko itzela dauka.

Stevie Ray Vaughan, Jimi Hendrix, Allman Brothers eta Bad Company taldeen zaleek izugarri gozatuko dute Malonen zuzeneko biziarekin. Berak idatzitako kantuek joko dituzte baka-rrik, eta jaia izango da.



GITARRA IKUSKIZUNA Gitarra jotzeko era oso berezia dauka Malonek taula gainean.

BIZZ EKOIZPENAK



Amagara

Erdiko kalea 54 behea 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

Helburua:
Ondo
sentitzea,
Udaberria
iritsi da



• **Gorputz-tratamenduak:**

zelulitisaren aurka, tinkatzailea eta abar.

• **Aurpegi-tratamenduak:**

hidratazioa, nutrizioa, adinaren aurka eta abar.

• **Mediku-terapiak:**

Aurpegi eta gorputz-mesoterapia, betetzeak,
Vistabel (Botox) eta abar.

Arruabarrena doktorea.

Elkargokide-zenbakia: 6.073

• **Dietetika eta nutrizioa**

• **Solariuma**

RPS 297/05

Deitu eta azken promozioen
berri emango dizugu



iKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

BAINUAK: ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR 

MENDIKO BIZIKLETA

Atzeratu
egin dute
bizikleta
irteera

Besaide MTBkoak datorren astean joango dira Aiako Harri inguruetara

X.U. > ARRASATE

Besaideko mendiko bizikleta sailak oraingo zapatuak zeukan irteera antolatuta, Aiako Harriak eta Bianditz inguruetara, baina irteera atzeratzea erabaki dute. Biharko eguraldi hobe iragarri badute ere, Besaidekoek astelehenean bertan hartu zuten erabakia, Bianditz 800 metrora dagoen mendia izanda, asteburuan oraindik ere paraje horiek elurtuta egongo direlako, edo lokatza handiarekin, bestela.

Hala, datorren astean paraje horiek bizikletan ibiltzeko hobeto egongo direla aurreikusita, hilaren 24rako atzeratu dute irteera.

ARTIKUTZAKO MUGETAN

Gipuzkoako paraje ederrenetako baten mugetan egingo dute Besaidekoek irteera, Izu eta Bianditz batzen dituen mendilerroa zehakatuko dute-eta, Artikutzako muga naturala, hain zuzen ere. 25 kilometroko ibilbidea izango dela aurreikusten dute, maldatsua.



Jaime Epelde.



EZKIBEL Barakaldoren kontrako partiduan, Arrasateko jokalaria atzelariekin lehian.

JOSETXO ARANTZABAL

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Ezusterik ez badago,
Ford Mugarrik ondo
eutsiko dio kategoriari

Lea Corazonistas mendean hartuta, Ford Mugarrik sailkapenaren erdian jarraitzen du, eta lasaiago hartu ditzake Zarautzen eta Basauriren kontrako azken norgehiagokak

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Bernardo Balerdiren mutilek helburu bikoitza erdietsi zuten zapatuan, Gasteizen. Batetik, Lea Corazonistas mendean hartuta (27-28) Euskadiko Txapelketan jarraitzeko urrats erabakigarria eman dute. Bestetik, baina, talde gasteiztarra mendean hartzea

ez zen sailkapenera begira egin beharreko zerbait bakarrik; hori baino gehiago zegoen jokoan.

HIRU URTE ATZERA

Orain dela hiru denboraldi, talde horren gidatu zuen orduko Arrasateko taldeko entrenatzaile Pitxi Herrero azken jardunaldia, eta gainera, igoera faseko azken partidua izan zen. Ordurako, Corazonistasek eskuan zuen igoera txartela, eta ezer jokoan izan barik, Arrasatera zeukatena ematera etorri ziren.

Arrasatek galdu egin zuen norgehiagoka hura, eta taldea ez zen Euskadiko Txapelketara igo. Hala, hiru denboraldi igarota ere Ford Mugarrikoek ahaztu barik zeukaten hori, eta zapatuan gogotsu eskaini zioten garaipena ordu-

ko entrenatzaile Herreroi; hiru urte eta gero, kontuak eginda geratu dira.

ZIGORRAREN ERABAKIAREN ZAIN

Orain momentuan Ford Mugarri zortzigarrena da sailkapenean, 23 puntu erdietsita. Eta, matematikak erakusten dute bi partiduren faltan Arrasatek ia-ia eutsi diola kategoriari. Sei talde daude Arrasateren atzetik. Gertatzen dena da, Federazioak Escolapios taldea behar baino jokalaria gehiagorekin jokatzeko harrapatu duela (29), eta talde horri jarritako zigorrak gainontzeko taldeetan eragin dezakeela.

Erabaki horren zain, Ford Mugarrik azkeneko postuan dagoen Zarautzen kontra jokatu du. Iturripen talde hori ez zen kontrario izan (40-22)

> ZIKLISMOA

Velascok kolpe ederra hartuta amaitu zuen Paris-Niza lasterketa

Pro Tourrean izandako estreinaldian denetarik gertatu zaio Euskalteko ziklistari. Lehenengo etapan Arrasatekoa lan bikaina eginda lau laguneko ihesaldian sartu zen; tropelak helmugatit hiru kilometrorra harrapatu zituzten. Bosgarren etapan, baina, Velascok bertan behera utzi behar izan zuen lasterketa, bizikletatik erori eta buruan kolpea hartu eta gero. 18 minutuko atzerapenarekin iritsi zen-eta helmugara.

> ERRUGBIA

Asteburuan hasiko du Arrasatek Euskadiko Kopa Txapelketa

Liga Txapelketa aspaldi amaituta, Arrasatek Gaztedi talde gasteiztarren kontra hasiko dute asteburuan Kopa Txapelketa. 15 talde lehiatuko dira txapelketa horretan, bi multzotan banatuta. Hala, taldetik esan digute jokalariek gazteendako txapelketa ezin aproposagoa dela, poliki-poliki senior mailara egokitzeko.

Bestetik, Arrasateko gazte mailako taldea Santanderren izango da asteburuan, hiruko torneoa parte hartzen.

> URPEKARITZA

Apirilaren 5ean amaituko da izena emateko epea

AUKEAk urpekaritza ikastaroa antolatu du, Musakolako kiroldegian egiteko. Bost klase teoriko izango dituzte, eta lehenengo praktikak igerilekuan egin eta gero, Getarian egingo dituzte beste lau saio, itsaso zabalean. Jakin ikastaro horrekin nazioarteko urpekaritza titulua eskuratzen dela, munduko edozein bazterretan urpekaritza egiteko beharrezkoa dena. Informazio gehiago www.ksub.net-en edo 627 930 330 telefono zenbakian.

> FUTBOLA

Mondrako neskek Luberriren zelaietan jokatu dute

Asteburuan Donostiara egin beharko dute bidaiia igoera fasean murgilduta dauden neskek. Sailkapenean laugarren lekuan (7 puntu), azkenareko postuan dagoen taldea izango dute kontrario. Mondrak 1-0 irabazi zion joan den astean Vasconiari, baina Arrasateko neskek oraingo asteburuan ere irabazi egin beharko dute aurreko hiru taldeek ihes ez egiteko. Momentuz, Bergarako BTLs dabil txapelketan agintzen (16 puntu).

futbitoia zaldibar

EMAITZAK

Lasagabaster-Citrus	5-2
HLB 108-McAwen Dauen	10-6
Abokajarro-Iturriotz Tab	0-4
Omu Dribling-Betrayer	5-1
THC-AT Celaya	5-7
Cipris Taberna-Man.Pippol	5-1
Saukelu Abian-Billy & The Cowboys	11-4
Iluntz-Iritz Taberna	2-9
Equus-Dublin Irish Pub	11-4

PARTIDUAK

Martxoak 24, zapatua	Epaileak
09:00 Abokajarro-AT Celaya	Cipris
10:00 Cipris-Iritz Taberna	AT Celaya
11:00 THC-Billy & The Cowb.	Iritz Taberna
12:00 HLB 108-Betrayer	Billy & The.
15:00 Dublin Irish-Saukelu Abian	Iluntz
17:00 Equus-Iluntz	Dublin Irish Pub

Martxoak 25, domeka	Epaileak
12:00 Lasagabaster-McAwen Da.	Iturriotz
13:00 Citrus-Iturriotz	MC Awen Dauen

SAILKAPENA

	P	J
1. Saukelu Abian	37	14
2. AT Celaya	35	14
3. Dribling	34	14
4. Betrayer	26	13
5. Cipris	26	14
6. Iluntz	26	14
7. Iritz Taberna	24	14
8. HLB 108	24	14
9. Lasagabaster	23	14
10. Abokajarro	20	14
11. Manhattan Pippol	17	14
12. Iturriotz Taberna	16	14
13. McAwen Dauen	14	14
14. Dublin Irish Pub	12	13
15. Billy & The Cowboys	10	14
16. Equus	9	14
17. Citrus	6	14
18. THC	4	14

Hiru jardunaldi baino ez dira geratzen lehenengo fasea amaitzeko

Beste modu batera esanda, lehenengo fasea amaitu aurretik bederatzita puntu daude jokoan. Hala, hiru jardunaldi horiek erabakigarriak izango dira sailkapenaren erdialdean dauden taldeendako, hor egongo da-eta aurrera edo atzera egiteko aukera. Horrenbestez, orain da estutzeko momentua!

Oraingo asteburuari dagokionez, taldeek hamabosgarren jardunaldia jokatu dute; hala, Omu Dribling eta Manhattan Pippol taldeen arteko norgehiagoka atzeratu egin dute, horrela eskatu dute-eta Omu Driblingekoek. Kontuan hartu, baita ere, oraindik Kopako Txapelketako finalerdiak jokatzeko daudela, eta antolatzaileek Aste Santu ostean helduko diote txapelketa horri. Hala, jardunaldi hori apirilaren 21ean jokatzeko erabaki dute.

Txapelketako goleatzaileei dagokionez, Betrayer taldeko Frutos (26 gol), Saukelu Abian taldeko Egoitz (25 gol), eta McAwen Dauen taldeko Julen (21 gol) dira, oraingoz, goleatzaile nagusienak. Oraindik, baina, txapelketa luzea geratzen da.

arrasatearrak kanpoan

Eneko Iturbe > Aplikazio Ingeniaria
Ukrainiako Kremanchu hirian izan da

"Gauza gutxi dituzten arren, guztia eskaintzen dizute"

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Lanbidea dela-eta, hilabete asko etxetik urrun pasatzen ditu Eneko Iturbe arrasatearrak. Ukrainiako Kremanchu hirian lau aste egin ondoren, ibarrera itzuli zen domekan. Bidaiatzea gustuko duela eta beraz, kanpora joatea atsegin duela esan du.

Ez du inolako arazorik izan Ukrainian. Hangoak "oso eskuzabalak" direla eta beti laguntzeko prest daudela gogorazi du. "Eurek gauza gutxi dituzten arren, guztia eskaintzen dute", adierazi du.

Iritsi zenean autoekin harrituta geratu zen, zahar-zaharrak

direlako. "Errepideetan dabil-tzan gehienak 50 urtetik gora dituzte", aipatu du.

Alde ederra ikusi du Kremanchu eta Arrasate artean. Janarietan, adibidez, gatz larregi erabiltzen dutela uste du. Edan ere ibarrean baino askoz gehiago egiten dutela dio. "Gosarian ikus ditza-

"Han dauden auto zaharrek harritu ninduten, errepideetan dabil-tzan gehienek 50 urtetik gora dituzte"



Eneko Iturbe, beste bidaia batean.

kezu ukrainiarrak vodka edaten". Horretaz gain, gazteek kaltetik garagardo botila batekin ibiltzeko ohitura dutela azaldu du Iturbek. Ez hori bakarrik. Parranda bila, tabernara joaten dira, gurean bezala.

KALEETAN ARGIRIK EZ

Kale nagusietan izan ezik, gaintzekoetan argirik ez dagoela eta espaloiak apurtuta daudela gogorarazi du. Horrekin guztiarekin batera. Nagusien eta langileen arteko soldatetan diferentzia "ikaragarria" dela esan du.

Askotan ibili da atzerrian Iturbe. Sorluzen egiten du lan, aplikazio ingeniari moduan. Lan horrek kanpora ateratzea exijitzen du. Ekaina aldera, Txinara joateko asmoa du, Changchunera.

Mundua ezagutzen gustura badabil ere, etxekoak eta lagunak faltan botatzen dituela azpimarratu du, gehienbat, asteburuetan, "orduantxe dugulako ordu libre gehien".

bere ustez



Ander Etxeberria

Aspaldiko argazkiak noizbait

Hogei urte dela, herriko postalen bildumatxo bat ateratu zuen udalak. Eskautak ibili ginen otsailan eta martxoan banaketa lanetan. Airetik ateratako argazkiak ziren gehienak, bakarren bat zuri beltzekoa zen (hirurogeiko hamarkadako) eta besteak kolorekoak (berrienak 1986koak).

Ordutik hona liburu batek behintzat jaso ditu gaur egungo Arrasateko zenbait irudi. Antzinako estanpei dagokienean, ordea, ez dago nora jo. Edo bai. Leku askotara zuzen-

"Garaia da, gurean ere proiektuari heltzeko hogei urte gehiago itxaron gabe"

du beharra dago argazki gutxi batzuk ikusteko: herriko elkarte gastronomikoetara, tabernetara, enpresetara, dendetara, GOIENKARIAra, egutegietara, entziklopedietara, Udaleko weberra....

Fotografia zaharrak bereziak izaten dira. Batzuetan memorian galduta dauzkagun irudiak gogora ekartzen dizkigute, bestean ezagutu ere ez ditugun txokoekin harritzen gara. Balio dute herria nola aldatzen den konturatzeko, kale batzuen izen eta trazatua ulertzeko eta, esan ohi denez, lehengoa ezagututa etorkizunari hobeto heltzeko.

Hainbat herritan batu dituzte argazkiak eta egin dituzte liburuak. Garaia da, gurean ere proiektuari heltzeko hogei urte gehiago itxaron gabe.

hau be badaukogu

Mesedeetako Andra Mari eta Arizmendiko abesbatzek Uarkapen parte hartu zuten

Pasa den asteburuan Debagoieneko Eskola Arteko Abesbatzen Topaketa izan zen Uarkape pilotalekuan. Arizmendi Ikastolako lau abesbatzek hartu zuten parte topaketan. 189 ikaslek kanta ezagunak abestu zituzten, hala nola, Pirritx eta Porrotxen *Maite Zaitut* eta Betizuren *Lokaleko lehiotik*. Mesedeetako Andra Mari ikastetxea ere topaketan izan zen, 45 lagunekin. Abesti herrikoiak aukeratu zituzten azken horiek. Argazkian, Arizmendiko San Viator Txiki guneko LMHko 4., 5. eta 6. mailakoak ikus daitezke, emanaldi erdian. Debagoieneko abesbatzek Uarkape frontoia bete egin zuten.



ARIZMENDI IKASTOLA

Monte taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua

Gubi

ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
Tel.: 943 79 12 74

Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebendun hizkiak

Victoriano Gallastegi > Bergarako alkatea

"Hasieran nituen helburuak beteta edo martxan jarrita, behintzat, noa Udaletik"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Victoriano Gallastegi (Bergara, 1940) izan da Bergarako alkatea azken 16 urtetan. Aurretik, beste zortzi urte egin zituen Udalean: 1983tik 1987ra alkateordea izan zen Imanol Bolinaga alkate zela eta 1987tik 1991ra zinegotzi, Jose Luis Elkoro alkate zela. Maiatzean erretiroa hartuko du.

Nola pasatu zaizkizu alkate egondako 16 urteak?

Urte asko dira baina orain ez zait iruditzen hain luzeak izan direnik. Lan batzuk errepikatzen dira, baina alkate izatea ez da beti bezalako lana, Udalean egunero aldatzen dira gauzak.

Zein izan da momenturik onena, zuretako?

Urtero daude gauza onak eta txarrak. Proiektu batzuk gauzatzeko denbora asko pasatzen da eta poza hartzen da gauzatu direla ikustean. Adibidez, Errege Seminarioko proiektua.


Eta txarrena?

Egoera politikoa. Askotan desadostasun asko izan ditugu. Bakegintza da denondako helbururik garrantzitsua, baina geure eztabaidetan adostasunik ez lortzea kezagarria da.

Nola baloratzen duzu Udaleko beste ordezkari eta organoek egindako lana?

Udaleko burua alkatea da baina niretako oso garrantzitsua da eztabaidak komisioetan prestatzea eta lantzea. Komisio denetan daude alderdi guztietako ordezkariak eta hor eztabaidatu behar da gaia ondo. Komisio batek egiten duen proposamena, bai gobernurako bai osoko bilkurarako, onartu egiten da, denak. Gai batzuk badaude gobernuan eztabaidatu direnak, baina %90etik gora, komisioetatik etorri dira landuta, eta horrek esan nahi du ondo egin dutela lana.

Zenbat eta zertan aldatu da herria 16 urtetan?



Udaletxean duen bulegoan erantzun ditu galderak Victoriano Gallastegi alkateak.

O.E.

Hirigintza aldetik asko eta onera aldatu dela uste dut, ordenamendu mailan ondo egin dugu lana. Azpiegitura mailan gaizki gaude; autobidea heltzen da orain herriraino, baina hor oraindik badago zeregina.

Bestalde, ikuspegia aldatu egin da orain eta herri moduan pentsatu barik, ibar moduan pentsatzen hasi gara denok. Batetik, gehiago indartuko dira herriko zerbitzuak eta bestetik, badaude beste zerbitzu batzuk garestiegiak direnak bakoitzak egitea. Adibidez, kirol instalazioak: herri bakoitzak ez du zertan izan behar kirol instalazio onenak. Dibertsifikatu egin behar dira zerbitzuak eta ohitu behar gara herri batetik bestera mugitzen. Baina Debagoienak falta ditu.

"Herriarrek lehen baino gehiago exijitzen dute, baina ez dute neurri berean erantzuten"

"Kalean dauden eskaerak eta premiak aztertu eta horiei eman diet lehentasuna beti"

"Hurrengo alkateari aholkatzen diot lanerako gogoarekin etortzeko Udalera"

Zein zerbitzu?

Inguru hau industria ingurua da; hemen ez dago petroliorik ez beste ezer, lana dago eta gizakiak du etorkizuna. Horregatik, lur industrialia prestatu dugu industriak bertan gelditzeko. Momentu honetan 500.000 metro koadro inguru ditugu prestatuta eta zerbitzuak jarri behar ditugu, bertakoa bertan gelditzeko edo saltzeko ahalik eta gehien.

Herriarren kopurua jaitsi egin da azken urteotan. Zertan aldatu dira herriarrek?

Gero eta gehiago exijitzen du jendeak. Hori ez da txarra, hausnarketa gehiago egitea behar duen horrek. Baina exijitu eta erantzun neurri berean egin behar dira eta bigarren horretan eskas dabil herriarra.

Distantzia handia dago herriarren eta Udalaren artean?

Harreman onak izan ditut beti herriarrek, bulegoko atea beti egon da zabalik. Politikoki denok ez dugu berdin pentsatzen, baina eztabaida horiek ere aberasgarriak dira.

Zenbat aldiz jarri da alderdian nahia herriarrenaren gainetik?

Talde politiko baten barruan gaude gu eta talde politiko horren asmoa herriarekiko, programan agertzen da. Ez dira eztabaida handirik egoten. Nik garrantzia eman diot kaleak eskatzen due-

nari, kalean dauden premiei. Horiek aztertu eta lehentasuna eman diet beti. Politikoki, hartu dugu agian erabaki bat edo beste, baina gutxitan egin dugu hori.

Bi hilabete eskas gelditzen dira maiatzeko hauteskundeetarako. Etxeko lanak eginda zoaz?

Udaleko lanak ez dira inoiz bukatzen, baina nik nituen helburuak martxan gelditzen dira, gehienak, behintzat.

Maiatza bitartean jakingo dugu zer gertatuko den Irargi jauregiarekin, odol emaleen lokal berria zein izango den edo emagin zerbitzua guztiz finkatuko den, adibidez?

Orain ez, behintzat. Planak finkatuta ditugu baina erabakiak hartzeke daude oraindik.

Zer gelditzen zaio egiteko hurrengo alkateari?

Museoa, Arrizuriagan egingo duten liburutegia eta prest dauden industria gunetara ze industria ekarri erabakitzea adibidez.

Eta bukatzeko?

Datorren alkatea lanerako gogoarekin etor dadila eta bide batez, eskerrak eman nigan konfiantza izan dutenei.

Herriko obrak jarraitzen ikusiko zaitugu erretiratzean?

Bai, baina denboraldi *sabati-ko* bat hartuko dut lehenengo. Gero kalean izango naiz.

BERGARA

Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.:943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es



BATZORDEA Zuzendaritza batzorde berriko kideak.

SAN JOXEPE

ERRETIRATUAK > KIDE BERRIAK ZUZENDARITZAN

San Joxepeko zuzendaritza batzordea aldatu egin dute

Zuzendaritza batzordeko hamar lagunez gain, beste sei boluntario ari dira lanean eurekin

OIHANA ELORTZA > BERGARA

San Joxepe erretiratuen elkar-teak zuzendaritza batzorde berria aukeratu du urteko batzar orokorrean. Lehen zeudenetatik hiruk baja hartu dute eta beste hiru kide sartu dira. Horrela, hauek osatzen dute egun San Joxepeko zuzendaritza batzordea: Jose Garitano, Mari Eugenia Silanes, Rosa Larrañaga, Antolin Martxena, Luis Larrañaga, Irene Gabilondo, Karlos Arrondo, Alejandro Arroyo, Mari Karmen Otaola eta Jose Ignacio Beristain. Lehendakaria Alejandro Arroyo da.

Urte hasieran egin zuten ezohiko batzarrean onartu zuten moduan, hiru urterako

kargua hartu dute zuzendaritzako kideok. Jenderik aurkeztu ezean kideak zerrendari tira eginez aukeratzea ere onartu zuten, baina ez da horren beharrik egon, kide berriak boluntario aurkeztu dira-eta.

GAZTEEKIN ELKARLANEAN

Urteko batzar orokorrean, aurtengo egitarau orokorra eta joan den urteko balantzea ere onartu zituzten. 2006an, 3.833 euroko irabaziak izan zituen San Joxepe elkar-teak.

Bestalde, Jarduneko gazteekin, Txapa Irratiarekin eta etorkinekin elkarlanean jarraituko duela aurreratu du zuzendaritza batzordeak.

ZERBITZUAK > UDALETXEAN AURKEZTU BEHAR DU EROSKIK TXOSTEN BAT

Eroski berriko lanak geldi daude, lur kutsatuen inguruko txostena falta dutelako

Kale bereko hainbat enpresak eskatu dute aparkalekuan tokia utzi behar dutela hara doazen kamioiek buelta emateko



GELDI Eroski berriko obrak geldi daude.

O.E.

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Eroski berriko lanak geldi daude azken asteotan, txosten bat aurkeztu ez dutelako. "Lur kutsatuen inguruko txostena falta zaie aurkezteko, ez da besterik. Lanak egiteko baimenak badituzte, eta hori aurkeztu bezain pronto jarraituko dituzte obrak", dio Josean Etxeberriak, Hirigintzako zinegotziak. Eroskik esan du horrelako geldiunea normala dela obra baten, administrazio gestio bat egitea falta dela baka-

rrik egiteko eta prozesuak bere bidea jarraituko duela. Bestalde, Eroski berria egongo den Leizeaga kaleko hainbat enpresak dio-

te supermerkatuak tokia utzi behar duela euren gara doazen kamioiek buelta emateko, eta birbilgunea egingo dute ziurrenik.

> HAUTESKUNDEAK

ESK sindikatuak jaso ditu Candy Hoover-eko boto gehienak

ESK sindikatuak lortu ditu Candy Hoover enpresako boto gehienak. Bigarren bozkatuena ELA izan da, LAB hirugarrena, UGT laugarrena eta CCOO bosgarrena. Horrela, ESK-k eta ELA-ak launa ordezkari dituzte, LABek hiru, UGTk bat eta CCOOk beste bat. Hain zuzen, martxo hasieran egin zituzten hauteskundeak.

> HITZALDIA

Hizkuntzak zelan ikasi eztabaidatzeko hitzaldia egingo dute

Hizkuntzak zelan ikasi landuko dute hitzaldian, eta gurasoei dago zuzenduta. Hitzaldiaren abiapuntua izango da ea zer transmititzen eta erakusten duten gurasoek umeekin etengabe duten komunikazioan. Hitzaldia Udaleko Euskara batzordeak antolatu du eta hilaren 28an izango da kultura etxean, 19:00etan.

> IKASTAROA

Makina-erreminta operadoreak izateko ikastaroa antolatu dute

Makina-erreminta operadoreak prestatzeko ikastaroa antolatu dute langabeendako. Bergarako Udaleko enplegu zerbitzua, INEM eta Europako Gizarte Funtseko dirulaguntzarekin antolatu dute. Miguel Altuna institutuan eman- goko dute ikastaroa martxoaren 26tik uztailearen 9a arte, eta uda- letxean eman behar da izena.

EDEL
TAPIZ DENDA

Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

Osasuna + edertasuna + ongizatea =
ELITium

Tratamendu pertsonalizatueta onena

Tratamendu erosoak eta ez erasokorrak:

- Estresaren aurkakoa
- Likidoen erretentzioa
- Zelulitisaren aurkakoa
- Zirkulazio arazoak
- Sendotzailea
- Drainatzailea
- Izter lodiak

Estetika zentroa
Igaro

Zure gorputza udarako presta ezazu!

Barrenkale, 35 • Tel.: 943 76 17 27 • 20570 BERGARA

Styloak
Ilustrazioa

Osintxu 13, behea
943 77 70 57

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46 BERGARA 943 76 45 53
Zubillaga 10 OÑATI 943 78 24 13

JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93



PAZKOAK Bergarako jaiak maiatzaren 25ean hasiko dira. Koadrilen Eguna astelehenean ospatuko da.

GOIENKARIA

MENDEKOSTEAK > KARTEL LEHIAKETA

Pazkoetarako kartel lehiaketa deitu du kultura zerbitzuak

Lanak entregatzeko epea apirilaren 28ra arte dago zabalik; 600 euro irabazlearentzat

AMAIA ZALDUA > BERGARA

Bergaran bizi edo bertan errolatuta dagoen edozein pertsonak du Pazkoetako kartel lehiaketan parte hartzeko aukera.

Lehiatzeko bete beharreko baldintzen artean kartelen neurria dago: 40x60 zentimetrokoak eta formatu bertikalekoak izan behar dute.

Kartelak Din A3 neurriko paperean inprimatuta eta kartoizko oinarri batean aurkeztuko dira eta informatika euskarrian ere bai, hau da, CDan edo disketean.

Margoen teknika libre da, baina *Pentekoste Jaiak Bergara 2007* testua derrigorrez idatzi behar da.

Irabazleak 600 euro eskuratuko ditu, eta aurkeztutako kartel guztiekin erakusketa bat egin dezake Udalak.

Kartelak Bergarako Kultura Etxean aurkeztuko dira apirilaren 28ko 14:00ak baino lehen.

Epaia jakitera ematen den egunean jakinaraziko da epaimahaia nortzuk osatu duten, eta euren erabakiak ez du atzera bueltarik izango.

KOADRILA EGUNA ANTOLATZEN

Bestalde, Pazkoak iristeko bi hilabete falta dira, eta horregatik, datorren egunean, hilak 29, jaietako Koadrilen Eguna antolatzeko bilera egingo dute kultura etxean. Bilera arratsaldeko 19:00etan hasiko da eta deialdia luzaturik dago Bergarako herritar guztiei, baina baita ere koadrilei, euren egunaz egingo da eta berba.

Pazkoetako astelehenean, maiatzaren 28an antolatu daitekeenaren inguruan (ekitaldiak, kontzertuak, eta abar) proposamenak dituzten denei eskatzen zaie pentsatutako ekitaldi horien gaineko informazioa eta ideiak norberak eramatea.

AISIALDIA > IKASTAROAK

Sabel dantza eta sukaldaritza ikastaroak nahi dituenaren eskura

Ikastaro horien bitartez dantza egiten edo sukaldean aritzen ikasteko aukera luzatuko du Udalak

A.Z. > BERGARA

Kultura zerbitzuak antolatu dituen bi ikastaro horiek apirilean hasi eta ekainean bukatuko dira. Baterako zein besterako izena emateko epea martxoaren 30era arte dago zabalik. Plaza mugatuak dira eta partaide kopurua gaintzen bada zozketa egingo da (bergararrek lehentasuna daukate). Interesatuak kultur etxera, 943 77 91 60 telefono zenbakira jo dezakete izena emateko.

SABEL DANTZA IKASTAROA

Sabel dantzaren gaineko ikastaroak hobekuntza mailakoak izango dira, hau da, hasiera maila eginda daukatenek soilik eman dezakete izena ikastaro horretarako. Apirilaren 20an (egubakoitza) hasiko da ikastaroa Agorrosinen eta egubakoitzero izango da arratsaldeko 18:30etik 20:30era. Irakaslea Jaione Albeniz izango da.

SUKALDARITZA IKASTAROA

Sukaldaritza begetariano eta nutrizioa ikasteko aukera izango da ikastaro hauei esker. Ikastaroa inoiz egin ez dutenak dako zuzenduta dago. Apirilaren 18an (eguztana) hasiko da ikastaroa arratsaldeko 18:30etik 20:30era. Mireia Alberdi eta Jesús Mari Kalboetxeaga bergararrek emango dituzte klaseak.

> ZINEMA

Asier Altunaren 'Sarean' film laburra domekan Agorrosinen, film laburren zirkuituaren barruan

Topagunearen eta Jardunen eskutik euskarazko film laburren zirkuitua iritsiko da domekan Bergarara. Emanaldia Agorrosinen izango da 19:00etan eta ondoko film laburrak ikusteko aukera izango da: *Bilintx* (Jon Andueza), *Loturak* (Ane Muñoz), *Midori* (Koldo Almandoz), *Osaba Jaxinto* (Iñaki Beretxe), *Sarean* (Asier Altuna *Kixi*) eta *Xoxoak beleari ipurbeltz* (Oskar Galan). Euskarazko produkzioa ezagutzera ematea da helburuetako bat.



Sarean, Kixi-ren azken lana.

Aritzeta emanaldia domekan Elosun


Aritzeta abesbatzak kontzertua eskainiko du domeka eguerdian Elosun. *Ituringo arotza* (Tomas Garbizu), *Kai-ku* (Lesbordes), *Izarapean* (Javier Busto), *Illunabarra* (Mocoroa), *Goodnight, sweetheart* (Robert Sund) eta *Ixil Ixilik* (Javier Busto) abestuko dituzte. 27 urte beteko dira aurten Aritzeta sortu zenetik, eta aurten eskainiko duten lehenengo kontzertua izango da Elosun emango dutena. Imanol Urzelai, Larraitx Agirre eta Xabier Olabarria arituko dira zuzendari lanetan.



GOIENKARIA



ANDAMIORIK
GABEKO
LANAK



680 641 401
676 952 968

**Fatxaden eta barruko patioen
berrikuntza eta pintaketak**

Teilatuak • Kanaloiak • Bajanteak
Tximiniak • Altuerako kimatzeak

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35

LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA

BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otorora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

EKONOMISTAK

ARROBI / ANDONI URIBE ETXEBARRIA

ESKORIATZA / Hidalga kalea 22, behe
T: 943 533 888
F: 943 533 865
uribe.arrobi@euskalnet.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otorora 16, solairuartera esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
URIBESALGO@telefonica.net

GESTORIAK

EGUREN

BERGARA / Irala 3
T: 943 76 21 65

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

> FUTBOLA

**Kanpoan jokatu
dute erregional
mailako eta BTLSk**

Erregional mailako taldea kanpoan arituko da aste bukaeran. Segurako mutilen aurka lehiatuko dira bergararrak zapatuan, 16:30ean.

BTLsko neskek eta mutilak ere ez dute Bergaran jokatuko. Bi partidu jarraian kanpoan jokatzea egokitu zaie. Oraingo aste bukaerari dagokionez, neskek Hernani izango dute aurrez aurre eta mutilak Trintxerpe.

Aste Santuko atsedendiaren ostean, apirilaren 21ean, etxean arituko dira BTLsko bi taldeak.

> ESKUBALOIA

**Gazteek Urola eta
infantilek Orio
izango dute aurrean**

Jardunaldi honetan bi partidu jokatuko dira eskubaloian. Gazte mailan, bergararrak Urolaren aurka lehiatuko dira. Norgehiagoka domeka eguerdian jokatuko da.

Gabonetatik hona oso ondo ibili da taldea. Bi partidu baino ez dira geratzen txapelketa amaitzeko eta sailkapenaren goiko partean daude bergararrak.

Infantiletan Orio izango dute aurkari. Partidu gogorra izango da hori. Domekan, izango da, 10:30ean.

> ESKIA

**Aste Santuan Alpeetan
eskiatzeko epea
zabalik jarraitzen du**

Astebete pasatxo baino ez da geratzen Aste Santurako. Egun horietarako planik ez duena Alpeetara joan daiteke, Pol-Pol mendi taldearen eskutik.

Apirilaren 6an abiatuko dira, Val Thorens eski estazioz, eta hilaren 14an itzuliko dira.

Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko Pol-Pol taldearen bulegoetara jo edo, bestela, 943 76 48 51 telefonora deitu.

GIMNASIA ERRITMIKOA > BERGARAKO 60 GIMNASTAK HARTUKO DUTE PARTE LABEGARAIETAN

Ariznoa eskolakoek duten guztia emango dute zapatuko eskola arteko txapelketan

Martxoaren 10ean Tolosan lortutako emaitza bikainak errepikatzen saiatuko dira bergararrak bihar, zapatua, Labegaraietan

MIRIAN BITERI > BERGARA

Labegaraietako kiroldegian gimnasia erritmikoa izango da nagusi zapatuan. Eskola arteko B txapelketaren bigarren fasea izango da han. Ekitaldiaren antolakuntza Ariznoa taldeari dagokio. Guztira, Bergarako 60 gimnastak parte hartuko dute, eta Arrasate, Eibar eta Ermuko- en aurka lehiatuko dira.

GOIZ ETA ARRATSALDEZ

Goizean, 10:30ean hasita, kade- te, infantil eta alebin mailetakoa- ak arituko dira. Arratsalde par-



LEHENAK Tolosan lehen postua lortu zuten talde guztiek.

GOIENKARIA

tean, berriz, benjaminen txanda iritsiko da. Norgehiagoka horri 16:30ean emango zaio hasiera.

Goizeko txapelketan lehiatuko diren 12 taldeetatik, hiru bergararrak dira. Gainera, maila askotariko 22 gimnasta bakarrik arituko dira Labegaraie-

tan. Arratsaldean, bertako bost talderen erakustaldia izango da. Bakarka 16 neskek jardungo dute.

Hilaren 10ean Tolosan izandako eskola arteko A txapelketan lan bikaina egin zuten Ariznoakoek. Taldeka lehenak izan ziren maila guztietan.

UR-JARDUERA > AKUAEROBIKAREN BIGARREN MAILAKO TALDEAN BAINO EZ DAUDE SOBERAN

Jaioberrien ur-jarduera eta akuaerobika praktikatzeko plazak geratzen dira oraindik

Agorrosinen ur-jarduerak egin nahi duenak aukera du. Jaioberriendako saioetan eta akuaerobikean tokia dago oraindik

M.B. > BERGARA

Agorrosingo igerilekuan egiten den akuaerobikean parte hartzeko epea zabalik dago oraindik. Kirol mota hori praktikatzeko dutenek maila ezberdinak dituztela jabetu

eta lau talde osatzea erabaki du Bergarako Kirol Zerbitzuak. Bada, bigarren mailako taldea osatzeko plaza gutxi batzuk geratzen dira oraindik bete gabe.

Akuaerobika egiteko interesa duenak izena eman dezake, astelehenean eguaztena, 15:15etik 16:00etara. Argibide gehiago nahi izanez gero, Agorrosin ekintzagunera (943 77 70 95) jarri behar da harremanetan.

15 HAUR UR-JARDUERAN

0-3 urte bitarteko jaioberrien ur jardueretarako matrikulazio garaia, bestalde, aste honetan

amaitu da. Izena emateko azken eguna eguaztena izan zen. Guztira, 15 haur apuntatu dira txanda ezberdinetara. Beraz, oraindik haur gehiagorentzat tokia dagoela esan du.

Hiru hilabete iraungo du ikastaroak. Apirilaren 21ean hasi eta ekainaren 17an bukatuko da. Saioak aste barruan eta asteburuetan izango dira eta ordu erdi iraungo dute guztiek. Hain zuzen ere, izena eman ez duenak edo aukeratuen zerrendatik kanpo geratu denak lehenbailehen eman beharko du izena Agorrosin ekintzaguneari.

labegaraieta**EMAITZAK**

Niu Tim - Irish Pub	7-6
Tiki Taka - Errota Gain	2-2
Deba - Errota Gain	0-3
Irubide - K. Piperrak	7-7
Deba - Niu Tim	0-3
Irish Pub - Belengua	6-3
Teatekh - Altospornos	3-0

PARTIDUAK

Martxoak 25, domeka	Epaileak
16:30 Irubide - Errota Gain	Niu Tim
17:30 Tiki Taka - Niu Tim	Irubide
18:30 Teatekh - Irish Pub	Tiki Taka
Belengua - K. Piperrak	Atsedena

SAILKAPENA

	P	J
1. Errota Gain	34	12
2. Niu Tim	33	12
3. Teatekh	24	12
4. Tiki Taka	16	13
5. Irish Pub	15	13
6. Irubide	10	12
7. Belengua	6	13
8. K. Piperrak	4	13
9. T. Deba	0	0
10. Altospornos	0	0

**Altospornos
kanporatua izan
da eta Debak
txapelketa utzi du**

Bi jardunaldi falta dira txapelketa amaitzeko eta garaipena lortzeko lehia pil-pilean dago. Errota Gainek puntuak galdu ditu Tiki Takarekin berdintzean. Orain puntu bakarrek abantaila du bakarrik.

Bestalde, talde bien portaera salatu dute antolatzaileek. Tornilleria Deba eta Altospornosena. Txapelketa hasi zenetik Debak partiduen ordutegiaren arazoka ibili dela eta bi jardunaldi falta direnean, txapelketa utzi duela aipatu du.

Altospornos kasua larriagoa dela esan dute antolatzaileek. Abisatuta zegoen arren, zapatuan ez ziren arbitratzera agertu. Gainera, domeko partidura ere ez ziren azaldu. Hori dela-eta, taldea txapelketatik kanporatua izan da.

Liga txapelketa Aste Santua baino lehen amaituko da eta ondoren, kopari ekingo zaio. Talde biek kanpoan daudenez, ez da aurrekanporaketarik izango.



Zatoz ile apaindegi berrira!

oraski

Iparragirre kalea, 8 • Tel.: 943 76 47 01
BERGARA

Ile apaindegia

Ezkontzak

Egubakoitza / 2007ko martxoaren 23a / **Arduraduna:** Edu Mendibil / **Maketazioa:** Oxel Arrieta / **Publizitatea:** Mireia Larrañaga



TENDENTZIAK
•
EZKONGAIEN MODA
•
SEXU BEREKO EZKONTZAK
•
EZKON BERRIEN ARGAZKIAK
•
GONBIDAPENAK
•
AUTO ZAHARREN ALOKAIURUA
•
EZTEI BIDAIËTAKO ARGAZKIAK

ARGAZKILARIA: ANE IDIGORAS - BEGIRA ARGAZKILARITZA.



*Laster, 250
lagunentzako
jantoki berritua!*

LASA jatetxea

Ozaeta jauregia
Tel.: 943 76 10 55
BERGARA



Jean Louis David

POLIT EGOTEKO

TRADITION

Ibargarai 43 • 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 22 48

DIFFUSION

QUICK SERVICE

Magdalena 16 • 01008 GASTEIZ • Tel.: 945 13 47 26

DIFFUSION

Garbera Merkataritza etxea 23 aretoa
20017 DONOSTIA • Tel.: 943 39 45 86

DIFFUSION

Urbil Merkataritza etxea B7 aretoa.
20170 USURBIL • Tel.: 943 36 08 17

DIFFUSION

Lakua Merkataritza etxea 05 aretoa
01010 GASTEIZ • Tel.: 945 17 91 50

BULEGO ZENTRALA

TRAINING CENTER

Gasteiz Etorbidea 84
01012 GASTEIZ • Tel.: 945 21 42 38

Jean Louis David-ek **LOREAL**
produktuak erabiltzen ditu



Bidaiari maiteminduak

Bidaiez, bizitzaz, bidaia zoragarrietan izandako esperientziez maiteminduak. Proposamen pizgarrienak eta promozio tentatzaileagoak aurki ditzakezu **Bidaiari Maiteminduak 2007** katalogo berrian. Barcelora etor zaitez eta eska ezazu zurea.

Aholku hoberena zure Barcelo agentzian

Ibargarai 8 - 25070 BERGARA | 943 760 843 · Maalako Errebala 31 - 20500 ARRASATE | 943 797 011

Barceló
BIDAIK

■ 2006KO DATUAK

Gero eta ugariagoak dira ezkontza zibilak ibarrean

JON BEREZIBAR

Ibarrean ezkontza zibilak dira gehienak, erdia baino gehiago. Azken urteetako datuek hori diote eta 2006ko ezkontzek joera egonkorta besterik ez dute egiten. Hala ere, bi muturrak ditugu ibarrean. Arrasaten ezkontzen %73 zibilak izan ziren eta Oñatin, berriz, %33 besterik ez.

Urterik urte datuek joera finkatu besterik ez dute egiten: Elizatik gero eta jende gutxiago ezkontzen da. Kasuan kasuko, aldeak badaude herririk herri eta bi muturrak Arrasate eta Oñati dira.

Arrasaten, joera orokorrari jarraituta, 73 ezkontza ospatu ziren iaz eta horietatik 19 besterik ez ziren kanonikoak izan. Kontrako eredu Oñatikoa da. Han askoagatik dute gurago Elizan esatea "bai, gura dut" hori. 2006an 68 bikote ezkondu ziren erregistro zibilaren datuen arabera. Horietatik 23k egin zuten zina modu zibilean.

Euskal Autonomia Erkidegora begirada zabalduz gero, ezkontza moten arteko aldea ez da Arrasatekoa bezain bestekoa baina joera oso antzerakoa da. Eustatera jota eta 2006ko bigarren hiruhileko datuak eskuen artean hartuta, ezkontzen %49a egin ziren Elizaz. Erdi eta erdi beraz, baina joerak zalantza barik zibilean alde egiten du urterik urte % 5 bat puntutan igotzen da-eta. Gainera datu horiek iazko maiatz eta ekainekoak dira,



Gero eta zaharrago eta zibilez ezkontzea da joera, ibarrean zein EAEn.

ARTXIBOA

ohitura Elizaz ezkontza gehien ospatzen diren urte-sasoia. Iaz 2006ko bigarren hiruhilekoan EAEn 2.876 bikote ezkondu ziren eta ezkontza zibilak aurreko urtean baino gehiago izan ziren.

IBARREKO JOERA

Leintz aldeko herrietan egiten dira ezkontza zibil gehien datuen argitara. Hala, Aretxabaletan, esateko, iaz 21 ezkontza egin ziren eta bost besterik ez ziren kanonikoak izan. Beste muturrera joanda, Leintz Gatzagan 13 ezkontzetatik bakararra izan zen zibila. Baina datuak ez doaz herriaren tamainarekin bat ze Elgetan iazko ezkontza guztiak zibilak izan ziren (egindako biak). Bergarako kasua Arrasatekoaren berdina da: 2006an 69 bikote ezkondu ziren eta horietatik 51k egin zuten ezkontza zibila. Joera, beraz, argia da, urterik urte datuek esaten dutenez.

Beste joera bat gero eta nagusiago ezkontzearena da, bai zibilez zein Elizaz. Izan ere, 2006an (Eustateko datuen arabera) ezkonduak senarren %73,6 30 urtetik gorakoa zen, emazteen artean, berriz, %56,4. Joera beraz, gero eta zaharrago eta zibilez ezkontzea da Euskal Autonomi Erkidegoan. Horrez gain, gero eta jende gehiago ezkontzen da bigarren aldiz ere, baina datuak ez ei dira nahikoa esanguratsuak Eustaten jasotako arabera, kopuru handirik ez dagoelako eta kopuruan eboluzio handirik nabaritzen ez delako, hain zuzen ere.

Arrasaten eta Bergaran ezkontza gehienak zibilak dira, Oñatin Elizakoiak

Euskal Autonomia Erkidegoan baino ezkontza zibil gehiago egiten dira gurean

Gero eta nagusiago ezkontzea da joera, 30 urtetik gora



*Denda ikusgarria,
lentzeria ikusgarria.*

lentzeria

Bea

Iturriotz 4 Arrasate Tel.: 943 79 12 05

■ MODA: SOINEKO KLASIKO NAHIZ MODERNOAK

Ezkongaiaren gustu pertsonalean dago gakoa

MIRIAN BITERI

Estilo askotariko jantziak erabiliko dituzte emaztegaiek aurten. Diseinugileek urtero joera zehatzak aurkezten badituzte ere, esaten da arrakasta datzala bakoitzaren gustu pertsonala kontuan hartzean. Horixe ei da gakoa. Horrenbestez, dendetara abiatu aurretik, soinekoei buruzko informazioa batzea gomendatzen da.

Ezkontza ospatu baino urtebete lehenago prestatzen hastea aholkatzen dute. Kontuan izan behar da bi eta hiru hilabete artean kostatzen zaiola saltokiari soinekoa egitea, eta, amaitu ostean, askotan ukituak egin behar direla. Hala, ezustekoak saihesten dira.

ALDIZKARIAK ETA INTERNET

Dendak bisitatzeko hasi aurretik, gomendatzen dute aldizkarietan eta Interneten ikustea soinekokoak. Ondoren, saltoki bat baino gehiago bisitatu eta kalitatea eta prezioa parekatu behar dira.

Hango arduradunari ezkontzari buruzko xehetasunak eman eta hainbat soineko probatu behar dira, norberaren gustukoak ez badira ere. Ondo gera daitezke.



BIZKARRA ERAKUSTEA MODAN DAGO

Soinekoei atzeko parteari gero eta garrantzia handiagoa ematen diote gaur egun diseinatzaileek. Bizkarra erakustea modan dago. Aurtengo denboraldiari begira, eskote amaigabea duten jantziak proposatzen dituzte gehienek. Batzuek, gainera, harribitxiekin nahiz botoi deigarriekin apaintzen dituzte ezkonberriek daramatzaten jantzien tiranteak.



OHOREZKO ESKOTEA NAGUSITZEN DA

Aurrealdeari ere asko erreparatzen diote diseinugileek. Azken urteetan, ohorezko eskotea nagusitu da, beste guztien gainetik. Ez du aurkaririk izan. Aurten ere horrela izaten jarraituko duela erakusten dute adituen bildumek. Lepoan gurutzatzen den soinekoa, hala ere, dagokion tokia aldarrikatzen hasi da. Harrera ona izango duela uste dute diseinatzaileek.



PASTEL-KOLOREAK EZ DIRA BAZTERTZEN

Koloreen artean, zuria izan da beti ezkongaien artean nagusi. Azkenaldian, ordea, marfilarekin lehia gogorra izan du. Emaztegaiei artean arrakasta duen kolorea da azken hori. Kolore berriak sartzen saiatzen ari dira orain diseinatzaileak. Pastel-kolore gisa ezagutzen direnak, hain zuzen ere. Arrosa eta urdina dira, horien artean, kolore nagusiak.



JAKATXO ETA LEPOKOAK HOTZARENDAKO

Ezkongaien jantziak egun dituzten eskoteek ez dute askorik laguntzen hotza saihesteko orduan. Hori dela-eta, jakatxoak eta lepoko ederrak egiten dituzte gaur egun diseinatzaile gehienek. Kolore askotarikoak aurki daitezke saltokietan, hala nola beltza, marroia eta zuria. Bada, azken hori eskatzen dute gehien. Ehunak ere mota askotakoak izan daitezke.



Suite antzeko lau logela bikoitz: bainu osoarekin, telebista, berogailua, etab.



Jangela zerbitzua

EGUZKITZA
LANDETxea

Eibarrerako bidea z/g Elgeta

• Tel.: 943 78 90 84

• Sakelakoa: 679 41 66 97



KIZKUR



Ile apaindegia • Estetika

Zure ezkontzarako behar duzun guztia

Andregaiantzako bonuak (%10eko deskontua zerbitzu guztietan)

Bolú kalea 51, Tel.: 943 76 50 32 BERGARA



MODA: SENARGAIK

Kontrastez beteriko trajeak datoz senargaiendako

JOKIN ETXEBARRIA

Senargaiaren arropak tradizionalki ez du horrenbesteko garrantzirik izan. Hala ere, merezi duen protagonismoa eman diote azken urteetako moda eta estetika joerek. Gonbidatuak ere trajea erabiltzeak senargaiendako nolabaiteko desberdintasunak bilatzera eraman dituzte modistak. Hori dela eta, kolore biziak nagusitzen hasi dira.

Senargaiaren trajeak bizitasuna irabazi du azken urteetan, eta aurtengo moda joerek ere ikusgarritasuna bilatu nahi dute. Trajeak beltzak izanik ere, distiradun arraiak dituzte gehienek goitik behera. Horretaz gainera, kontrastea bilatu nahi da trajearen iluntasunean txaleko, gorbata eta gainerako osagarri kolore biziak jarrita. Gonbidatuengandik desberdintzen ahalegintzea da bilatzen dena.

Orrazkerari dagokionez, iazko moda antzekoak jarraitzen du; senargaiak ahalik eta naturalen agertzen saiatu behar du, beraz ez da komeni gehiegizko ukituak egitea ileari. Hori bai, ile-apaindegitik pasatzea komeni da, eta azken egunean ez bada, hobe.



KOLORE BIZIAK TRAJE BELTZAREN AZPIAN

Euskaldun batek atentzioa deitzea nahiko zaila da, nahiz eta bere ezkontza eguna izan eta guztien begien aurrean protagonista bihurtu. Hori dela eta, Italiatik datorren moda nahikoa leundu behar izan dute ibarreko dendariak. Gure senargaiak ez dute arazorik trajearen kolorearekin, beltza baita nagusi. Hori bai, txaleko eta bestelako osagarrien bizitasunekin agian...



ARRAIA DISTIRATSUAK ETA ERDI-LEBITAK

Fantasiako oihalez eta zetaz egindako trajeak oso modan daude. Gehienek arraiak dituzte goitik behera, distira ukitu nabarmenarekin, senargaiari behar duen protagonismo berezia emateko ezkontza egunean. Jaka luzeak ez dira gehiegi eramaten. Erdi-lebitak dira protagonismoa hartu dutenak azken urteetan eta aurtengoan ere eurak dira trajearen jaketan nagusi.



GORBATA ZABALAK BAI; TXIMELETAK, EZ

Gorbatarik gabe elegante egotea zaila dela esaten dute askok. Sporteko modak geroz eta indar gehiago badu ere, gure begiek arraro ikusiko lukete senargaiak gorbatarik ez eramatea. Hala ere, ez dira ohiko gorbatak eramaten aurtengoan. Alkandoren lepoa zabalekoak izatean, gorbatek ere horrelakoak behar dute izan. Tximeletak, berriz, modaz kanpo daude.



MAHUKA-BIKIAK BERRIZ ERE MODAN

Osagarriak geroz eta indar gehiago hartzen dabilta senargaiaren trajean. Zapiak, loreak, txalekoak... denetik eraman beharra dauka elegante joateko. Aurten mahuka-bikiak berreskuratu dute azken urteetan galdutako protagonismoa. Hori dela eta, jaket beso motzak edukitzen dituzte, mahuka-bikiak alkandoraren eskumuturretan ondo ikusi daitezzen.



Egun zoragarria igaro duzu, eta gaua?
Hotel Mondragonen ezin hobea!

- Ezkonberrientzako suitea • Cava • Loreak

Kontsultatu gure tarifa bereziak asteburueterako.

Biteri Etorbidea 16.ARRASATE
Tel.:943 71 24 33 Faxa: 943 71 23 43
posta-e: hotelmondragon@hotelmondragon.com
www.hotelmondragon.com

San Miguel
DEKORAZIOA ETA ISOLAMENDUA

Norberaren babeserako ekipamenduak eta lanerako arropak
Zeramika erakusketa eta salmenta

Zapatu goizetan irekita

Amillaga 5-6 pabilioia - BERGARA Tel.: 943 76 47 90 - Faxa: 943 76 01 15 Zentralita: 649 98 16 70

■ GAY ETA LESBIANAK PROTAGONISTA

Sexu berekoen arteko ezkontzak

EDU MENDIBIL

Kostata bada ere, poliki-poliki ohitzen ari gara gizonezkoen arteko ezkontzak ikustera gure ibarrean. Gay eta lesbianen ezkontzak egin ahal izateko legea 2005ean onartu zuen Espainiako gobernuak. Debagoienean ere izan dira horrelako ezkontzak, Floren Oteiza eta Juan Carlos Olivenza-ren artekoa dugu adibideetako bat.

Uztailaren 22an ezkondu ziren Floren Oteiza bergararra eta Juan Carlos Olivenza eibartarra, Bergarako udaletxean. Bienztat ere egun ahaztezina izan zen hura. Ezkontzak sekulako ikusmina piztu zuen herrian: San Martin plaza jendez gainezka zegoen egun hartan, eguerdian, protagonistak gertutik ikusteko. Floren Oteizak zera adierazi digu:

"Oso egun berezia zen eta, zorionez, dena primeran irten zen. Hala ere, sekulako nerbioak pasatu nituen ezkontzaren aurretik; Juan Carlos lasaiago zegoen. Baina lagunek, lankideek eta familiakoek laguntza handia eskaini ziguten eta maitasunez betetako eguna izan zen. Hori izan zen gauzarik ederrena, jendea inplikatzeara".

EZKONTZEKO AUKERAREN ZAIN

Ezkondu aurretik bost urte pasatxo eman zituzten elkarrekin Juan Carlosek eta Florenek: "Urtebete eman genuen elkarrekin bizitzen eta argi geneukan ezkontzeko aukera suertatzen zenean, ezkondu egingo ginatkeela. Eta halaxe egin genuen: ezkontzak legeztatu zituztenean, berehala ekin genion ezkontza gertatzeari. Hasieran, niri zertxobait gehiago kostatu zitzaidan



Floren Oteiza eta Juan Carlos Olivenza Bergaran ezkondu ziren, uztailaren.

JOSE LUIS DIZ

aurrera egitea, nire erabakiak familian sor zezakeen erreakzioaren beldurrez. Baina, zorionez, ez zen inolako arazorik egon", dio Juan Carlosek. Eta Florenek: "Ideiak argi genituen eta azken baten, herritar guztiak bezala, guk ere zergak ordaintzen ditugu eta logikoa da eskubide berdinak izatea".

Elkarrekin bost urte egin ostean, ezkontzea argi zeukaten Florenek eta Juan Carlosek

Esan bezala, lagunek eta lankideek primerako laguntza eskaini zieten, Florenek azpimarratzen duen bezala: "Fagorreko lankideek gertatu zuten ezkontza Bergarako udaletxean, ezteibidaia, auto zahar dotorea ere alkatu zuten, aurraskua dantzatzeko dantzariak ekarri zituzten... Eta koadrilakoak ere han ibili ziren, etxafuegoak jaurtiz eta sekulako giroa sortuz".

Fagorren lanean hasi aurretik urte dezente eman ditu ile-apaintzaile lanetan Florenek Bergaran. Oso ezaguna da herrian eta han eta hemen egindako lagun piloak etorri zen ezkontzara. Ehundik gora lagun elkartu ziren ezkontzan.

BAIETZA ELKARRI

Biak dotore jantzita, etxe azpian lagunek alokatutako autoa zeukaten zain ezkontza hasi aurretik. Udaletxera bidean *paseilloa* egin eta plazan familiakoak, lagunak eta kurioso mordoak ziren nobioak ikusteko irrikaz. "Era horretako lehen ezkontza zen eta normala da jendeak ikusmina izatea, baina horrenbesterako... Ikaragarria izan zen" dio Florenek. Juanjo Arrieta zinegotziak ezkondu zituen, Florenen familiaren aspaldiko laguna da-eta.

Bazkaria Gure-Ametsan egin zuten, giro ederrean. Ezteibidaian Karibe aldean ibili ziren... eta egun hura errepikatuko luketela argi daukate biek ere.

NINIKA

L O R A D E N D A

- Andregaiantzako lore-sortak
- Eliza eta jatetxeen dekorazioa
- Lorategi eta terrazen diseinua
- Paisajismo estudioa

Ramon Maria Lili 8 20570 Bergara
Tel. / Faxes: 943 76 10 01



Laser bidezko depilazioa

Milesman

Besapeak
saioa
100 euro

Diodo laserra

Izterondoak
saioa
125 euro

dOr

- Emaitza ezin hobekak
- Bigarren mailako efekturik gabe
 - Saio gutxi batzuetan emaitza iraunkorrak (3 eta 6 saio bitartean)
 - Hiru hilean behin saio bakarra

dOr Estetika
Errementari 5
20560 Oñati
T. 943 53 36 47

Ezkongaiantzat

- Forever French iraunkorra esku eta hanketan
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko peelinga eta masaje lasaigarriak
- Makillajea



Unea aukeratzea, denbora aurrezte da.

Francis Bacon



Minutu bat bera ere galdu gabe, gaur egungo sukalde berritzaileenak zure etxeko beharretara egokituta aurkitu nahi badituzu. **Zatoz Bastida Sukaldeak-era.**

Hitzordua eskatzeko aukera eskeintzen dizugu, denbora aurrez dezazun. **8:45etik - 20:30era arteko ordutegi jarraia** benetan axola zaizkizun gauzetarako denbora izan dezazun.

Hitzorduetarako tfnoak.:

azpeitia 943 150 510
zarautz 943 894 999
bergara 943 767 058

www.bastidasukaldeak.com

 **bastidasukaldeak**

Zure eguna da. Eta ezin hobeto egongo zara.

Soinekoa. Jatetxea. Gonbidatuak. Argazki bilduma. Bidaia.

Guzti hau garrantzitsua da.

Baina, **zure ezkontzan, zu ezin hobeto** egon behar zara.

Horregatik, Lirainen, zurekin **konpromiso** bat hartu nahi dugu egun horretan zure azala **bizitasun osoa** izan eta zure irribarreak eta begien distirak **zure edertasunaren islada** izateko:

Aurpegiaren oxigenazioa
Gorputzeko peeling-a
Frantziar manikura
Pedikura
Makillajea
Solariumerako bonoa

%20ko

DESKONTUA

Informa zaitetz!
943 79 52 17


LIRAIN
Estetika Zentroa

Debagoieneko zentrorik handiena eta teknologia aurreratuenarekin



■ ARGAZKI ALBUMA

Argazki ederrak ateratzeko,

GOIENKARIA

Argazkilariek ondo ezagutzen dituzte ibarreko bazter eta txoko politenak. Askotan kostaldera egiten dute, argazkiak ateratzeko itsasoak daukan xarma aprobetxatzeko asmoz. Ezkontzaren egunean, baina, baserriren batera, herriko txokoren batera edota inguruan ditugun parke, ermita edo urtegieta egiten dute gehien.

Ezkontza eguneko argazki albuma osatzerakoan, ibarreko argazkilariek ondo jakiten dute nora jo. Hala ere, batzuetan ezkon-gaiek aukeratzen dute argazkiak non atera, eta argazkilariek bezeroen nahiak asetzen ahalegintzen dira.

Dendetako erakusleihoetan lan ezin orijinalagoak erakusten dituzte. Aro digitalean, batzuek artista lanak egiten dituzte ordnagailu aurrean. Beste batzuek, berriz, gurago izaten duten argazkia bere horretan uztea, nahiz eta beti egoten den erretratuan zerukitu. Hori bakoitzaren gustura, helburua bera da-eta: irudi bat bizi osorako oroigarri izatea.



KIÑU ARGAZKIAK

GOTZON ETA MAITE

Irailaren 30ean ezkondu ziren Gotzon eta Maite, Bergarako udaletxean. Bazkaltzera, berriz, Zumarragara joan ziren. Erretratuak ateratzeko Bergarako baserri bat aukeratu zuten, "baserria oso ondo dagoelako eta ezagunak garelako", esan digu Gotzonek. Bergarako eta Arrasateko bikoteak Argentinan egin zuen ezkonbidaia: "Akaso, hegoaldea izan zen gehien gustatu zitzaiguna, Ushuaiako parajeak. Han udaberria zen, eta oraindik hotz egiten zuen".



ANE IDIGORAS - BEGIRA ARGAZKILARITZA

OSCAR ETA ENERITZ

Eskoriatzako Oscarrek eta Aretxabaletako Eneritzek Dorletako santutegia aukeratu zuten ezkontzeko. 2006ko uztailean izan zen hori, eta erretratuak Urkulun -Otalorako eraikinean- eta Eneritzen baserrian atera zituzten. Oscarrek azaldu digu, baina, lehenago Debara ere joan zirela, han beste erretratu batzuk ateratzera. Ezkonbidaia Asia aldean egin zuten: "Thailandian egin genituen lehenengo egunak, handik Bangkok-era joan ginen, eta Balin amaitu genuen bidaia".



Bataioak
Jaunartzeak
Ezkontzak

Kupoi hau aurkeztuz gero
%10eko deskontua ezkontza
gonbidapen eta oparietan
Apirilaren 30a arte!



PAPER DENDA
J. URIARTE.

Paregabeko egunaren oroigarria

GONBIDAPENEI eta EZKONTZA OROIGARRIEI dotoretasun ukitua ematen diegu, betiere, zuen ILUSIOAREN kutsuarekin



Dei egiguzu edo bisita gaitzazu konpromiso barik. Gustora hartuko zaitugu, baita zapatu arratsaldetan ere.

Olarte 10 ARRASATE - Tel: 943 77 03 80 - Faxe: 943 71 17 30

Argazkilarien agindupeetara



MARIA JESUS ARGAZKILARIA

AMAIA ETA ABILIO

Arrasateko bikoteak Gesalibarko auzoa aukeratu zuen ezkontzeko, eta Urkulun atera zituzten erretratuak: "Aterkiarekin ibili behar izan genuen batera eta bestera, euria egin zigun-eta". Baster-Alden bazkaldu zuten, eta Ameriketara egin zuten bidaia: "Lehenengo egunak AEBetan egin genituen, eta New York gustatu zitzaigun gehien. Gero, Cancunen egin genuen beste astebete".



KIÑU ARGAZKIAK

KRISTINA ETA IGOR

Erretratuko bikoteak Ordizia aukeratu du bizi izateko, baina Bergaran ezkondu ziren, joan den urteko uztailearen 22an, Uberako San Paulo elizan. Erretratuak ateratzera, berriz, San Martzialera gerturatu ziren: "Aste osoan zehar sekulako beroa egin zuen, baina egun hartan lainoak izan ziren, eta freskoago egin zuen", gogoratzen du Kristinak. Kanadara eta Mexikora egin zuten bidaia.



URKAN ARGAZKIAK

NOEMI ETA PAUL

Joan den urteko maiatzaren 27an ezkondu ziren Noemi eta Paul, Aramaioko Azkoaga auzoan. Erretratuak, baina, ez zituzten auzo hartan bakarrik atera, eguraldia lagun Aramaioko hainbat auzo aukeratu zituzten-eta lan hori egiteko: Barajuengo baserri batean, Ibarra bertan... Ezkonbidaiarako Maldibak aukeratu zituzten: "Oso leku ederra da, eguzkia hartu eta lasai egoteko leku aproposa", esan digu Noemik.



Momentu eder guztietan



Maalako errabala 5 • ARRASATE • 943 79 19 25

Kale Barria 18 • OÑATI • 943 71 60 74

■ GONBIDAPENAK ETA OPARITXOAK

Gonbidapena: ezkongaien nortasuna agerian

MIRARI ALTUBE

Ezkontzaren gaineko protokoloa gonbidapena banatzeko hasten da, eta ahoz esandakoa berretsi egiten du eskura emandako txartelak. Era berean, ezkongaien nortasun eta gustuen berri ematen du jasotako gonbidapenak: klasikoak, modernoak edo informala. Horregatik, arreta handiz zaindu behar dira xehetasun guztiak.

Elizara, udaletxera edo jatetxera sartzeko inork ez du eskatzen gonbidapenik gure inguruko ezkontzetan. Hala ere, derrigorrez izan behar dute gonbidatuak.


Internet bidez egiten hasita daude batzuk, baina oraindik papera da protagonista gonbidapenetan. Hamaika eratakoak izaten dituzte inprimategi, argazki denda eta diseinu enpresetan, eta aukeraketak ezkongaien nortasunaren berri

ematen du: akuarelekin egindako marrazkiak, irudi abstraktuak edo erliebean egindakoak, paper naturalak gainean benetako loreen petaloak dituztela eta beste hamaika aukera daude. Klasikoek kolore leunak eta loreen irudiak erabiltzen dituzte testua apaintzeko; pertsonalizatuak gura dituztenek, osterak, ezkongaien argazkiak edo, zergatik ez, hatz-markak jartzen dituzte. Eta batzuek elizara edo jatetxera joateko planoak gaineratzen diote.

Prezioan aldea dago batetik bestera; batez ere koloreetan inprimatzea gura izanez gero edo zilar edo urre koloreko tintarekin. Hala ere, 100 gonbidaturendako txartelak 150 eta 250 euro artean daude.

BUKAERAN, OPARITXOAK

Ezkontza, osterak, dantzaldia hasi aurretik gonbidatuei ematen zaie oparitxoak bukatzen du.



Gonbidapen serioerik gura ez dutenek marrazkiekin osatutakoak erabil ditzakete.

M.A.

GONBIDAPENAK ETA TXARTELAK BATERATUTA

Xehetasun txikiak osatzen dute ezkontza, eta guztiak zaindu behar dira ondo. Hala, gonbidapena, menuaren txartela, kafea hartzeko gonbidapena eta oparitxoak izango duen txarteltxoa bateratuta egotea komeni da; hau da, kolore edo irudi bera izatea guztiak. Eta gonbidatu askok oroigarri gisa gordeko dituzte.

Hor ere aukera zabala dute ezkongaiak, eta ohikoenak dira: xaboi saskiak, kandela eta intsentsuak, gozoki eta almen dratxoak, ispiluak, lurrinak, edalontzi-azpikoak... 1,5 eurotik gora mila oparitxo dituzte ezkongaiak. Berrikuntzarik handiena, baina, gizonendakoek izan dute gure

Boligrafoak, linternak, ardo botilak... jasotzen dituzte gizonak, puruak beharrean

arteak. Tabakoaren legea indarrean jarri zutenetik puruak banatzeko ohitura aldatu egin da, eta orain beste era bateko opariak jasotzen dituzte: boligrafoak, kortxo-kentzekoak, ardo botila txikiak, kalkulagailuak, linternak... eta pertsonalizatutako loteria dezimoak ere bai.



leku eta egun ahaztezinak



**Etxe
Aundi**

Jatetxea-Hotela**

Torre Auzo, 9
OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 19 56

120 eta 250
gonbidatuendako
jangelak ditugu.

■ LUXUZKO OSAGAIA

Auto zaharren glamourra

EDU MENDIBIL

Gero eta ohikoagoa bihurtzen ari da emaztegaia auto zahar dotore baten ikustea ezkontzako egunean. Rolls Royce, Ford, Studebaker, Cadillac eta antzeko auto klasikoek distira berezia ematen diote ezkontzari. Zalantzarik gabe auto zaharren xarma berezia da eta ezkontzako izarretako bat bihurtzen ari dira.

Ez da erraza horrelako auto klasikoak dituen jendea topatzea gure ibarrean. Agustin Lazpiur bergarra dugu pribilegiatu horietako bat. Motorzale amorratua da eta, besteak beste, Mercedes 170 modeloa (1954 urtekoa) eta Renault Vivacuatre (1938) autoak dauzka. "Mercedesa orain dela 10 urte inguru eskuratu nuen eta Renaulta orain dela zortzi bat urte. Betidanik gustatu izan zaizkit auto zaharrak eta mekanikako kontuak. Ordu pilo sartzan ditut autoekin eta motorrekin. Orain Mercedesa pintatzeko daukagu... ". Lagunen eta familiako ezkontzetan txofer lanak egitea egokitu zaio Lazpiurri. "Urtean hiruzpalau aldiz erabiltzen dut ezkontzetan, baina ez ditut auto zaharrak alokatzten. Azken baten ezkontza eguna horretara dedikatu behar diozu: goizean goiz hasi, emaztegaia ile-apaintzailearengana eraman, handik argazkiak ateratzera...



Irudian, Agustin Lazpiurren Mercedes 170 autoa, joan den urtean ospatutako ezkontza batean.

KIÑU ARGAZKI DENDA

Nahiko *jaleo* izaten da eta horregatik bakarrik familiako eta hainbat lagun ezkontzetan atara izan ditut". Oso egun berezietan Rolls Royce markako autoa ere erabili izan du Agustin Lazpiurrek: 1935. urteko modeloa da Rollsa, orain dela lau urtetik daukana. Aitor Zabaleta auto gidari ezagunak ordezkatu izan du Lazpiur txofer lanetan, behin

**Ezkontzari
beste garai bateko
ukitua ematen
diote auto
zaharrek**

baino gehiagotan. Mendiko igoretan baino abiadura mantsoagoan ibiltzen da Zabaleta auto klasikoak gidatzen.

IKUSMIN HANDIA AUTOEK
Zalantzarik gabe, distira berezia duten autoak dira, ezkontzari beste garai bateko ukitua ematen diotenak. Auto klasiko batean eramaten dutenean are eta

ikusmin handiagoa pizten du emaztegaia. Gipuzkoan badira horrelako egun berezietako auto klasikoak alokatzten dituztenak.

Nubolari elkartean ibilitakoa da Agustin Lazpiur. Orain, beste hainbat lagunekin batera urtean hainbat irteera egiten dituzte. Eta ez autoekin bakarrik. Motor zaharrek ere ibiltzen dira koadrilan noizean behin.



Sastreria Alujika

Presta zaitez ezkontzarako!

Barrenkale 1 • Tel.: 943 76 29 91 • BERGARA





GIARTZU

Neskendako tratamenduak

- Aurpegiko tratamendua + gorputzeko tratamendua
- Aurpegiko tratamendua + gorputzeko tratamendua + makillajea edo manikura
- Aurpegiko tratamendua + gorputzeko tratamendua + makillajea + manikura
- Aurpegiko bi tratamendu + gorputzeko bi tratamendu + makillajea + manikura

Boni Laskurain 4 • BERGARA



ESTETIKA ZENTROA

Mutilendako tratamenduak

- Aurpegiko tratamendua + gorputzeko tratamendua
- Aurpegiko tratamendua + gorputzeko tratamendua + makillajea edo manikura
- Aurpegiko tratamendua + gorputzeko tratamendua + makillajea + manikura
- Aurpegiko bi tratamendu + gorputzeko bi tratamendu + makillajea + manikura

Tel.: 943 76 35 71



■ EZTEI BIDAIAK

Agentzian bai, baina Interneten ere bai



GOMENDATZEKO ETA BUELTATZEKO MODUKOA

Bergarako Usuri Garitano eta Iker Larrea antzuolarra Zeelanda Berrian izan ziren iazko ekaina-uztaila bitartean. Hango diapositibak ikusten aukeratu zuten herrialde hartara bidaiatzea eta bidaia guztia euren kontura antolatu zuten, abentura bila. Argazkiak erakusten du Waiotapuko ur termalak. Han bainatu ezin dela egin kontatu digute, baina ur berak aprobetxatuta, inguruko herrietan jakiak prestatzen zituzten eta bainatu ere egiten ziren.

UBANE MADERA

Geroago eta sarriago, bikoteek eurek antolatzen dute bidaia, ez oporretan bakarrik, baita ezte bidaietan ere. Edozelan ere, ezte bidaietan, agentziara jotzeko joera nagusi da oraindik. Gainera, bidaia norberak antolatu arren, agentzien moduan, urruti dauden leku exotikoak aukeratzeko dituzte bikote gehienek, Europatik kanpo.

Eztei-bidaia egiteko orduan, zertxobait aldatu dira bikoteen ohiturak azken urteotan.

Esaterako, geroago eta bikote gehiagok erabiltzen dute Internet euren bidaia aukeratzeko eta antolatzeko orduan.

Edozelan ere, bidaia agentzietan oraindik ez dute igarri Interneten eragin handiegia, eztei

bidaiei dagokienez, behintzat. Hala adierazi digute ibarreko bidaia agentzietan.

Aldaketa larregi ere ez dute igarri ezte bidaiarako lekuak aukeratzeko orduan, ia gehienak Europatik kanpo dira-eta. "Hori bai, lehen oso tipikoa izaten zen Dominikar Errepublikara edo Riviera Mayara joatea, hondartzengatik. Orain, berriz, halakoak aukeratzeko dituzte baina lehenago beste zirkuitu bat egin ostean. Adibidez, lehenengo Ameriketako Estatu Batuetara joan eta gero Dominikar Errepublikara".

Asia, Hegoamerika eta Ameriketako Estatu Batuak dira ezte bidaietako izarrak. "Afrika eta Australia noizbehinka aukeratzeko dituzte", diote agentziakoek.

Bestalde, martxotik hasi eta irailera arte edozein hilabete aukeratzeko dituzte bikoteek bidaiarako.



KUBA, BIZIKLETA GAINEAN

Habanatik Santiagora autobusean joan eta han bizikleta hartu zuten Gorka Etxabe eta Alaitz Elortza aretxabaletarrek: Baracoa, Holguin, Guardalavaca, Santa Klara, Sancti Spiritus, Trinidad, Cienfuegos, Varadero, Matanzas eta Habana ibilbidea egin zuten. "Bidaia desberdina egin nahi genuen eta bizikletaren ideia gustuko genuen eta esan ziguten Kuban bizikletan oso lasai ibiliko ginela. Beste arrazoia zen Kuba ezagutu nahi genuela Fidelekin".



Zumelaga

JATETXEA

65 urte
zuen zerbitzura!

Familia eta lagun artean ospatu nahi duzulako...



San Antonio 5 BERGARA Tel.: 943 76 20 21
E-posta: restaurantezumelaga@zumelaga.com www.zumelaga.com



KROAZIA-VENEZIA, INTERNET BIDEZ

Ibane Abasolo elgetarrak eta Blas Etxebarria eibartarrak ez ohiko bidaia aukeratu zuten: eurek antolatutakoa eta Europatik atera barik: Venezia-Kroazia. Bartzelonatik hegazkina hartu eta Veneziaara jo zuten, handik ferry bat hartu eta Kroaziara joateko. "Plitvice-ko lakuen parke naturala asko gustatu zitzaigun. Spliteko alde zaharra, Diaocleianoren jauregia eta inguruko eraikinak ere ikaragarri gustatu zitzaizkigun. Eta Venezia bere xarma dauka"



BIDAIATZEKO BESTE MODU BAT: FURGONETA

Maider Larrañaga arrasatearra eta Lander Diaz de Gereñu oñatiarrak Zeelanda Berria aukeratu zuten bidaiatzeko eta Polinesiako hondartzak atseden hartzeko. Baina ez zuten ohiko bidaia egin. "Bageneukan ideia Zeelanda Berrira joateko eta agentzian aukera eman ziguten Polinesiara ere joateko. Baina, hegazkinak eta furgonetaren alokairua lotu genituen bakarrik agentzietatik. Bestela, gure kuntura antolatu dugu; Zeelanda Berria oso ondo dago furgonetan bidaiatzeko".

LASAI EGON ETA GAUZAK IKUSTEKO, BIAK ONDO

Mediterraneora itsas bidaia bat egitera joatekotan ziren, baina itsasontzia betetzeko beste bidaiari ez zituzten lortu. Hala, bidaia agentziak hiru bidaia posible eman zien aukeran. Eta azkenean, Mexiko aldean bukatu zuten Ana Abel oñatiarrak eta Javi Usero almeriarak. Hain zuzen ere, Riviera Maya inguruan ibili ziren. Lasai egoteko hondartzak eta aldi berean ikusteko gauza interesgarriak dituelako aukeratu zuten bidaia hura, adibidez, maia eta inka belaunaldien arrastak. Guztira, hamar egun egin zituzten eta euren esanetan primeran ibili ziren. Oroigarri eta guzti bueltatu ziren etxera: maien egutegia, narruzko tapizak eta jantziak, esaterako.



TRATAMENDU BEREZIAK EGUN BEREZIRAKO

Aurpegi tratamenduak
Gorputz tratamenduak

Makillajea
Manikura
Pedikura


Solariuma (zutik eta etzanda)

Laser bidezko depilazioa medikuak kontrolatuta

ETA OPARI BEREZIAK ZURE GONBIDATUENTZAT

Lore

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



- Ezkontzetan espezialistak
- Andregaiantzako lore-sortak
 - Ekitaldi bereziak
 - Ezkontza-detaileak

Matxiategi, 1
BERGARA 20570

Tel. 943 76 07 47
Sakelekoa: 679 31 62 72



■ EZKONTZAK

Musika elektronikoak fandangoak ordezkatu ditu

AMAIA ZALDUA

Ezkontzetan xehetasun guztiak hartzen dira kontuan eta musikaren papera azpimarratzekoa da. Arropekin bezala, musikarekin ere modak agintzen du eta egungo tendentziak elektronika edo disko aldera jotzen du: DJek lekua kendu diete garai bateko musika bandei eta orkestrei.

Gaur egun, ezkontza bat antolatzean DJa kontratatzen da modan dagoen musika jar dezan. Duela hogeita hamar urte, ordea, musika taldeek ematen zituzten kontzertuak bazkal ostean.

Gipuzkoa osoan ezkontzetan jotzen duten hamar bat musika talde daude, eta gehienek DJarekin batera ematen dituzte euren kontzertuak.

DUELA 30 URTE

Bergarako Ibaiak taldeak hogeita hamar urte daramatza ezkontzetan eta plazetan jotzen, laster, ostera, euren jarduna utziko dute.

"Lehen musika gutxi entzuten zen kalean eta ezkontzetan musika jotzea nobedadea zen", dio Julen Narbaizak Ibaiak taldeko kideak. Horrekin batera,



Ibaiak taldeak jotzeari utziko dio laster, 30 bat urtez ezkontzak alaitzen jardun ostean. Goian, hasi zireneko irudi bat.

ARTXIBOA

Trikitixa eta euskal kantuak klasiko bihurtu dira egungo ezkontzetan

euskal musika izaten zen nagusi, eta klasikoak jotzekotan, Pasodoblea, *valsa*, tangoa eta boleroak jotzen ziren. Jendeak lotuta egiten zuen dantza Eskararak, baina, aldatzen joan ziren, eta DJekin batera jotzen hasi ziren. Urteko 40 bat ezkontzatan

Disc Jockey-ek egungo aldaketa musikal azkarrei erantzuteko gaitasuna dute

izaten zen Ibaiak taldea, eta egun beharakada nabarmena igartzen du. Bestalde, entseatzeko lokalik gabe gelditu da taldea eta ezkontza kopuruak ere behera egin du. Arrazoi horiengatik, taldea datorren urtean desagertu egingo da.

GAUR EGUNGO JOERA

Egun DJek agintzen dute ezkontzetako pistetan. Jendeak tabernetan entzuten duen musika dantzagarria eskatzen du eta DJak CD hori ipintzen du.

DJa azkar moldatzen da aldaketetara eta ez du entseatu beharrik. "Gainera, musika taldeek jo ezin zitzaketen abesti batzuk jartzeko gaitasuna du, nahiz eta bandek jotzen zituzten abestiak ezin dituen jo", deritzo Julen Narbaizak.

TENDENTZIAK

Ez orkestrek ezta DJek ere, ez dakite zein izango den ezkontzetako etorkizuneko musika. "Egun aldaketak oso azkar gertatzen dira, eta DJak aldaketa horietara egokitze gaitasuna du. Baina agian etorkizunean jendea ez da ezkonduko... auskalo!", adierazi digu Julen Narbaizak gitarra joleak.

Elizen dekorazioa - Emaztegiaren erramuak - Autoetarako opaingarriak - Jatetxeak

Bidebarrieta 19 - Oñati - Tfno: 943780304 610733488

CORTE BLANCO
SENARGAIK

SENARGAIK 2007
EZKONTZA TRAJEAK
KOLEKZIO BERRIA
SENARGAIK, AITABITXIAK
ETA GONBIDATUAK

TEL. 943 464091 (ALDEZ AURREKO HITZORDUA)

Triunfo, 3 Donostia


ESKLUSIBAN GURE BEZEROENTZAT

Iaster zuekin



Ilargi Plaza 1, Aretxabaleta
(tlf:637 26 26 86- Ane Idigoras)

Begira
argazkilaritza



Makatzeta
ARRAZOLA



Hiru jangela – Menua eta karta

Hiru jangela : 14, 30 eta 180 lagunendako

**Lagun eta familiarteko ospakizunak
Bataioak, jaunartzeak eta ezkontzak**

Debagoienetik oso gertu!

Arrazola – Atxondo Tel.: 94 658 29 31

Gure Ametsa

Jatetxea

Tel.: 943 71 49 52 - GATZAGA



Zure ezkontza eguna ospatzeko leku eta giro paregabea dauzkagu

Estetika & Gorputz Zentroak
angela

Fotodepilazioa
Hanka osoak
+ izterrondoak
250€/saioa

Iturriotz, 35
20500 Arrasate (Gipuzkoa)
T. 607 596 429
info@angelaestetika.net
www.angelaestetika.net

APROBETXATU EZAZU eskaintza hau martxoaren 31ra arte

20 Saiotan aldea igarriko duzu

**LPG DA GURE AZKEN
BERRIKUNTZA**

- Zelulitisa kendu eta gorputza itxuraz hobetu
- Larruazalaren erlaxazioa
- Zelulitis biguna
- Ebakuntza ostekoa
- Erlaxazioa

Aurkezpen
promozioa:
600€
(20 saio)



- Gure dietisten aholkularitza espezializatua zure zerbitzura.

Javier Gartzia > Bizkaiko Misterra

"Espainiako Mister lehiaketarako sailkatzeaz gain, ez dit asko eman Bizkaiko Mister tituluak"

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Gaur, egubakoitza, iluntzean jokatuko da Espainiako Mister lehiaketa, Oropesa del Marren. Javier Gartzia 23 urteko bergararra da hautagaietako bat; Bizkaiko Mister banda bularraren bueltan duela lehiatuko da. Hilaren 11 ezkerodago Marina D'Orren, gainerako 51 lehiakideekin batera promozioa egin eta gaurko gala handirako prestatzen.

Zer moduz gala handirako azken orduak?

Oso ondo. Nahiko lasai egon naiz, baina orduak aurrera egin ahala urduritzen noa, batik batik gaur goiz partean elkarrizketa pertsonalaren txanda delako. Elkarrizketa ondo egin behar da, tituluaren %80 da-eta.

Hautagai guztiak Oropesa del Marren zaudete hilaren 11 ezkerok elkartuta. Zer moduz?


Oso ondo. Oso ondo zaindu gaituzte. Hil hasieran Madrilen batu ginen 52 parte-hartzaileok. Handik Toledora joan ginen eta hilaren 11 ezkerok Oropesa del Marren gaude, Marina D'Orren. Misterrez gain, Missak ere hemen gaude, baina ez dugu elkar asko ikusten.

Zein izan da eguneroko jarduna Oropesa del Marren eman duzuen denboran?

09:30ak aldera gosalduta eta 10:00etatik aurrera egiteko asko izan dugu: prentsarekin egon, babesleekin irteerak egin... Azken batean, Misterrak ezagutzera ematea helburu duten ekintzak prestatzen ditu lehiaketaren antolakuntzak.

Bada, gaur iluntzeko galara-ko entseguak ere egingo zenuztuzten.

Bai, egin ditugu. Eszenatoki-ara nondik atera, nondik sartu... Hori guztia entseatu dugu. Nola desfilatu ere apur bat erakutsi digute. Izan ere, hautagaietako batzuk oso prestatuta datoz, ondo dakite desfilatzen, baina beste batzuek, aldiz, ez. Eta horiei gutxieneko batzuk irakasten dizkiete. Ni pixka bat jakinda etorri naiz.



Javier Gartzia Bizkaiko Mister galan.

GOIENKARIA

"Oropesa del Marreko topaketan asko zaindu gaituzte"

"Irabazi nahiko nuke, baina hona iritsita irabazle sentitzen naiz"

Ze jantzirekin desfilatuko duzu?

Hiru desfile izaten dira: lehenengoan bainujantzian desfilatuko dugu. Hor 26 kanporatuko dituzte. Bigarrenean *sport* arroparekin desfilatuko dugu eta hor ere 26 kanporatuko dituzte. Hala, hirugarren desfileko 12 lagun geratuko dira eta horiek festajantziaekin egingo dute azkeneko desfilea.

Esandako hiru jantzi motekin sentitzen naiz ni eroso.

"Ez dut hautagaien artean lehiakortasun handirik sumatu"

"Aldatu egin beharko lituzkete lehiaketako baldintzetako batzuk"

Nolakoa da hautagaien arteko giroa? Lehiakortasun handia dagoela entzun izan da maiz.

Giroa oso ona da. Askok gara eta normala da talde txoak egitea. Ni, esaterako, Gipuzkoa, Araba, Malaga eta Tenerifeko Misterekin moldatzen naiz ondo. Lehiakortasunari dagokionez, ez dut handirik sumatu.

Eta zer-nolako maila dago?

Mutil politik gaude, baina, oro har, denerakoa dago.

Faboritorik izango duzu.

Bai, Zaragozako. Horrekin batera, Tenerife eta Malaga ere gustuko ditut. Eta, noski, Bizkaiko Misterra. (Kar, kar, kar)

Ze aukera ikusten dituzu Espainiako Mister 2007 izateko?

Behin hona etorri eta irabaztera ez datorrela esaten duenak gezurra dio. Guztiok etorri gara irabaztera. Hala eta guztiz ere, hona iritsi izana asko da, neu oso pozik nago, irabazle sentitzen naiz.

Espainiako Mister lehiaketarako hautagai izateaz gain zer gehiago eman dizu Bizkaiko Mister tituluak?

Oraingoan, askorik ez. Ea gaurko lehiaketaren ostean desfile gehiagotan lan egiteko aukera dudana... Ateak zabaltzen ei dituzte halako tituluak, baina oraindik goiz da. Gainera, jardun honetan aurrerapausoak eman nahi izanez gero Madril edo Bartzelonara joan beharra dago.

Ni Bilboko agentzia batean nago eta batez ere Euskadi mailan egiten dugu lan, eta hori, jardun honetan, oso esparru mugatua da.

Familia eta lagunak zer diote?

Asko animatzen naute bai gurasoek zein lagunak. Gurasoak etorriko dira galara.

Beti egoten da ika-mikaren bat Espainiako Miss eta Mister lehiaketak hurbildu ahala. Aurten, Kantabriako Missak ezin izan du Espainiarako aurkeztu ama delako eta Zamarako Misterrak ere ez ezkondu-ta dagoelako. Zer iruditzen zaizkizu halako baldintzak?

Ez ditut gustuko. Emakumezkoen kasuan, gainera, diskriminazioa dago, gizonezkoak aurkezteko eta aita izan arren.

Dena den, horiek dira gaur egun dauden arauak eta kontratua sinatzeko orduan onar ditza-kezu edo ez. Ea egunen batean antolakuntza jabetzen den eta arauok aldatzen dituen.

bere ustez



Mikel Elkorobereibar

Agur, Madril, agur...

Harrituta nago ultraeskuin espainiarren azkenaldiko indar erakustaldiekin. Horko sotana, piper pote, bibotetxo, gomina, alkandora urdin, mehatxu...

Ez daukate nahikoa epaitegietan, komunikabideetan, enpresa publikoetan, eurek jarritako kideekin, eurek nahi dutena egitearekin eta orain kaleak ere eurentzat nahi dituzte. Errepublikara garai- moduan hauek nahasmena ikusten dute: erlijio mailan orduan moduan ez daude pozik, estatuaren egituraketa

"Gauzak nola doazen ikusita epaile ultraeskuindarrek erabakiko dute gure etorkizuna"

autonomikoan ere ez eta legez kanpo utzi eta deabrutu arren, oraindik ere euskal independentisten proiektua bizi bizirik dagoela ikusten dute.

Errepublikara garaiok "nahasmenarekin" bukatzeko boterea indarrez hartu zuten eta gupidarik gabe arerioak, gorri eta separatistak, suntsitu zituzten. Orduan euskal independentistak batu gabe eta Madriletik zetorrenari begira geratu ziren.

Oraingoan ez litzateke gaizki egongo guztiok batu eta minimo demokratiko batzuk adostuz Madriletik ahalik eta urrunen joatea. Bestela gauzak doazen moduan ikusita epaile espainiar ultraeskuindarrek erabakiko dute gure etorkizuna eta hor euskaldunentzat badakigu zer dagoen.

IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55


Irrintzi
kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26


UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Beregintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918



Jatetxe Gida



Azpeitxi jatetxea

Aranerrika 13 / BERGARA
943 76 55 00

Eskaintza

- Eguneko menua eta karta
- Jaunartzeak eta bataioak

Berezitasuna

- Arraina eta haragia parrillan

Domeketan, astelehenetan, martitzenetan eta eguaztenetan afaririk ez.



Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58 www.baster-aldejatetxea.com

Eskaintza

- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Astelehenetan itxita



Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE
943 79 85 33

Txinatar jatetxea

Eskaintza

- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramaten dizugu

Eguneko menua eta karta



Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita



Gure Ametsa

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

Eskaintza

- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

Astelehenetan itxita



Taberna-Berri

Durana 24-26 / ARETXABALETA
943 79 20 67 / 943 79 49 41

Eskaintza

- Menua
- Afari informalak



Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza

- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak

- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik



Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita



Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI
943 78 35 45

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak

- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandeetan itxita

DATUA

30

Udalbatzarrak osoko bilkuran onartu ostean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dute ordenantza. 30 egun egongo da ikusgai herritarrek alegazioak aurkeztu gura badizkiote. Ondoren onartutzat emango dute.

ARAU-HAUSTEAK

Zirkulazioko ohiko kontuez gain beste batzuk ere arautu dituzte ordenantzaren ondoren: oinezkoen jokabidea, zamalanak eta ingurumen arloko kontuak esaterako. Oinezkoei dagokionean zorrotz bete beharko dituzte pasabide arautuetako aginduak. Eta zehaztu dute Mitarte eta Durana kaleak oinezkoendako guneak direla. Bizikleta, monopatin, patin zein trizikloendako ere badaude arauak; bizikletek esaterako, debekatuta dute gurpil bakarren gainean ibiltzea, eta ibilgailuen seinale guztiak errespetatu beharko dituzte.

Garai udaltzain buruaren esanetan ibilgailua gaizki aparkatzea da Aretxabaletan egiten den arau-husterik ohikoena: "Espaloi gainetan uztera ohituta daude herritarrek", dio. Gainera, bide publikoan ezingo dira aparkatu: atoiak, autobusak, karabanak eta 3.500 kilotik gorako ibilgailuak.

Herria bera ere antolatu dute, eta zehaztu zeintzuk izango diren lehentasuneko bideak: Otalora, Santa Kurtz, Errekabarren, Belorrieta eta Loramendi kaleak, Araba ibilbidea eta Basabe poligonoa. Bide horietan ekitaldiren bat antolatu gura izanez gero gutxienez hilabete lehenago eskatu beharko dute baimena.

UDALAREN WEBGUNEAN IKUSGAI

Ordenantza behin betiko onartu ostean Udalaren webgunean jarriko dute herritar guztien eskura. Udaltzainek, gainera, kanpainak egingo dituzte herritarrei ahaztuta dituzten arauen gaineko argibideak emateko. Horrez gain, Garai udaltzain buruak egoki ikusten du bide-segurtasunaren gaineko ikastaroak egitea: "Nagusiekin eta eskolako umeekin egin beharko lirake batez ere, eta datorren ikasturtean hasia gura nuke".



ARAU-HAUSTEAK Automobila espaloi gainean aparkatuta Andramari auzunean. Hain justu, ibilgailua gaizki aparkatzea da herrian egiten den arau-hauste ohikoena. M.A.

UDALA > ZIRKULAZIOAREN GAINEKO ORDENANTZA

Herriko zirkulazioa arautuko duen Udal ordenantza gertu

Ibilgailua gaizki aparkatzea da herrian egiten den arau-hausterik ohikoena

Onartu ostean Udalaren webgunean jarriko dute herritar guztien eskura

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Ibilgailuen zirkulazioa arautzen duen ordenantza onartu zuen Udalbatzak martxoaren 12ko osoko bilkuran. Orain 30 egun egongo da ikusgai, eta herritarrek alegaziorik aurkeztu ezean onartutzat emango dute.

HERRIRA EGOKITUTAKO ARAUDIA

Aretxabaletan orain arte ez da egon zirkulazioaren gaineko ordenantzarik; zirkulazioaren legeak ezarritakoa aplikatzen zuten udaltzainek. Lege hori, orain, herrira egokitu dute eta araudi bihurtu. Ordenantzaren jasotako arau askok zentzuz jokatze eskatzen dute beste barik.

Beste batzuek, oster, autoeskolan ikasitakoa gogoraziko die herritarrei: "Kontu berririk ez dakar egin dugun ordenantzak, baina baliteke baten bat harritu-

ta geratzea azaltzen diren hainbat punturekin, zirkulazioaren legeak dioena ahaztu egiten zai-gulako sarritan", adierazi digu Martin Garai udaltzain buruak.

KONTUAN HARTZEKO

Udalak bideratuko ditu zigorrak 2008a ezker

2008ko urtarrilaren 1etik aurrera Udalak bideratuko ditu zigorrak beste herri batzuetan bezalaxe. Hala, isunak ez dira trafiko sailera bidaliko, Udalak berak ezarriko ditu. Trafiko arau-hausteen sailkapena jaso dute ordenantzaren arinekin 90 euroko isuna izango dute, larriekin 91 eta 300 euro artekoa eta oso larriekin 301 eta 600 euro artekoa. Jarrirako zigorrekin alegazioak aurkezteko zein bide jarraitu ere zehaztu dute. Arau-hauste batzuen ondorioz, gainera, puntuak galduko dituzte gidariek, eta horren gaineko argibideak ere jaso dituzte egin berri duten ordenantzaren.



Mitartegareai
Baseri turismoa eta taberna

- Batzar gela.
- Jangela.
- Logelak.
- Etxeko produktuen salmenta.



Areantza auzoa ARETXABALETA Tel.: 943 79 17 51



ERAIKINA Santa Kurtz kalea eta Herriko Plaza bitartean dagoen kultura eraikineko lanak bukatzen dabiltza.

M.A.

FORU ALDUNDIA > DIRULAGUNTZA

600.000 euroko laguntza kultura eraikinerako

Eraikinean liburutegia, kultura etxea eta musika eskola batu dituztelako erabaki du laguntza ematea Foru Aldundiak, eta proiektuak interes publiko eta soziala duela gaineratu du

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Kulturarako izango den eraikinerako dirulaguntza ematea onartu du oraintsu Foru Aldundiak. 600.000 euro emango dizkio Udalarari, liburutegia, kultura etxea eta musika eskola batuko dituen eraikinerako.

INTERES PUBLIKOIA ETA SOZIALA

Inbertsioen Aparteko Planaren barruan sartu dute dirulaguntza, eta hura ematea erabaki dute hezkuntza eta kulturako ekipamendu bakar eta publikoan jasoko dituelako liburutegia, kultura etxea eta musika eskola. Proiektuak interes publiko eta soziala duela ere aipatu dute diputatu nagusien kabinetetik bidalitako oharrean.

MILIOITIK GORA HORNITZEKO

Aurrera doaz Santa Kurtz kalea eta Herriko Plaza bitartean egingen dabiltzan eraikineko lanak, eta laster bukatuko dituzte Brues y Fernandez enpresako langileek. Maiatzerako daukate aurreikusita. Aurretik aipatutako hiru ekipamenduez gain, gaztelekua,

96 jarleku izango dituen erabile-ra askotariko aretoa eta erakusketak egiteko gela ere izango ditu. Horrendako guztiarendako bost solairuko eraikina, gutxira 2.847 metro koadro dituen, aurreikusitako Alberto Sanz arkitekto bilbotarrak.

Behin eraikina bukatuta, egingo dena eta aretoak hornitu egin beharko dituzte. Horretarako 1.140.617 euroko partida onartu zuen udalbatzarrak udal aurrekontuan. Zein enpresak hornitu, ostera, lehiaketa bidez esleituko du Udalak, eta oraindik ez du deialdirik egin. Hala, irailean hasiko den ikasturtea eraikin berriari hasi gura badute ere, hila-bete batzuk atzera daiteke kontua. Hala ere, ahal bezain azkar egingo dituzte lekualdaketak.

HEZKUNTZA > Q SARIA EMATEKO EKITALDIA

Zilarrezko Q saria emango diote institutuari Otaloran egingo duten ekitaldian

Institutuko langile guztiak eta hainbat enpresa eta erakundetako kideak elkartuko dira eguaztenean

M.A. > ARETXABALETAKO

Eguaztenean, hilak 28, Otalora jauregian egingo duten ekitaldian jasoko du zilarrezko Q saria Aretxabaletako institutuak. Langile guztiak joango dira, eta hainbat enpresa eta erakundetako ordezkariak ere gonbidatu dituzte.

ESKER ONEKO EKITALDIA

Aretxabaletako institutuak abenduan jaso zuen aipatutako saria. Ekitaldia Donostian egin zuten, eta institutuko zuzendari Amaia Arantzabal eta beste hamarren bat lagun bakarrik izan ziren. Eguaztenean egingo duten ekitaldian, ostera, langile guztiak elkartuko dira: irakasle, administrazioari, zaintzaile eta garbitzai-

leak: "Institutua osatzen dugun langile guztiendako ekitaldia da, esker oneko ekitaldia", argitu digu Arantzabalek. Gainera, alkatea, Mundukideko kide eta hainbat enpresatako ordezkariak gonbidatu dituzte: Copreci, Azbe, Ederlan... Lanbide Heziketako sailburorde Iñaki Muxikaren eta Euskaliteko arduradunen eskutik jasoko dute saria.

EGOERA ALDAKETA

Institutuko arduradunak oso pozik daude eskuratutako sariarekin: "Zama galanta kendu dugu gaitetik", dio Arantzabalek. Izan ere, hezkuntzari dagokionez asko aldatu da institutuaren egoera saria eskuratu ostean. "Ikasleendako ikasketez gain, langileendako etengabeko prestakuntza eta langabeendakoa ematen ditugu, baina zentro integratua izendatzeko zilarrezko Q saria eskuratu beharra genukan; eta lortu dugu".

Hala, datorren urtetik aurrera Estatuan ere zentro integratua izango da Aretxabaletako institutua.

> OSPAKIZUNA

Udaberri jaia egingo du bihar Arizmendi ikastolak, Basabeazpi inguruan

Herriko bazterrek ezagutzeko irteera eginda hasiko dute II. udaberri jaia bihar Arizmendiko kideek. Handik bueltan erakustaldia izango dute Mitarte Garai baserriko Bixente Pagoagaren eskutik, eta artilea zelan landu erakutsiko die. Jolasak egingo dituzte gero, eta buruhandiak joango dira eguerdi inguruan trikitilariekin batera. 180 lagun inguru elkartuko dira bazkaltzeko, eta udaberri sasoiko menua gertatuko diete: bildotsa eta gazta. Arratsaldean diorama eta ipuin kontaketa izango dituzte. Eta jaia bukatzeko, ikastolaren lagun den Argitxo eta udaberriko irudi izendatu duten kukua joango dira txokolatea hartzera.

> EUSKARA

Mus txapelketa egingo dute domekan, Loramendik antolatuta

Mus txapelketa antolatu du Loramendi euskara elkarteak domekarako. Urbaltz elkartearen izango da, eta ize-na emateko 15:00etatik 15:30era bitartean joan behar da. Txapelketa 16:00etan hasiko dute jokalariek.

Datorren astean, ostera, ekitaldi bi izango ditu Loramendi EEK. Eguenerako, hilak 29, helduendako antzerkia antolatu dute, eta Antzerkiola Imaginarioa taldeak *Kaputen kanta* antzezlan eskainiko du, 22:00etan. Egubakoitzean, hilak 30, film laburren emanaldia egingo da, 22:30ean. Ekitaldi biak udaletxe zaharrean dira.

EUSKARA > AURKEZPENAK

Hizkuntza politika berria proposatu dute

Batasunak egindako proposamena astelehenean aurkeztuko dute, 19:00etan, udaletxearen ganbaran

M.A. > ARETXABALETAKO

Euskaldunon eskubideekin kezkatuta dagoen herritar talde batek zera salatu gura izan du: "Euskaldunok gure herrian bigarren mailako hiztunak gara". Halaxe jakinarazi zuten joan zen egubakoitzean egin zuten prentsaurrekoan. Gaineratu zuten, baita ere, euskara gure eskubidea dela aitortuko duen legea behar dugula euskaldunok. Izan

ere, esan zuten Eusko Jaurlaritzak daukan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburua ez dela euskararen normalizazio osoa lortzea.

ASTELEHENEAN AURKEZPENAK

Hori horrela, Batasunak egin duen hizkuntza politikaren proposamena aurkeztuko dute datorren astelehenean, 19:00etan, udaletxearen ganbaran.



PRENTSAURREKOAK Egubakoitzean salatu zuten Jaurlaritzaren politika.

M.A.



BAZKIDEAK 100 bazkide inguru elkartu ziren joan zen domekan Herriko Plazako eskaileretan argazkia ateratzeko.

OSPAKIZUNA > 50. URTEURRENA

50. urteurreneko ospakizunak egin ditu Uratz Alde elkarteak

42 lagunek sortu zuten Durana kalean dagoen elkarte, eta guztira 157 bazkide inguru ditu orain, tartean bi emakume

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA
Ekitaldirik ekitaldi dabil Uratz Alde gastronomi elkarteak azken hilabeteotan; izan ere, 50 urte bete ditu. Urrezko ezteien ospakizun handiena zaindaria duen San Jose egunaren inguruan egin gura izan zuten; joan zen domekan, hain zuzen ere.

SORTZAILEEI OMENALDIA
Mokadutxoak janzten hasi zuten eguna domekan, eta ostean meza entzuterara joan ziren asko, hildako elkarteko bazkideen alde zelako. Argazkia atera zuten gero, eta 100 bazkide inguru elkartu ziren Herriko Plazako eskaileretan. Sortzaileei omenaldia egin

gura izan zieten gainerako bazkideek, eta bizirik dauden hamar lagunetik bost joan ziren ekitaldira: Juanito Urreta, Angel Arrese, Eduardo Altube, Pablo Ezpeleta eta Santiago Bengoa. Bazkaltzeko 75 lagun inguru elkartu ziren, eta Agirre eta Lazkano bertsolariak egin zieten lagun bazkalostean.

SARTZEKO 500 PEZETA

Orain dela 50 urte 42 lagun artean sortu zuten Uratz Alde. Herriko bigarren elkarteak izan zen, Muru Alde sortu eta bi urtera, hain zuzen. Eduardo Altubek jarri zion izena: "Uretza zegoen bertan, eta hortik izena", dio. 500 pezeta jarri behar zuten orduan bazkide sartu gura zutenek: "Dirutza zen ordurako, baina dena batera ordaindu beharrean epeka egiteko aukera ematen genuen", azaldu digu Altubek. Gizonen topaleku izan da urte askoan Uratz Alde. Lehen emakume bazkidea orain dela hiru bat urte sartu zen, eta bi daude orain; guztira 157 bazkide ditu elkarteak.

argazki zaharra



Loramendi ikastolako andereñoak

1968ko Gabonetan hasi zen Loramendi ikastola lanean, eta Arantza Iza izan zuen lehen andereñoa. Hasieran, baina, elizaren babesean hasi behar izan zuen lanean, debekurik izan ez zezan, eta

Nuestra Señora de la Asuncion zuen izena. 1994 arte ibili ziren umeak ikastolan. Iza andereñoaren ostean Kristina Gomez sartu zen, 1969an, eta 1976an Mari Karmen Gutierrez eta Marilu Madinabeitia.

Hirurak omenduko dituzte gaur gauean, Korrika dela-eta antolatutako afari garaian.

Argazkia: Kristina Gomez.
Testua: Kristina Gomez.
Urtea: 1970.

bere ustez



Beñat Zamalloa

Ur gainean helduta dantzan

Urkuluko ur gainean, esate baterako. Badi-ra zenbait hegazti ur gainetik ibiltzen direnak, bai eurek duten ezaugarriengatik eta baita urak dituen ezaugarriengatik ere. Izan ere, urak gainazaleko tentsioa deritzona dauka, hori dela-eta, uraren azala elastikoa da eta apurtzeko erresistentzia dauka.

Uraren azalean dantzan irudikatzen ditut euskaldunak, trebezia bereziarekin, azkar, indarrez dantza egiten; azpian duten ur masan

"Korrikak pixka batean ur gainean mantentzeko indarra emango digu"

murgiltzea saihestu nahian. Ez da erraza, ordea. Frantsez edota espainolez bizitzeko sortutako herri honetan, aise murgiltzen gara azpiko uretan, batzuk ur horietan itotzeraino murgildu ere. Ez da arraroa, ez horixe, erdaldunei begira eta erdalduentzat egindako hizkuntza politikak horretara baikararatzatza.

Korrika 15ek hartuko ditu gaur, gure herriko kale ilunak. Korrikak pixka batean ur gainean mantentzeko indarra emango digu. Euskaldunak eskutik heltzeko balio beza lasterketak. Era horretara, norbait errendituta azpiko uretan murgiltzera badoa, aldamenekoak gogor helduko dio, eta gainazalean mantenduko du. Heldu.

**BENGOA
URDAITEGIA**

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

Jou Díaz
Karakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA



ESPALOIAK ZABALDU Argazkian San Juan kalea. Espaloiak zabaldu eta zubia handitu egingo dute Bolibarrera doan kale horretan.

IKER BARANDIARAN

HIRIGINTZA > IBARRAUNDIREN INGURUNEA, SAN JUAN KALEA, BIDEGORRIA ETA BESTE LAN BATZUK

Hainbat urbanizazio-lan bidean jarriko dituzte epe laburrean

Ibarraundiren ingurunea egiteko proiektua idatzita dago; apirilean abian jarri gura dute

Bolibarrera bidean dagoen San Juan kaleko lanak onartuta daude, eta Aldundiak lagunduko ditu

IKER BARANDIARAN > **ESKORIATZA**
Astelehenean Udaleko Hirigintza batzordea batzartu egin zen udalerrian egin gura dituzten hainbat proiektu lehenengo onarpena egiteko. Asko dira batzorde horrek esku artean dituen gaiak, eta egin gura dituzten proiektuak. Horietako batzuk udal hauteskundearen aurretik abiaraziko dituzte; eta beste batzuk hurrengo legegintzaldian.

Horietako bat da Ibarraundi museoarengan ingurunearen gaineko proiektua. Eduardo Sotegi arkitektoak idatzi du proiektua, eta hasierako onarpena eman diote. Horrekin lotuta, kontuan hartu dute Ibarraundi ingurunetik San Pedro auzora

etorkizunean egin beharko dituzten loturak.

Hain zuzen ere, hurrengo legegintzaldian Udalak San Pedro auzoa berriro urbanizatzeko asmoa dauka. Horrekin eta Aranburuzabala kalea berrituz gero, hirigune osoa berrituta geldituko litzateke.

Udalaren helburua da Ibarraundi ingurunearen lanak apirilko osoko bilkuran onartzea.

AINGERU GUARDARA BIDEGORRIA
Bestalde, Sorautz eta Aingeru Guarda bitartean bidegorria egiteko hitzarmena sinatu dute Aldundiarekin. Aldundiak ziurtatu du gutxienez 600.000 euro emango dituela lan hori egiteko. Hala ere, lanek 1.200.000 euroko

kostua izango dutela jakinarazi du Udalak. Horregatik, Udala finantzazio gehiagoren bila dabil. Aldundiari edo Jauriari-

tzari, Izartu programaren bidez, diru gehiago eskatuko die.

Berbagai eta eztabaidagai izan zuten beste proiektu bat izan zen San Juan kalea egokitzeara. Dagoeneko onartuta daude kale horretako espaloia zabaltzeko eta zubia handitzeko egingo diren lanak. Lan horiek egiteko ere Aldundiaren laguntza jaso dute.

LUIS EZEIZAKO GERORAKO

Bestalde, Hirigintza batzordeak erabaki du Luis Ezeizaren atzealdean egin beharreko lanak datoren legealdirako uztea. Hau da, Zubiateko labea dagoen eraikinaren arteko oztopoak kentzea, eta bi horiek lotzea.

ETXABEAK ETXEBIZITZA

Gaiez aldatuz, Hirigintza batzordea aztertzen dabil etxabeak etxebizitza bihurtzeko ordenantza aldatzea. Hala, Udalak eta Etxebidek egingo dute etxabeen salmenta guztietan bitartekari lana. Horrez gain, etxabe horiek guztiek babestutako erregimena izango dute.

PROIEKTUAK BANAN-BANAN

> IBARRAUNDIREN INGURUNEA

Museoarengan ingurunea urbanizatu eta oinezkoentzako pasealekua egingo dute. Eta San Pedro auzoarekin loturak egingo dituzte.

> BIDEGORRIAREN TRAMU BAT

Sorautz eta Aingeru Guarda bitarteko bidegorri tramua egiteko asmoa dute, Aldundiaren laguntzarekin.

> SAN JUAN KALEA EGOKITU

Bolibarko bidean dagoen San Juan kalean espaloia zabaldu eta zubia handitu egingo dute.

> LUIS EZEIZAREN ATZEALDEA

Luis Ezeiza eskolaren atzealdea eta Zubiate labea kokatuta dauden etxeen artean lotura zuzena egiteko lanak bideratuko dituzte.

> AISIALDIA

Aldundiaren udalekueetan izena emateko epea zabalik

Gipuzkoako Foru Aldundiak abian jarri du 2007ko udalekueetan izena emateko kanpaina. 7 eta 13 bitarteko gaztetxei zuzenduta dago, eta egonaldia honako herrietan egingo dituzte: Zuhatza, Zarautz, Plentzia, Orrio, Lizarra, Zestoia eta Astiz.

Izena ematen duten guztien artean zozketa egingo dute. Izena emateko epea atzo, eguena, zabaldu zuten eta azkeneko eguna apirilaren 4a izango da.

Interesatuak hiru bide dituzte izena emateko: www.gipuzkoa.net/oporraldi webgunea; gazteria@eskoriatza.net e-posta; edo Gazteria Zerbitzura jotzea, martitzene-tik eguenera bitartean.

> MUSIKA

Musika Eskolako Bandak kontzertua egingo du zapatuan

Bihar, zapatua, Eskoriatzako Musika Eskolako Bandak Udaberriko kontzertua egingo du. San Pedro elizan izango da, 20:00etan.

Bandak urtero egiten du emanaldi bat udaberriari ongiro egiteko. Aurten 35 musikariek esku hartuko dute kontzertuan.

Honako piezak eskainiko dituzte jendaurrean: R. Roigen *La gracia de Dios*, F. Von Supperen *Caballeria ligera*, Trevor J. Forden *D'schangflöppen*, John Smithen *Zaporozsky*, eta Piet Swrtsen *Shirim*, hain zuzen ere.

Musika Eskolako Bandak hainbat kontzertu egiten ditu urtean zehar. Batez ere jailetan aritzen da, eta tarteka irteera batzuk ere egiten ditu.

> KIROLA

Saskibaloi eta areto futbol norgehiagokak izango dira domekan

Etzi, domeka, hiru norgehiagoka izango dira herriko kiroldegian. Hortaz, kirol zaletuak gustura egoteko moduko domeka izango da. 16:00etan, saskibaloiko neska kadeteek Zarautz Kirol Elkartea izango dute aurkari. Saskibaloiarekin jarraituta, gazte mailako neskek, berriz, Internacional taldearekin lehiatuko dira. Norgehiagoka hori ere 16:00etan egingo dute.

Bestalde, areto futbolari dagokionez, izango da zer ikusi domekan kiroldegian. Euskal ligako taldeak Astraburuko izeneko taldea izango du aurkari. Norgehiagoka hori 18:00etan izango da.



PAISAIK Herri guneko eta elizateetako paisaiak margotuko dituzte. Argazkian, Apotzaga.

IKER BARANDIARAN

LEHIAKETA > AIRE ZABALEKO MARGO LEHIAKETA

Etzi, domeka, aire zabaleko lehen margo lehiaketa egingo dute

09:00etatik 14:30era bitartean egingo dute lehiaketa eta zazpi sari banatuko dituzte, adinaren eta jatorriaren arabera banatuta

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Ibarraundi museoko arduradunek guztia prest dute domekan egingo duten lehiaketarako. Hain zuzen ere, Eskoriatzako aire zabaleko I. margo lehiaketa egingo dute, eta lehiaketak jakin-min handia piztu du.

Jose Mari Agirre Zenitagoia margolaria ibili da antolatzaile lanetan, eta Euskal Herrian halako beste lehiaketarik ez dagoen eguna aukeratu dute.

60 MARGOLARI GONBIDATUTA

Are gehiago, Euskal Herriko eta Espainiako hainbat herrialdeetako 60 margolari ezagunak bidali dizkiete. Batzuek jakinarazi dute Eskoriatzara joango direla, baina egunera arte askok ez dute konfirmatuko.

Kanpotarrez gain, antolatzaileek uste dute Eskoriatzako eta oro har Debagoieneko margolari askok emango dutela izena.

Interesatuak herriko plazara jo beharko dute 09:00etatik 11:00etara bitartean. Han, antolatzaileek oihalei ziguiluak jarriko dizkiete, eta margolariak kalea irtengo dira margotzera. 14:30ak arte izango dute horretarako aukera, ordu horretan lanak Ibarraundin aurkezteko epea bukatutzat emango dute-eta.

rako aukera, ordu horretan lanak Ibarraundin aurkezteko epea bukatutzat emango dute-eta.

ZORTZI ADITU EPAIMAHAIAN

Bestalde, zortzi adituk osatuko dute epaimahaia: Jose Mari Agirre Zenitagoia eskoriatzarra, Angel Guenaga eibartarra, Richard Perez bilbotarra, Koldo Gojenola eibartarra eta Naiara Errasti, Lourdes Umerez eta Patxi Magu eskoriatzarrak. Guztiak margolari, diseinatzaile eta irakasle ezagunak dira. Horrez gain, Turismo eta Ondare Saileko zinegotzi Juan Luis Merinok Ibarraundi museoa ordezkatuko du.

ZAZPI SARI BANATUKO DITUZTE

Lehiaketaren gaia da *Eskoriatza eta elizateak*, eta teknika librea izango da. Epai domekako 18:30ean emango dute aditzera, eta zazpi sari banatuko dituzte: lehenengoa, 600 euro; bigarrena, 360 euro; hirugarrena, 240 euro. Gai nontzeko hirurak, berriz, 16 urte-tik beherakoendako izango dira: 150 euro, 60 euro eta 30 euro. Horrez gain, herriko lan onena 150 euroekin sarituko dute. Plaka bana ere jasoko dute guztiek.

Lehiaketan esku hartuko duten margolari guztiek bazkaria izango dute Toki Alai jatetxean, 14:30ean.

Horren ostean, 17:00etan epaimahaia Ibarraundin batuko da; eta 18:30ean sari banaketa egingo dute leku berean. Ekitaldi horretan, alkatea, eta Kultura Saileko eta Turismo eta Ondareko zinegotziek esku hartuko dute.

MARGOLANEN ERAKUSKETA

Domekatik apirilaren 15era bitartean lehiaketarako egindako margolan guztiak Ibarraundin ikusgai egongo dira. Egunero egongo da zabalik: aste barruan eta domeketan goizez eta arratsaldez; eta zapatuetan arratsaldez.

HAUTESKUNDEAK > ORAIN BAI ESKORIATZA

Ezker Abertzalea eragileekin batuko da lan ildoaz zehazteko

Hauteskundeetara aurkeztuko dira, eta webgunea egin dute ekarpenak jasotzeko

I.B. > ESKORIATZA

Joan den zapatuan, Eskoriatzako Ezker Abertzaleak herri batzarra egin zuen Ibarraundi museoan, herritarrei ziurtatzeko maiatzeko udal hauteskundeetan egongo dela. 100 lagun inguru batu ziren ezker abertzalea hauteskundeei begira egiten dabilen lanaren gaineko aurkezpena egiteko.

HERRIKO ERAGILEEKIN

Lantalde handia dute buru-belarri lanean datozen lau urteotan Udalean egin gura dituzten ekintzen gaineko lan ildoaz osatzeko. Hala, udalerraren egoeraren gaineko diagnostia osatu dute, eta orain herriko eragileekin elkartzeko asmoa daukate. Hain zuzen ere, hainbat gai aztertu dituzte, hala

nola ingurumena, gazteria, kultura, merkataritza, aukera berdintasuna, gizarte gaiak, elizateak eta beste.

HERRITARREN EKARPENAK

Behin herriko eragileekin elkartu ostean, ezker abertzaleak egindako diagnostia kontrastatu eta osatu egingo dute. Eta horrekin, hemendik aurrerako lan ildoak zehazten joango dira.

Horrez gain, interesa duten herritarren ekarpenak jasotzeko, www.orainbai.info webgunea abiarazi dute. Webgune horretan herritarren ekarpenak, albisteak eta abar batuko dituzte.

Lan ildoak zehaztearekin bat, zerrendagaiak jakinaraziko dituzte etorkizunean.



HERRITAR ASKO 100 bat lagun elkartu ziren herri batzarrean.

ORAIN BAI

DE LA TORRE
igeltserotza

*Erreformatzaren orokorrean
Gremioen koordinazioa*

Intxaurtxueta 7 2-D
20540 Eskoriatza
Tel.: 943 71 52 64 / 639 76 29 27



Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

EUSKALGINTZA > EHE-REN LANA IKUSGAI

Euskal Herrian Euskaraz-ek bihar zabalduko du erakusketa Olaranen

Euskal Herrian Euskaraz taldeak egiten duen lanaren gaineko informazioa herritarren artean ezagutarazi nahi dute erakusketarekin

AINZANE IRIZAR > ANTZUOLA
Zapatuan eta domekan, hilak 24 eta 25, egongo da zabalik Euskal Herrian Euskaraz taldearen erakusketa, Olaran etxean; ordutegia, honakoa: 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:00etara.

Zazpi lan-ildo nagusitan jarduten dute lanean EHEkoek: osasuna, justizia, irakaskuntza, lan mundua, ezagutza, Udala eta hedabideak. Asteburuko erakusketan, horietako alor bakoitzeko panel bat jarriko dute, egiten duten lanaren berri emateko. Euskal Herri osoan dabil erakusketa hori, herriz herri.



BI URTE 2005ean, Antzuolako EHE aurkeztu zuteneko irudia.

GOIENKARIA

OSASUN ETXEA, LEHENTASUNA

Orain dela bi urte pasa sortu zuten Antzuolako EHE taldea, hamar bat herritarrek. Orduan,

herrian euskaraz zuen egoeraren azterketa egin zuten taldekideek; horrelaxe azaldu digu Oier Peñagarikanok, Euskal Herrian

Euskaraz-eko kideak: "Antzuolako osasun etxeak ez ditu bermatzen herritarren hizkuntza eskubideak eta horixe izan da gure

jardunbide nagusia; osasun etxea euskalduntzeko lanari eman diogu lehentasuna bi urte hauetan". Besteak beste, horixe eskatzeko, osasun etxeak hizkuntza eskubideak errespetatu dituzela, alegia, sinadurak batzen jardun zuten; 400 herritarrek eman dute sinadura. Orain, sinadurok agintariei bideratzeko asmoarekin dabilta.

ATEAK ZABALIK

Esan bezala, orain dela bi urte pasatxo, hamar bat lagunek osatu zuten taldea. Dena dela, atek zabalik dituzte euskaldunon hizkuntza eskubideen alde lan egin nahi duen edonorendako. Taldekide izan nahi dutenek aukera paregabea dute asteburuan; izan ere, Oier Peñagarikano bera erakusketan bertan egongo da eta nahikoa da harengana jotzea.

Aipatzekoa da, azkenik, herrian egin dituzten hainbat ekimenetan ere parte hartu izan duela EHEk. Orain, esaterako, Korrikaren batzordean jardun dute.

PILOTA > EKAINEAN AMAITUKO DA TXAPELKETA

Hamaika bikotek eman dute izena Herri Mailako Eskuz Binakako Pilota Txapelketan

Aurten lehenengo aldiz udaberrirako antolatu du txapelketa Olalde elkarteak; oraindik ez dute erabaki noiz hasiko den


A.I. > ANTZUOLA

Urtero antolatzen du Herri Mailako Eskuz Binakako Pilota Txapelketa Olalde elkarteak. Orain arte, neguan jokatu izan dute, baina aurten erabaki dute udaberrirako antolatzea, parte-hartzaileek halaxe proposatuta.

Martxoaren 31n edo apirilaren 21ean hasiko dituzte partiduak eta ia astero izango ditugu, ekainera arte. Oraindik ez dute egutegirik zehaztu.

HAMAIKA BIKOTE

Guztira, herriko hamaika bikotek eman du izena aurtengo txapelketarako. Hona hemen parte hartuko dutenen zerrenda: Andoitz Aranburu eta Iker Irizar; David Martin eta Jon Pagaldai; Juan Simon Aristi eta Jose Manuel Aranburu; Patri Bidelu-



PARTIDUAK Irudian, iazko txapelketako partidu bat.

GOIENKARIA

GRAVN TXAPELKETA

Bestalde, gaur, egubakoitza, 19:00etan, GRAVN (Gipuzkoa, Errioxa, Araba, Bizkaia eta Nafarroa) txapelketako partiduak jokatu dituzte: Gipuzkoa Bizkairen aurka. Aitor Mendizabalek eskuz binakako partidua jokatuko du, gazteen mailan.

> UDALA

Gizarte laguntzaile lanpostua betetzeko deialdia egin du Bideberri Mankomunitate sortu berriak

Antzuola, Elgeta eta Leintz Gatzagako udalek Bideberri Mankomunitatea sortu berri dute. Mankomunitate horren helburua da hiru udalotako ongizate batzordeek elkarrekin lan egitea, lan hori eraginkorragoa izan dadin. Horrekin lotuta, gizarte laguntzaile berria kontratatuko dute. Egun erdiz lan egingo du, txandaka, hiru herrietan. Oraingoz, urtebeterako lan kontratua egingo diote. Baldintza orriak jaso daitezke hiru udaletan. Martxoaren 30era arte (12:00etan) dago aurkezteko aukera.

> ONDAREA

Errukizko Amaren parrokia eraberritzeko proiektua jendaurrean aurkeztuko dute

Datorren egunean, martxoak 29, herritarren aurrean aurkeztuko dute parrokia eraberritzeko egin duten proiektua. Olaran etxean izango da aurkezpena, 20:00etan. GOIENKARIAN azaldu genizuen moduan, batzorde bat sortu zuten eraberritze lanak bultzatzeko; eliza barrutik zein kanpotik eraberrituko dute eta batzordeko kideen asmoa da aurten hastea lanekin. Horren guztiaren berri emango dute egunean, argazkiekin lagunduta. Diruz laguntzeko zein bide erabili ahal diren ere azalduko dute.

> ELKARTASUNA

Oporrak Bakean 2007 programan parte hartu nahi dutenek izena emateko aukera dute

Aurten ere Saharako umeak etxean hartzeko Oporrak Bakean programa antolatu du Bergarako Bubisher elkartasun taldeak Antzuolako Udalarekin batera. Parte hartzeko interesa dutenek jo behar dute Udalera, Gizarte Zerbitzuetara, izena ematera edo Bubisher elkarteko kide Elsa Mansori deitu, 670 41 76 07 telefono zenbakira. Apiril bukaera arte dago izena emateko aukera. Udan etorriko dira saharar umeak eta hementxe pasatuko dituzte uztaila eta abuztua.

bere ustez



Eduardo Zubiaurre

Sinesmenaren indarra beharrezko

Gizakiok gogo biziz aritu eta aurrera egin ahal izateko beharrezkoa omen dugu ziurtasun maila baten jabe izatea. Eta hori zer-baitetan edo norbaitengan sinestetik bakarrik lortu dezakegu: Jaungoikoarengan, hil ondorengo bizitzan, Big Bang-aren bitartez sortutako unibertsoan edo gizakion arrazoitze-ko ahalmenean. Baina era berean, gure sinesmena indartu eta biziberritzeko, beharrezkoa ere badugu sinesmen jakin horren ondorioak baliagarri eta onuragarriak direla

"Esan zidan berak ez lukeela inoiz bizilekua aldatuko lagunak gertu behar zituelako"

etengabe baieztatzea. Gai honi buruz nik neuk behintzat badut eguneroko baieztasun dudak uste bat: norberaren beharrak ahaztu gabe norberarengandik at dagoen zer-baitengan sinesten ez duenak ezinezko duela bizitzan garrantzitsua den horretan aritzea; hau da, biziari geroa bermatzea zoriontsu izanez eta ingurukoak izan daitezten lagunduz.

Bere burua sinestuntzat dutenak bakarrik ikusten ditut nik aipatutako zeregin horiek egiteko gai. Eta oso zaila gertatzen zaidana zera da, arrazionalismo hutsean bizi nahi duten agnostiko horiek zoriontasuna lortu eta espezie bezala aurrera egiteko gauza direla sinestea.

112
SOS DEIAK



OINAZTUAK Iberdrolako langileek behin eta berriz etorri behar izaten dute erretako fusibleak aldatzera.

L.Z.

OINAZTUAK > DOMINGO ITURBEKO ETXE BERRI BATEN TEILATUA ERE ERRE DUTE ASTEON

Transformadoreei kalte egin diete oinaztuek

Aste honetan ere argi barik egon dira Udaletxetik gorako hainbat etxe oinaztu batek bi transformadoreko fusibleak kaltetu dituelako

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Aste honetan ere behin baino gehiagotan joan da argia herrian. Martitzen goizean hiru bat orduz egon dira argi barik udaletxe gorako hainbat etxe. 09:00etan gogor jo zuen oinaztu batek eta ondorioz bi transformadoreko fusibleak hondatu zituen. Iberdrolako langileek denbora behar izan zuten matxura aurkitu eta egoerari konponbidea emateko.

Ez da hilabete gauza bera gertatu zela. Orduan oinaztuak transformadore osoa erre zuen. Zer gertatzen da? Zergatik dugu neguoro arazo bera argindarrarekin?

TXIMISTORRATZA KANPANDORREAN

Elizaren kanpandorrean dago Elgetako tximistorratza. Patxi Basauri alkateak GOIENKARIA-ri adierazi dionez ehun metroko estaldura dauka. Horrek esan

nahi du ez duela herri osoa hartzen. Hala eta guztiz ere Basauriri ez zaio normala iruditzen egunotan argiarekin herrian izan diren arazoak. "Iberdrolari azalpenak eskatuko dizkiogu", esan du. "Txostena aurkezteko eskatuko diogu".

Herrian, uneotan, garabi eta aldarnio ugari daude. Litekeena da horiek ere eragina izatea oinaztuak erakartzeko garaian.

ZUHAITZ EGUNA > APIRILAREN 1EAN

Umeei 30-40 pago landatuko dituzte Egoarbitza inguruan

Basoko langileek dagoeneko prestatu dute lursail bat Egoarbitzan

L.Z. > ELGETA

Maya Ingurumen elkarteak eskatuta Elgetako Udalak Zuhaitz Eguna antolatuko du aurten. Apirilaren 1ean egingo da Zuhaitz Eguna eta, gehienbat, herriko umeei zuzendutako ekintza izango da.

Egoarbitza inguruan dagoeneko prestatu dago 30-40 pago landatzeko lursaila. Basoko langileek egunotan aritu dira Egoarbitzan garbiketa lanak egiten. Zuhaitzen landaketa modu egokian egiteko ere lursaila mar-

katuta utzi dute gainera. Hitzordua eginda dago dagoeneko. Landaketan parte hartu nahi duten guztiek herriko plazara agertu behar dute apirilaren 1ean, 10:00etan. Hamarretakoa eta aitzurrak Udalak jarriko ditu. Hori bai, inork aitzurra edukiz gero eramateko eskatu dute Udaletik.

SENTSIBILIZAZIOA HELBURU

Aurreko urtean ez zen Zuhaitz Egunik egin. Maya Ingurumen elkarteari, baina, garrantzitsua iruditzen zaio horrelako ekintzak antolatzea: "Txikiengan naturarenganako sentsibilitatea pizteko, lantzeko eta sustatzeko. Gero, gainera, zuhaitzak landatzeak jarraipena eskatzen du eta landatutako zuhaitzak zaindu egin behar dituzte".

11. URTEURRENA

Zazpi taldek joko dute zapatuan gaztetxean

Gaur, hilak 23, berbaldia egingo dute 21:30ean gaztetxean gainean

L.Z. > ELGETA

Aste bukaera honetan ere hainbat ekintza antolatu du Gazte Asanbladak gaztetxearen 11. urteurrena ospatzeko.

Gaur, barikua, berbaldia egingo dute 21:30ean. Gaztetxeak eta gaztetxeen egoera izango dute berbagai.

Zapatuan, sukaldaritza ikastaroa egingo dute Ozkarbi elkarteak. Gauean, berriz, kontzertu maratoia egingo da gaztetxean. Zazpi talde arituko dira 18:00etatik aurrera, Destroi eta Street Alarm taldeak tarteko.

> KONTZERTUA

Mikel Urdangarin gaur, 22:30ean Espaloia Antzokian

Musikari zornotzarrak Dana diskoa aurkeztuko du gaur, barikua, Espaloian. Urdangarin beste bost lagunekin arituko da Elgetan: Rafa Rueda (gitarra elektrikoa), Bingen Mendizabal (biolina), Saihela (bateria), Koldo Uriarte (teklatuak eta ahotsa) eta Nika (biolina). Sarrera 10 euro da.



L.Z.

Kiniela asmatu du Ormaetxeak

105 euro irabazi ditu Eneko Ormaetxeak (ezkerrean) Elgeta Futbol Taldearen kiniela. Bigarren aldiz asmatu ditu Ormaetxeak Elgetako taldearen zein Realaren emaitzak eta Iraitz Bolinagak (eskuman) eman dio saria. Asteburuko jardunaldiari dagokionez Elgetak Intxurre hartuko du zapatuan 16:15ean Unben. Zaleen babesaren ezinbestekoa izango dute jokalariek.



ZIGOITIAN Zigoitiko saioan, Manex Agirre (ezkerretik lehena) hirugarren postuan sailkatu zen; argazkian, kantuan dabilena da zortzi bider Arabako txapeldun izan den Asier Otamendi.

BERTSOZALE ELKARTEA

BERTSOLARITZA > ARAMAION FINALAURREKOA

Aramaioko saioan erabakiko dituzte bertso txapelketako finalerako izenak

Etzi, domeka, jokatu dute bigarren finalaurrekoa, 17:30ean, kultura etxean

Lehiatuko diren sei bertsolarien artean, Andere Arriolabengoak ordezkatu du Aramaio

UBANE MADERA > ARAMAIO

Etzi hitzordu erabakigarria dute Arabako Bertsolari Txapelketan: bigarren eta azkeneko finalaurrekoa jokatu dute, eta, gainera, Aramaion izango da.

Kultura etxean da saioa, 17:30ean. Sei bertsolarik lehiatu beharko dute elkarren artean.

Taldean izango da, Aramaio ordezkari moduan, Andere Arriolabengo (Aramaio, 1982).

Harekin batera, honako hauek dute hitzordua: Serapio Lopez (Baranbio, 1960), Ricardo Gonzalez de Durana (Oreitia, 1959) Oihane Perea Perez de Mendiola (Gasteiz, 1977), Juan Mari

Juaristi (Zarautz, 1959) eta Asier Otamendi (Gasteizen bizi den urretxuarra, 1971).

Lehia polita izango dela aurreikusten da, besteak beste zortzi bider (azkena 2005ean) Arabako Bertsolari Txapelketako txapeldun izan den Asier Otamendik jardungo du eta Aramaion.

ARAMAION EGIN BEHARREKOA

Honako lana egin beharko dute etzikoan: binaka, gaia emanda hiruna bertso zortziko handian; binaka, gaia emanda hiruna bertso zortziko txikian; binaka, gaia emanda hiruna bertso hamarrekotxikian; eta kartzelako lana:

bakarka, gaia emanda bina bertso doinu eta neurri librean.

Hori guztia egin beharko dute Lierni Altuna aramaioarraren gidaritzapean.

FINALA GASTEIZEN

Lehen esandako moduan, bigarren finalaurrekoa jokatu dute Aramaion. Lehenengo joan den asteburuan jokatu zuten beste sei bertsolarik, Zigoitian. Manex Agirre bertsolaria lehiatu zen orduan. Eta hamarrekotxikian hanka-sartzeren bat egin arren, hamarrekotxikian eta bakarka saio politik borobildu zituen. Hori horrela, 323,5 punturekin,

hirugarren lekua eskuratu du oraingoan, iazko txapeldun Zigor Enbeita (Abornikanoa, 1972) eta Iñaki Viñaspreren (Abetxuko, 1984) atzetik.

Hala, etziko saioan gainerako bertsolariek eskuratzen dituzten puntuen arabera erabakiko dute finalerako sailkapena. Beraz, datoen egunotan jakingo dugu Aramaio ordezkariak izango dugun aurtan.

Bada, bi finalaurrekoetatik, guztira sei bertsolari sailkatuko dira finalerako.

Finala Gasteizen jokatu dute, apirilaren 24an; Jesus Guri-di auditorioan, 17.00etan.

KULTURA > IPUIN LEHIAKETA

Datorren egunean egingo dute Txirritola Ipuin Lehiaketaren sari banaketa

U.M. > ARAMAIO

Atzo, eguna, hitzordua zuten Txirritolak antolatutako ipuin lehiaketako epaimahai-kideek: Xabier Agirrek, Txema Abarra-tegik eta Idoia Biterik. Batutako ipuinak irakurri eta onenak aukeratu behar zituzten. Izan ere, datorren egunean, martxoaren 29an banatuko dituzte sariak.

Lehiaketan parte hartzeko deia San Martin Eskolako ere egin zuten Txirritolak. Hori horrela, ipuin asko batu dituzte aurtan. Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailatan, bi ipuin; 3. mailan, 14; laugarrenean, bederatz; bosgarrenean, zazpi; eta seigarren mailan, 14. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, berriz, bi ipuin

bestarik ez dute aurkeztu. Ipuinek, oro har, maila polita dutela esan dute antolatzaileek.

Sari banaketa kultura etxean egingo dute, 19:00etan. Txirritola Euskara Elkartetik jakinarazi dute ikasturte bakoitzeko sari bana prestatu dutela. DBHri dagokionez, berriz, bi sari dituzte.

> PERTSONA NAGUSIAK

Iruzurren gaineko hitzaldia antolatu du Alaiak elkarteak

Alaiak erretiratu eta pentsiodunen elkarteak hitzaldia antolatu du, iruzurren gainekoa. Aztertu ditzate iruzur klasikoak eta baita azken urteotan nagusitzen dabilzanak ere, hala nola, estantpatxoarena, tokomotxoa, gas instalatzaile faltsuarena eta abar.

Hitzaldia iragarri dute martxoaren 27rako, 17:30ean, kultura etxean. Interesa duen edozein joan daiteke.

> OPORRAK

Zailtasunak dituzten pertsonendako turismo eta termalismo egitamua

Zailtasunak dituzten pertsonen egin ditzakete eskaerak termalismo eta turismo programan parte hartzeko. Apirilean eta maiatzen egin ditzakete, Udaleko Oinarriko Gizarte Zerbitzuetan. Besteak beste, lehentasuna izango dute %33ko elbarritasuna edo handiago dutenek eta %50ekoa baino handiago dutenek. Baina badaude beste betebeharrak ere. Informazio gehiago, Udalean.

UDALA > UDAL AURREKONTUA

Udalbatzak 427.000 euroko aurrekontua onartu du 2007rako

Inbertsiorik aipagarrienak: Etxebarri baserriko bidea konpontzeko 30.000 euro gehitzea eta Marototik ura ekartzea, 24.000 euro



GASA Orain dela urtebete egin zituzten gasaren lehen faseko lanak.

M.A.

MIRARI ALTUBE > GATZAGA

Joan zen eguenean, martxoak 15, onartu zuen udalbatzarrak 2007ko udal aurrekontua. 427.439 euroko aurrekontua da, eta horietatik 65.951 euro inbertsioak egiteko izango dira.

GASTU AIPAGARRIENAK

Aurrekontu osoa iaizkoa baino zertxobait txikiagoa da. Ohiko diru-sarrera eta gastuek igoera izan dute, baina inbertsioak dirulaguntzen menpe daude, eta horregatik izan da jaitziera. Gastu garrantzitsuenen artean ondoko biak daude: 4.400 euro taxibusaren zerbitzuarendako, hau da, %30 finantzatzen du Udalak eta gainerakoa Aldundiak; Antzuola, Elgeta eta Gatzagaren artean sortu duten Bideberrri Mankomunitatearendako 12.000 euro. Besteak beste, herriko diagnostia egiteko pertsona bat hartuko dute.

INBERTSIOAK

Inbertsioei dagokienez, aipagarriena, diru kopuruari begiratuz gero, Etxebarri baserriko bidea konpontzekoa da. 30.000 euro

gehitu dizkiote lehendik zeukatenari, eta 97.471 euro bideratuko dituzte horretarako. Izan ere, iaz egin zuten bidea konpontzeko deia, baina inor ez zen aurkeztu eta diru gehiago ematea erabaki dute berriz deia egiteko.

Gainera, Maroto iturburutik ura ekartzeko 24.000 euro aurreikusitako; San Migel parkean jolasgunea jartzeko 6.000 euro; eta beste horrenbeste autobus geltokian argiteria jartzea.

GASAREN LANAK

Gasaren bigarren faseko lanak ere hasi gura dituzte aurten. Horretarako dirua daukate gor-

deta iaztik, baina gehiago behar dute, eta oraingo ez daukate. "Eusko Jaurlaritzan egon gara, eta Aldundian ere bai horren gainean berba egiteko. Eskaerak egin behar ditugu orain, eta gero itxoin laguntzak jasotzeko", azaldu digu alkateak. Hala, ez dakite lehen faseko lanen ondoren bigarren fasekoak noiz hasiko dituzten.

Esandako lehen faseko lanak orain dela urtebete egin zituzten, baina herriko etxeetan oraindik ez daukate gasik. Urtarril bukaerarako zeukaten hitzemandak, eta atzerapenaren zergatiaren berririk ez dauka alkateak.

EGURALDIA > ELURRA

Lan handia izan du herriko traktoreak elurra kentzen

Martitzen arratsaldean eta eguaztenean, egun guztian geratu barik ibili zen lanean bideak garbitzen

M.A. > GATZAGA

Iragarrita egon arren ezustean hartu gaitu elurra asteon, eta nahiko buruhauste sortu ditu errepide nagusian eta bigarren mailako bideetan. Gatzagako traktorea geratu barik ibili da lanean, eta Udaleko langileek eta zinegotziek ahalegin handia egin dute bideak garbi egon daitezen.

ELUR BIGUNA

Martitzen arratsaldean hasi ziren lanean traktorearekin: "Horri eskerrak ez zegoen horrenbeste eguazten goizean", azaldu digu Jon Sasiain zine-

gotziak. Eguaztenean, 06:00etarako martxan zeukaten berriro, eta Gatzaga herrira doan errepidea eta baserrietara doazen bideak garbitzen ibili ziren: "Garbitu garbitu genituen, baina elurra egin ahala geratu egiten zen eguerdira artean". Izan ere, urtarrilean baino elur gehiago egin du oraingoan. Hala ere, ez du izotzik egin, eta, orduan ez bezala, elur biguna izan da bazterretan pilatu dena.

KORRIKAREN ZAIN

Eguraldi hotz eta narrasa egokitu zaio Korrikari lehen egunetan. Eta gatzagarrak beldur ziren egubakoitzean zein giro izango ote zuten: "Elur biguna dago, eta gure itzaropena egubakoitz gauerako handiena behintzat kentzea da", adierazi zigun Sasiainek eguaztenean. Korrikaren inguruan antolatutako ekitaldiak, behintzat, egingo dituzte, eta zalantza barik ongiatorri beroa egingo diote lekukoari.

> KZGUNEA

Astelehenean ideien gaineko ikastaroa egin, eta gero oporrak hartuko ditu apirilaren 23a arte

Aste Santuko oporrak hurrean ditugula eta *ViaMichelinekin bidaiatu* izeneko ikastaroa antolatu dute KZgunean astelehenerako, hilak 26. 11:00etatik 12:00etara egingo du ikastaroa Aitor Madrid arduradunak, eta euskaraz izango da. Gainera, goiz guztian egongo da Madrid KZgunean, herritarren zalantza eta kezak argitzeko.

Oporrak hartuko ditu asteleheneko ikastaroa egindakoan Gatzagako KZguneak, eta apirilaren 23a arte ez da besterik egongo. Apirilekoak *Kontsumitzailea sarean* dauka izena, eta indarrean dagoen legeria eta kontsumitzaileek dituzten eskubideen oinarriko azalpenak emango ditu Madridek, 18:00etatik 20:00etara.

'Asteleheneko Goienkaria', Debagoieneko kirol taldeekin

Aloñamendi Kirol Elkarteko pilota saila 06-07 astelehen honetan, Asteleheneko Goienkaria-rekin

Debagoieneko kirol taldeen posterrak argitaratzen dihardu astero *Asteleheneko Goienkaria*-k.

Oraingo astelehenean, martxoak 26, Aloñamendi Kirol Elkarteko pilota sailarenak argitaratuko ditugu. Saileko taldearen argazkia handiz eta jokalarien izen-abizenak jasoko dituzu, erdi-erdian, koloretan.

Ez galdu aukera eta eskuratu *Asteleheneko Goienkaria*.





BIGARREN IGOERAN Askotan gertatu den moduan, litekeena da Gorlako bigarren igoera izatea erabakigarria.

ZIKLISMOA > GORLAKO IGOERA

Txirrindulariak deseatzten daude eguraldiak hobera egin dezan

Eguraldia zela-eta, orain dela bi urte antolatzaileek ibilbidea laburtu egin behar izan zuten

Domekarako, baina, eguraldiak hobera egingo duela iragarri dute adituek

XABIER URTZELAI > BERGARA

Eta eguraldiko adituek asmatzen ez badute ere, ibarreko 23 urtez azpiko txirrindulariek ez dute birritan pentsatuko, domekan irteera puntuan izango dira (10:00), Gorlako igoera da-eta amateur mailan dagoen lasterketa garrantzitsuenetakoa. Lasterketak 33 urte egingo ditu aurten, eta Gorlan nagusitu diren txirrindularietatik, 26 lagunek profesional mailara egin dute salto. "Nik ez nuen uste horrenbeste zirenik,

baina hala dator egunkarrietan", esan digu antolatzaile lanetan dabilen Pello Garitanok. Bergarako udaletxean harrapatu dugu, domekarako dena prestatu nahian: "Errepideak garbi egongo dira, baina baliteke Gorlako bazterretan elurra egotea. Hala, Udalarari edo Diputazioari hango bazterretan apur bat garbitzeko eskatu gura diogu, lasterketan ibiliko diren autoendako".

90 kilometro izango ditu aurretengo probak. Lehenengo kilome-

troak giharrak berotzeko aproposak izango dira -Elorregitik Zubillagara eta buelta-. Hala, orduan egingo dute Gorlako lehenengo igoera (41. kilometroa), 11:00ak aldean. Azkoitia-Aizpurutxo jaitzita tropelak Deskarga igoko du, berriro ere Bergarara jaitzi eta bigarren igoerari ekiteko: "Bali-teke hor erabakitzea nork irabaziko duen", esan digu Valladolideko itzulian lan ona egin eta laugarren sailkatu berri den Unai Arantzabalek (Bidelan): "Gorlako lehenengo igoeran taldetxo batek aurrera egin dezake, baina bigarren igoeran erabakiko da lasterketa".

GEHIENAK GORLAN

Debagoienean hamar ziklista ditugu kategoria horretan: Asier Penabadi, Joseba Mugurutza, Kepa Varela, Unai Arantzabal, Gurutz Larrea, Eddy Perez, Joseba Itziar, Ander Nafarrate, Antxon Andua-

ga eta Hilario Cordero.

Antxon Anduaga min hartuta dabil, eta Eddy Perez Santanderrera joan da bizi izatera, Azpiru taldean jarraitzerik ez zeukala ikusita. Gainontzeko lasterkari gehienak, baina, Gorlan izango dira domekan; hori esan digu Suminam-Koplad-Uni2 taldean dabilen Ander Nafarrate arrasatearrak: "Nire taldea bizkaitarra da, eta zapatuan Laukizen daukagun lasterketari ematen diote garrantzi handiagoa. Nik, baina, Gorlan ere ondo korritu gura dut". Unai Arantzabalek eta Hilario Corderok ere baieztatu digute Gorlako *dobletea* egitera etorriko direla.

Eguraldi txarraren ondorioz, orain dela bi urte negarrez ikusi genituen tropeleko gazteenak, gorputza gogortuta, bizikletatik jaitzi ezinda; orduan ez zegoen bromarik, eta hori ez errepikatzeke desiatzen daude guztiak.

> ARETO FUTBOLA
Imanol Ramos, Euskadiko selekzioarekin

Martitzenean abiatu zen Euskadiko areto futbol selekzioa Viveirora (Galizia), Espainiako Txapelketa jokatzera. Eta, talde horrekin lehiatuko da Eskoriatza taldeko Imanol Ramos atezaina.

Euskadik kontrario gogorak izan ditu aste barruan jokatu behar zuten txapelketan: Valentzia, Extremadura eta Gaztela-Mantxa. Gaur arratsaldean (17:00) jokatuko dute azken norgehiagoka, iazko txapelkunaren kontra.

> FUTBOLA
Rekartek gauzak argi esateko eskatu dio Realeko zuzendaritzari

Liga txapelketako 24 jardunalditaz lehenengo 20 partiduetan Arrasateko futbol jokalaria titular izan da Realean. Orain, baina, Rekartek ahulkian jarraitzen ditu taldekideen gorabeherak. 22 norgehiagoka jokatzeko baditu, automatikoki berrituko du Realearekin, eta hor dago arazo. Hala, Arrasatekoak klubari eskatu berri dio gauzak argitzeko, eta aurrez aurre berba egiteko.

> SASKIBALOA
Mugarri Alkesak liderra hartuko du etxean: Consmetal

Igoera fasean lehenengo postuan dagoen Consmetal izango da bihar arratsaldean Iturripen (18:00).

Joan den asteko albiste pozgarria Mugarri Alkesaren atzetik datorren Baskoniak eman zuen, talde horrek galdu egin zuen-eta Paduraren kontra, etxean (79-81). Arrasateko taldeak, berriz, erraz menderatu zuen Tabirako Baque (73-95). Mugarri Alkesa gauza da liderra ere mendearen hartzeko.

> MAHAI FUTBOLA
Abian da BTL57-k antolatutako txapelketa

Debagoieneko hainbat tabernatan jokatu dute bigarren Mahai Futbol Masterra. Hala, taberna bakoitzean egingo duten ligaxkako onenak uztailaren 7an Agorrosinen jokatu dituzten finalerako sailkatuko dira.

Euskal Herriko Mahai Futbol Federazioak mahai futbola bultzatzea du helburu, eta txapelketan parte-hartzea bultzatzeko sari ederra jarri dute: Mercedes 400 SE autoa edo 5.000 euro.

Saheuru gomendatua. Mondeo Futura X TDCI 115zp
Prever plana, BEZa, garraioa, sustapen deskontua eta kontzesionarioaren ekarpena bame.

EGUN BUKATZEN ARI DIRA
URDINAK

ETA ORAIN 960€ eraman ditzazu Plan Prever bikoitzarengatik

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g ARRASATE

Feel the difference

FORD MONDEO x 19.200€

- TDCI motorra
- Abiadura kontrola
- 6CD-ko Sony irratia
- Aire-Klimatizagailua
- Bluetooth-a eta ahots bidezko kontrola

BESTE LASTERKETA BATZUK

Uzarragako igoera, zapatu arratsaldean

Zapatu arratsaldean egingo dute Antzuolan Uzarragako 32. igoera. Gazte mailako lasterkariak hartuko dute esku proba horretan, eta, kanpoko talderik etortzen ez bada, antolatzaileek espero dute 100 txirrindulari inguru batzea, 14-15 taldetan banatuta.

16:00etan hasiko dute 81 kilometro izango dituen lasterketa. Ibilbidea dagokionez, ziklista gazteek Antzuolatik Bergarara egingo dute, Elorregitik Zubillagara egiteko eta buelta Antzuolara. Ibilbide horri hiru itzuli eman eta gero, hirugarren itzuliaren bueltan Uzarragako maldak izango dituzte aurretik. Antzuolako lasterketa denboraldiko laugarrena da; Eibarren, Errenterian eta Azpeitian izan dira aurretik.

FUTBOLA > GONTXA TALDEAREN AURKEZPENA

"Ez gaude festetarako, baina polita da lagunaren babesa izatea"


Gaur arratsaldean aurkeztuko dute Gontxa Taldea, Arrasateko Herriko Plazan. Hala, Atotxan min hartu zuen Mikel Otxoa arrasatearra omentzeko ekitaldia ere izango da

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Mikel Gonzalez Realeko jokalariek gaur arratsaldetik aurrera izango du jarraitzaile talde ofiziala: Gontxa Taldea, hain zuzen ere. 19:00etan hasiko dute ekitaldia, dantzari, trikitalari eta bestelakoekin. Gainera, Realeko hainbat aurpegi ezagunek lagunduko diote Mikeli, Sanseko hainbat jokalarirekin batera Mikel Labaka, Aitor Lopez Rekarte eta Jon Ansotegi etorriko dira-eta Arrasatera.

"BESTE EGOERA BATEAN..."

Hori da Gonzalezek aipatu diguna, horrelako ekitaldi batez gozatzeko hobe izango litzatekeela taldea beste egoera batean egotea: "Baina gauden egoeran gaude, eta polita izaten da lagunak babestu egiten zaituztela ikustea. Egia esateko, ez gaude jai giroan ibil-



MIKEL GONZALEZ Hasierako hamaikakoan jokatzen hasi zenean egon ginen Mikel Gonzalezekin GOITBn.

X.U.

tzeko, baina aste bukaeran ez dagoenez jardunaldirik, gozatu egingo dugu lagunartean egoten".

Partiduek aurrera egin duten neurrian Reala geroago eta behe-rago ikusi dugu; egoera horretan,

baina, Mikel Gonzalez izan da atzealdean sendotasun handien erakutsi duen jokalarietako bat. Azkeneko partidua zigortuta egin zuen eta Levanteren kontra itzultzeko desatzen dago: "Levante, Espanyol eta Betis izango dira

hurrengo aurkariak eta irabazteko moduko partiduek dira. Orain, baina, datorren domekako norgehiagoka da garrantzitsua, nahiz eta askotan esaten dugun hori. Ezinbestekoa da Levanteri etxean irabaztea".

Otxoa eta Letamendi 55. sailkatu dira Pierra Mentako proban

Euskadiko mendiko lasterketen txapelketa amaituta, munduko mendi lasterketa eder eta gogorrena prestatzen ibili da Oñatiko bikotea: Alpeetako Pierra Menta. Hala, Arkaitz Letamendi eta Aitor Otxoa 55. postuan sailkatu dira, lau etapako proba egiteko 13 ordu eta lau minutu erabilita. Sailkapenari begiratuta, Oñatiko bikotea oso erregularra izan da lau egunetan zehar. 59. lekuan sailkatu ziren lehenengo etapen, 67. postuan bigarren etapen, 50.ean hirugarrenean eta 48.ean laugarrenean.



AITOR OTXOA

> PILOTA

Partiduek ikusgai, gaur, Bergaran, Elgetan eta Aramaion

Oraingo asteburuko hitzordu nagusia domekan jokatuko duten finala izango bada ere, Aspek pilota jaialdia antolatuta du gaur gauerako (22:15).

Capellane eta Lasa IIIak Chafee eta Barriolaren kontra neurtuko dituzte indarrak. Buruz buru, berriz, Lascurainek eta Urberuagak jokatuko dute Bergaran.

Bestalde, Elgetako Lau Terdiko Txapelketa barruan, gaur, bihar eta etzi pilota partiduek jokatuko dituzte Elgetan eta Aramaion. Gaur 21:00etan hasiko dituzte norgehiagokak, bai Elgetan eta baita Aramaion ere.

> ARETO FUTBOLA

Laugarren dagoen Astraburukoren bisita Intxaurtxuetan

Joan den astean Euskal Sofa Interren kantxan 4-0 galduta, emaitza hori lehenbailehen ahaztu eta Eskoriatzako mutilek ligako zazpigarren garai-pena erdietsi gura dute asteburuan. Aurrean, baina, ez dute kontrario makala izango, sailkapenean laugarren postuan dagoen Astraburuko izango da-eta Intxaurtxuetan -lehenengo itzulian 5-3 nagusitu ziren bizkaitarrak-.

Txapelketa amaitzeko zazpi jardunaldiren faltan, Eskoriatzak 12. lekutik gora egin behar du, lasaitasun handiagoa ematen duten postuak bilatu asmoz.

> ZIKLISMOA

Antzuolako zikloturistek arropak aterako dituzte

Antzuolako zikloturista taldeak arropa berriak egin gura ditu, eta deia zabaldu dute, arropa horiek erosi gura duten txirrindulariei aukera emateko.

Martxoan zehar, Antzuolako taldeko kideak asteazkenetik ostiralera bitartean 19:00etatik 20:30era arte Olaran Etxeko bulegoetan izango dira. Horrenbestez, arropak gura dituenak bertara jo besterik ez du. Kontuan izan horrelakoetan arropak denda baino merkeago eskura daitezkeela eta zenbat eta gehiago eskatu, orduan eta merkeago irtengo dela.

FUTBOLIN TXAPELKETA

Saria: Mercedes SE 400 edo 5.000 euro txapeldunarentzat eta beste horrenbeste tabernarentzat (taberna bakoitzak zazpi jokalaririk)



www.ehmff.com
943 76 42 31 / 652776051

Antzuola: Mox - Surpe **Aretxabaleta**: Haizea - Izotz - Kixkor **Arrasate**: Biona - Iturriotz Equus - Udala - Wiskeria **Bergara**: Agirrebeña - Agorrosin - Avenida - Biko - Ganbara Gaztetxea - Mitor **Eskoriatza**: Aldatz - Naira **Oñati**: Arrano - Ongi - Otamendi

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Preferente maila

Aloña Mendi-Ordizia Domeka. 16:30. Azkoagain.
Mondra-Pasajes Zapatua. 16:30. Atxabalpe.
Aretxabaleta-Touring Zapatua. 16:00. Ibarra.

Lehen erregionala

Segura-Bergara Zapatua. 16:30. Alustiza.

Bigarren erregionala.

Igoera fasea
Trintxerpe-BTLS Zapatua. 17:30. Trintxerpe.
Antzuola-Mariño Zapatua. 16:00. Estala.

Bigarren erregionala.

Kopa txapelketa
Aretxabaleta-Zestoa Zapatua. 18:00. Ibarra.
Eibartarrak-Mondra Domeka. 18:00. Unbe.

Ohorezko mailako

gazteak. Igoera fasea
Vasconia-Mondra Zapatua. 17:30. Martutene.
Herrerako Sport.-Aretxabal. Zapatua. 15:30. Herrerako.
Kostkas-Aloña Mendi Zapatua. 17:15. Matigoxotegi.

Ohorezko mailako

gazteak. Jaitsiera fasea eta Kopa
Eibartarrak-Bergara Domeka. 12:30. Unbe.

Lehen mailako gazteak.

Igoera fasea
Arizmendi Aretx.-Antoniano Domeka. 16:00. Ibarra.

Lehen mailako gazteak.

Kopa txapelketa
Arrasate-Ikasberri Domeka. 11:30. Atxabalpe.
Bergara-Antzuola Zapatua. 18:00. Ipintza.

Ohorezko mailako

kadeteak. Igoera fasea
Bergara-Vasconia Zapatua. 16:00. Ipintza.
Arizmendi Aretx.-Zarautz Domeka. 11:30. Ibarra.

Ohorezko mailako

kadeteak. Kopa eta jaitsiera fasea
Aloña Mendi-Aurrera Ond. Zapatua. 11:30. Ibarra.
Arrasate-Herrerako Sporti. Zapatua. 11:00. Atxabalpe.

Lehen mailako kadeteak.

Kopa Txapelketa
Arizmendi Aretx.-Bergara B Zapatua. 09:45. Ibarra.

Emakumezkoen

igoera fasea
Luberri-Mondra Zapatua. 17:30. Berio.

Hernani-BTLS Zapatua. 16:30. Zubipe.

Emakumezkoen Kopa

Agurain-Aloña Mendi Domeka. 11:30. Agurain.
Arizmendi Aretx.-Elgoibar Zapatua. 15:30. Almen.

Kadete emakumezkoak

F11. Txapelketa
Aloña Mendi-Arizmendi B Domeka. 11:00. Donostia.
Aloña Mendi-Arizmendi B Zapatua. 10:00. Ibarra.

Kadete emakumezkoak

F8. Kopa txapelketa
Arizmendi Aretx.-Zaramaga Zapatua. 09:30. Almen.

ARETO FUTBOLA

Euskadiko Liga

Eskoriatza-Astraburuko Zapatua. 18:00. Intxaurtx.

Lehenengo maila

Pasaia-Aloña Mendi Gaur. 21:30. Donibane.

Hirugarren maila

UDA Mercedes-Zarautz Zapatua. 16:00. Aretxab.

Gazteak

Aloña Mendi-MCM Zapatua. 19:00. Zubikoa.

SASKIBALOA

ACB

Bruesa GBC-Bartzelona Domeka. 12:15. Ilunbe.

Lehen maila. Igoera fasea

Mugarri Alkesa-Consmetal Zapatua. 18:00. Iturripe.

Emakumezkoen

bigarren maila
Mugarri Alkesa-EASO A Domeka. 12:00. Iturripe.

Gipuzkoako ligako senior

maila, gizonen maila
Aloña Mendi-Allerru SBT Zapatua. 11:00. Zubikoa.

Haurtzaro-Candy BKE

Zapatua. 16:30. Oiarzun.
Ointxe Arrasate-Novamark Zapatua. 16:00. Iturripe.

Gipuzkoako ligako senior

maila, emakumezkoak
Aloña Mendi-Lasarte Oria Zapatua. 11:00. Zubikoa.

STL Bilintx-Eskoriatza

Zapatua. 16:00. Donostia.

Gipuzkoako ligako junior

maila, gizonen maila
Andraitx-Aloña Mendi Zapatua. 16:00. Legazpia.

Gipuzkoako ligako junior

maila, emakumezkoak
Eskoriatza-Internacional Zapatua. 16:00. Intxaurtxue.

Gipuzkoako ligako kadete

maila, gizonen maila
Ordizia-Ford Mugarri Arras. Zapatua. 10:00. Ordizia.

Gipuzkoako ligako kadete

maila, emakumezkoak
GSB Acero-Aloña Mendi Zapatua. 11:15. Azkoitia.

ESKUBALOA

Euskadiko Senior Maila

Zarautz-Ford Mugarri Arras. Domeka. 11:30. Zarautz.

Emakumezkoen goren

maila
Verkol Aloña-Leizaran Zapatua. 17:30. Zubikoa.

Gaztelueta-Bergara

Zapatua. 18:00. Leioa.

Lehen eta bigarren

territorial maila. Kopa
Ormaiztegi-Aloña Mendi Zapatua. 18:30. Zubipe.

Arrasate-Haritz Esk.

Domeka. 11:30. Musakola.

Gazte maila, gizonen

maila
Bergara-Urola Domeka. 12:00. Labegaria.

Aloña Mendi-Amenabar

Domeka. 12:30. Zubikoa.

Kadete maila, gizonen

maila
Gatz Museoa-Donibane Domeka. 10:00. Musakola.

Aloña Mendi-Ursbil

Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Gazte mailako

emakumezkoak
Zarautz-Aloña Mendi Zapatua. 12:30. Zarautz.

Kadete mailako

emakumezkoak
Aitxuri Jat.-Arrasate Domeka. 11:15. Legazpi.

ERRUGBIA

Senior maila. Kopa

Gaztedi-Arrasate Zapatua. 16:30. Gasteiz.

Gazte maila

Santanderko Independiente-Santoña-Torrelavega eta Arrasate. Hiruko torneo. Zapatua. Santanderren.

GIMNASIA ERRIT.

Eskola Arteko Txapelketa,

B maila
Zapatua. 10:30. Alebin, infantil eta kadete maila. 16:30. Benjamin maila.

TXIRRINDULARITZA

Gorlako Igoera

23 urtez azpiko lasterketa Domeka. 10:00. Bergara.

Uzarragako Igoera

Gazte mailako lasterketa. Zapatua. 16:00. Antzuola.

FUTBOLA > PREFERENTEA

Mondraren sailkapeneko alde geroago eta txikiagoa da

Azkeneko postuetan dauden taldeen kontra uste baino zailtasun handiagoak izan ditu Arrasateko taldeak; UDA eta Aloña Mendi dagoeneko lau puntura gerturatu dira

XABIER URTZELAI > ARETXABALETA

Preferentean geratzen diren zortzi jardunaldietan asko aldatu behar dira gauzak joan den urtean moduan txapelketa amaieran ibarreko talde bat goiko postuetan ikusteko -iaz bi talde izan ziren-. Orain dela hilabete gutxi bazirudien oraingoan Mondrari (38 puntu) tokatzen zitzaiola sailkapeneko aurrealdean lehiatzea, baina Gabonetatik hona egindako lana eta gero, Mondrak taularen erdira egin du atzera -2007an bost norgehiagoka berdindu, hiru norgehiagoka galdu, eta bi irabazi dituzte-.

UDARI (34) eta Aloñari (34) dagokionez, denboraldia txarto hasi eta gero, poliki-poliki taularen erdiraino egin dute gora; joan den astean bi taldeek kanpoan erdietsitako 3 puntuei esker, dagoeneko 34 punturekin daude.

ETXEAN, UDA ONDOEN

Joan den urtean etxean erakutsitako sendotasunak asko lagundu zuten Aloña Mendi goian ibiltze-



MONDRA Arrasatearrek Pasajes hartuko dute zapatuan Atxabalpen.

GOIENKARIA

ko. Aurten, berriz, egoera hori goitik behera aldatu da, oñatiarrek lau partidu baino ez dituzte eta etxean irabazi. Mondrak ere beste horrenbeste partidu irabazi ditu etxean, lau, baina hori ez da albiste; joan den urtean ere Mondra makal ibili zen Atxabalpen. Hala, Aretxabaleta da etxean itxura txukunena erakusten dabilen taldea, sei partidu irabazita. Hori bai, etxetik kanpora arrasatearrek dute puntuak batzeko erraztasun handiena (21 puntu).

ASTEBURIAN, ETXEAN

Gauzak horrela, oraingo asteburuan dute Mondrak eta Aloñak etxeko datu ezkorrek konpontzen hasteko lehenengo aukera. Hala, laugarren postuan dagoen Ordizia (41) izango da Azkoagainen. Mondrak, berriz, jaitsiera postuetan dauden taldeen kontra jarraituko du lehian; oraingoan Pasaia (23) etorriko da Atxabalpera. Aretxabaletako taldeak, azkenik, sailkapenean ondo ondoan daukan Touring (34) hartuko du Ibarren.



GOIENKARIA

GINEKOLOGIA KONTSULTA BERRIA OÑATIN

J. Rodriguez Santos doktorea
Ginekologoa

Atzeko kalea 6, behe • OÑATI
Tel.: 943 78 24 89 (ordua eskatzeko)

Kontsulta egunak: ostiraletan
9.00etatik 13.00etara
eta 15.00etatik 18.30era

Aseguruak:

Lagun Aro, Adeslas, Aegon, Mapfre, Winterthur,
Foru Aldundia, Sanitas, DKV.

Eskalatzailleendako dekalogoia, mendi federazioaren eskutik

Gipuzkoako Mendi Federazioko Ingurumen Batzordeak eskalatzailleendako dekalogoia prestatu du. Hala, "eskalatzea ez da, berez, natur balioen kontrako eraso, baina mendiko haitzetara eskalatzera joaterakoan, hainbat gauza izan behar dira kontutan". Eta kontutan hartu beharreko gauzen artean daude haitzeko belarrak ez kentzea, hegaztien habien ondoan ez eskalatzea, beharrezkoa ez bada, oihurik eta aparteko zaratarik ez egitea eta haitzuloak errespetatzea, besteak beste.

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **MUSIKA**
Saxon eta
Masterplan taldeak
zapatuan Jam
aretoan > 45



> **KOMUNIKAZIOA**
Moodle plataforma
birtuala erabiliko
du HUHEZIK
aurrerantzean > 51

> **IKER ELORTZA**
Arrasatearrak
Espainiako
errugbi
txapelketako
gorenko
mailan jokatzen
du Ordiziarekin.
Mantenu
ikasketak
amaitu berri,
lanean hastear
da > 50



JOSU OKIÑENA ETA RAZVAN SUMA Martxoaren 31n eskainiko dute kontzertua Kulturateko Areto Nagusian.

ARGAZKIA: GOIENKARIA

Loratu da udaberriko Musikaldia

Musika klasikoa oinarri
hartuta antolatu dute
hirugarren edizioa

Goikobalu abesbatzak
Tirri-Tarra eta Sotto
Vocerekin eskainiko du
kontzertua

AMAGOIA LASAGABASTER > ARRASATE
Oraingo asteburuan hasiko da
Udaberriko III. Musikaldia Arra-
saten. Aurtan, bost emanaldi
antolatu ditu Kultura Sailak.
Guztiekin musika klasikoa dute
oinarri.

ESKAINITZA BATERATUA
Hirugarren edizioa izan arren,
Arrasateko Udalak aspalditik
antolatzen ditu musika klasiko
emanaldiak. Udaberriko Musi-
kaldiekin emanaldiok era bate-

ratuan eskaintzen dituzte; alegia,
ziklo antzeko bat sortu dute.

Musika klasikoaren esparrua
ezezaguna bezain zabala dela
aipatu du Arrasateko Kultura
teknikari Karmelo Alberdik.
Arrazoi horregatik, oraingoa
ere Arrasate Musikalen laguntza
izan dute egitaraua osatzeko.
Bost emanaldi antolatu dituzte,
eta urtero moduan, Debagoiene-
ko musikariek ere izango dute
tartetxoa. Aurtan, Goikobalu
abesbatzak hartuko du parte



TIRRI-TARRA Argi beltz izeneko lana aurkeztuko du Tirri-Tarrak Goikobalu eta Sotto Voce Orkestrarekin lankidetzan.

GOIENKARIA

Loratu da Udaberriko Musikaldia

(43. orrialdetik dator)

Tirri-Tarra fanfarrearekin eta Sotto Voce Orkestrarekin lankidetzan.

ARETO DESBERDINAK

Emanaldiak hiru leku desberdinetan izango dira. Amaia Antzokian, talde handiak sartu dituzte; Tirri-tarra eta Artaxoako Banda. Conductus Ensembleren kontzertua San Juan Batailatzailearen parrokiaren izango da eta beste biak, Jansen-en, eta Okiñena eta Razvan Sumaren ekitaldiak, Kulturateko Areto Nagusian egingo dituzte. "Azken bi horiek formatu txikiko emanaldiak dira eta uste dugu Kulturateko akustika probatzeko emanaldi aproposak izango direla" dio Karmelo Alberdi teknikariak.

Arrasateko Kultura Sailak 30.000 euroko aurrekontuarekin antolatu du aurten Udaberriko Musikaldia.

Musikaldiko egitaraua

24, zapatua

20:00 Artaxoako Banda
Amaia Antzokian (doan)

25, domeka

20:00 J.W. Jansen
Kulturaten (doan)

30, egubakoitza

20:00 Conductus Ensemble
San Juan Batailatzailearen parrokiaren (doan)

31, zapatua

20:00 Josu Okiñena eta Razvan Suma
Kulturaten (doan)

1, domeka

20:00 Tirri-Tarra+Goikobalu+
Sotto Voce Orkestra
Amaia Antzokian (10 euro)

EMANALDIAK

Lehenengo kontzertua Artaxoako Musika Bandak eskainiko du. 1996an sortu zuten taldea 22 kidek eta harrezkero hazi egin da.

Egun, 70 musikaririk osatzen dute banda. Ricardo Oficialdegiuren zuzendaritzapean, hainbat filmetako soinu bandak interpretatuko dituzte, besteak beste.

Bigarren emanaldia, Jan Willem Jansen klabezinjolearena izango da. Adituen esanetan, maila handiko musikaria da Jansen, Europako barroko talde onenekin dihardu egun. Arrasaten, XVI. eta XVIII. mende bitarteko piezak joko ditu.

Conductus Ensemble Andoni Sierrak gidatzen du eta Isabel Alvarez sopranoak, Jose Hernandez kontratenoreak, Israel Moreno tenoreak eta Miquel Ramon baxuak osatzen dute taldea. Suma eta Okiñena bikoteak, bestalde, piano eta biolontzelo kontzertua eskainiko dute. Elkarrekin dabilta 2004az geroztik munduko areto ezagunenetan kontzertuak ematen.

Eta azkenik, aurtengo Musikaldia borobiltzeko, Tirri-Tarra, Goikobalu eta Sotto Voce Orkestra batuko dira Amaia Antzokian. Donostiako Orfeoiaekin grabatutako Argi Beltz diskoa aurkeztu du Tirri-Tarrak.



KARTEL IRAGARLEA Udaberriko III. Musikaldiko egitarauaren azala.

GOIENKARIA

Finantziazioaren show-a

MOBLERONE

Montorra z/b - Eurohogar Merkataritza gunea
48340 ZORNOTZA - Tel.: 94 630 10 40

Mobleronek, zure esku uzten du altzariak ordaintzeko modu erosoa eta esklusiboa.



urte
5

Interesik eta komisiorik gabe

Promozio balagarria martxoaren 12tik maiatzaren 12ra arte.

MUSIKA > SAXON, EDDIE & THE HOT RODS ETA LOS DELINQUENTES ASTEBURUAN

Punkaren aurrekariak, heavy talde handia eta flamenkoa

Gaur, egubakoitza, Los Delinquentes Jamen eta Eddie & The Hot Rods 3.60 aretoan

Bihar, zapatua, Saxon eta Masterplan heavy taldeak Bergarako Jam aretoan

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Asteburuan ospe handiko musika taldeak etorriko dira Debagoienera. Gaur, egubakoitza, Eddie & The Hot Rods Ingalaterrako talde aitzindaria izango da Arrasateko 3.60 aretoan, 23:00etan. Alboan The 5 Twisters boskote arrasatearra izango du.

Bergarako Jam aretoan, berriz, gaur, egubakoitza, Los Delinquentes talde andaluziarra izango da, 22:00etan.

Egubakoitzarekin bukatzeko, Elgetako Espalioa Kafe Antzokian Mikel Urdangarin izango da agertoki gainean.

PUB-ROKETIK PUNKERA

Eddie & The Hot Rods taldea 1975. urtean sortu zuten, Ingalaterran. Pub-rock delako estiloa egiten hasi ziren, baina berehala punkaren energiak *kutsatu* zituen; eta rhythm and blues, punk eta rock-and-roll nahasketa egiten hasi ziren. Askok esan dute punkaren aurrekariak izan zirela, eta gerora beste talde batzuek izan zuten jarrera apurtzailea haiei zor dietela. 1976an kaleratutako *Teenage depression* klasiko hutsa da, esate baterako.

Hasierako kideetatik gelditzen den bakarra Barrie Masters abeslaria da.

Egubakoitzeko Jameko eskaintza erabat bestelakoa izango da. Cadizko Los Delinquentes taldea igoko da agertoki gainera. 1998an sortu zuten talde hori, Pata Negra, Veneno eta Trianaren soinuak eraginda. Hala ere,



INGALATERRAKO ESKOLA Saxon taldea da Ingalaterrako heavy eskolako ordezkari garrantzitsuenetako bat.

TXALUPA

cadiztar horiek lotsabakoagoak dira, eta gaur egungo kaleko kontuak dituzte berabagai hitzetan. Batek baino gehiagok Martires del Compas eta Estopa taldeen artean kokatu du Los Delinquentes taldearen emaitza.

Gaur egungo gazteekin konexio handia daukate, eta euren hitzetan ohikoa da marihuana-ren aldeko aldarrikapenak egitea.

Zapatuan Bergarako Jam aretoan heavyzaleendako hitzordu garrantzitsua izango da. Ingala-

terako Saxon eta Alemaniako Masterplan taldeek kontzertua egingo dute 21:00etan.

HEAVY HITZORDUA

Bihar, zapatua, Ingalaterrako heavy eskolako talde handienetako bat izango da Jam aretoan: Saxon. 1976an sortutako talde horrek izugarritzko arrakasta erdietsi zuen 80ko hamarkadan, eta ez dio inoiz utzi mundu osoan zehar birak egin eta diskoak kaleratzeari. Egunotan *The eagle has landed* zuzeneko aurkezten dihardute, baina zuzenekoan denetariko kantuak joko dituztela iragarri digute.

Horrez gainera, nabarmendu beharra dago Saxonek luxuzko laguntzaileak izango dituela. Alboan Masterplan izango du. Talde hori Helloweenen aritutako Roland Grapow gitarristaren proiektua da, eta harrera oso ona du.



PUNKAREN AURREKARIAK Punkak asko zor dio Eddie & The Hot Rodsi.

3.60

OMENALDIA

Gaizka Barandiaran omendu zuten

Itzultzailea, euskal dantzen ikerlaria eta euskaltzain urgazlea izan zen

I.B.> ARRASATE

Euskaltzaindiak omenaldia egin zion Gaizka Barandiaran zenari. Orain dela gutxi Barandiaran arrasatearra 2006an hil zen; itzultzaile, euskal dantzen ikerlari eta euskaltzain urgazle izan zen, besteak beste.

Omenaldia familiakoek, Josemari Velez de Mendizabalek eta Euskaltzaindiko kideek egin zioten, hizkuntza akademiak Bilbon duen egoitzan.

IAZ HIL ZEN

Barandiaran 1916an jaio zen Oñatin, baina 2 urterekin Arrasatera joan zen bizitzera. Hainbat itzulpen eta ikerketa egin zituen. Hala, 1961ean euskaltzain urgazle izendatu zuten; eta Nazioarteko Folk Musikaren Kontseiluak elkarreko kide izendatu zuen. Iaz uztailan hil zen.

> ERAKUSKETA

'Arrasateko 5 artista' erakusketa ikusgai dago Kulturaten

Arrasateko Kulturate kultura etxe berriari inaugurazio ofiziala egin zioten aurreko astean. Ekitaldi horren barruan, bost artista arrasatearrek talde erakusketa interesgarria jarri dute Kulturateko klaustroetan.

Arrasateko 5 artista izena du erakusketak, eta apirilaren 6ra arte egongo da ikusgai. Iñigo Arregi, Juan Luis Goikolea, Kepa Landaluze, Melina Lopez eta Iñaki Riviereren eskultura eta margolanak batu dituzte.



Kalitatezko

Janari eta Sagardoa !!

Ohitura arte bihurtzen dugu

Iparragirre Sagardotegian



www.iparragirre.com

Osiñaga auzoa/Hernani 943 55 03 28

Eguaztenetik zapatura gaez zabalik, zapatu eguerditan ere bai

IMMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmkorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
• S. Antonio 50 m². Berritua.
• Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
• Masterreka 92 m². Ondo.
• Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
• Angiozar. Bi solairu. Berrituko.
• San Pedro 110 m². Estreinatuko.
• Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
• San Pedro 65 m². Prezio ona.
• Arnerreka 87 m². Oso ondo.
• Simon Arrieta 80 m². Ondo.
• Ibargarai 87 m². Oso ondo.
• Ortuibar 97 m². Oso ondo.
• Osintxu 95 m². Prezio ona.
• Zubiaurre 60 m². Berritua.

Etxebizitza berrien eraikuntza San Lorentzon. 2-3 logela, duplex-ak, garajea, terraza. Bista politak.

Elgeta:
• Etxebizitza berrien eraikuntza, 2-3 logela. Duplex-ak, garajea, terraza. Bista politak.

Alfa
IMMOBILIARIA
H.I.P.O.T.E.C.I.S.
Parroquia ondoan
Tel.: 943 77 19 19 / 677 49 89 89

ARRASATE
• Erguin. 2 logela, sukaldia, egongela, bainua eta berogailua. 30.000.000 pta.
• Santa Teresa. 3 logela, sukaldia, egongela eta bainua. 30.000.000 pta.
• Uribe Auzoa. 3 logela, sukaldia eta bainugela. 38.000.000 negoziagarriak.
• Uribe Auzoa. 4 logela, sukaldia, egongela eta bainua. Berehala joateko. 53.500.000 pta.
• Makatzena. 72 m². Berrituko.
• Erguin. 65 m². Oso ondo.
• Zentron. 115 m². Garajea. Arrasateko tokirik hoberean. Bista ezin hobekak.

ARETXABALETA
• Markole. 99 m². Bi trasteleku eta garajea.
• Etxe bakarra, 140 m². 400 m²-ko lurraldea. Garajea.
• Estreinatuko etxebizitza. 3 logela, 2 bainu, egongela, sukaldia, ganbaria eta garajea. 49.000.000 pta.
• Portasol. 85 m². Berritua. Prezio ona.

www.alfamondragon.com
orrialdean 7.000 etxebizitza baino gehiago aukeran

DEBA
GARAIA
IMMOBILIARIA
Telefono Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

BERGARA
• Arrizuri 97 m², oso ondo.
• Juan XXIII 80 m², berritua.
• Masterreka 87 m², oso ondo.
• Zabalotegi 50 m², berritua.
• Bidekuruzeta 60 m², oso ondo.
• Zubiaurre 60 m², prezio ona.
• Ortuibar 100 m², garajearekin.
• Paseo Irizar 89 m², garajearekin.
• Erdialdean 200 m², aukera ona.
• Bidekuruzeta 82 m², ia berria.
• Ibargarai 80 m², ondo.
• Arteka 62 m², oso ondo.
• Zubietza 70 m², oso eguzkitsua.
• Osintxu 82 m², garajearekin, ondo.
• San Lorenzo 18 etxebizitza berri garaje eta trastelekuarekin.

SORALUZE
• Gabolatx, 65 m², oso ondo
• Atxuri, 93 m², oso ondo.

ANTZUOLA
• Behoko auzoa, 53 m², prezio pna.
• Duplex berria, erdialdean.
• Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua.

1/ ETXEBIZITZAK
101. SALDU

Antzuola. Buztinuzuri kalean. 74 metro koadro. Hiru logela. Eguzkitsua. Altzariekin. Deitu telefono honetara: 616 09 46 55.

Antzuola. Etxebizitza salgai, adosatua. Estreinatuko. 607 79 00 37.

Antzuola. Zurrategi plazan duplexa salgai. Deitu telefono honetara: 666 81 56 42.

Antzuolan 72 metro koadro. Hiru logela. Berogailua. Jantzita. Deitu telefono honetara: 685 70 41 10.

Arexabaleta. 97 m², hiru logela, bi bainugela, bi balkoi, bero-

IRAGARKI SAILKATUAK
Egubakoitz eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01 sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEN GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A).
GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

OÑATI
Esperientziadun ile apaintzailea behar da.
607 81 52 74

ARRASATE
GAINDEGI

Gaindegi taberna-jatetxean barran eta jantokian lan egiteko langile esperientziadunak behar dira, astegunetan edota asteburuetan lan egiteko.
610 73 35 03

gailua. Erdialdean. Deitu telefono honetara: 660 79 27 67.

Arexabaleta. Etxea salgai. 72 m², berrituko. Garajea aukeran. Deitu telefono honetara: 659 64 67 38.

Arrasate. Etxebizitza salgai Uribe auzoan. Lau logela, bi bainugela, egongela eta sukaldia. Garajea aukeran. Deitu telefono honetara: 625 28 72 06.

Arrasate. Grupo San Juan. 60 metro koadro. 4. solairua. Igo-gailua, ganbaria eta sotoa. 606 25 92 80.

Arrasate. Maalako Errabalean etxebizitza salgai. 76 m². Berria. Dena kanpoaldera. Deitu telefono honetara: 695 77 62 19.

Arrasate. Uribe auzoan etxea salgai. 85 m², berritua. Gara-

jea eta trasteleku aukeran. 626 35 60 90.

Arrasate. Zarugalde kalean etxebizitza salgai. 80 m². 3 logela. Dena kanpoaldera. Berritua. 606 55 10 92.

Arrasate. Zigorrolan. Hiru logela, egongela, bainua, sukaldia, trasteleku eta hiru balkoi. Oso eguzkitsua. 652 73 22 83.

Bergara. Boni Laskurain kalean. Eguzkitsua, altzariekin. Bizi izatera sartzeko gertu. Prezio interesgarria. Deitu telefono honetara: 628 26 65 77.

Bergara. Eguzkitsua. 80 metro koadro. Hiru logela, egongela, sukaldia, komuna eta bi terraza. Berogailua du. Guztiz berritua. 665 70 21 92.

BERGARA
Depor tabernak zerbitzaria behar du.
629 26 88 51

Bergara. Labegarietan etxea salgai. Berritua. Prezio interesgarria. Deitu telefono honetara: 635 74 28 84.

Bergara. Simon Arrietan. 80 metro koadro. Bi logela, jangela, sukaldia, bainugela bat eta berogailua gas naturalarekin, indibiduala. Igo-gailua. Balkoi ederra. 43 milioi. 664 73 49 60.

Bergara. Zubiaurre kalean. 60 metro koadro. Berogailua. Guztiz jantzita. 162.000 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 619 65 10 87.

Cambrils (Tarragona). Apartamentua salgai dago Llosa herriaren inguruan. Hondartzatik oso gertu. Garajea, igerilekua eta lorategia. Deitu telefono honetara: 619 72 34 33.

Oñati. Apartamentua salgai San Lorentzon. Saloi-sukaldia, 2 logela, komuna eta terraza handi bat. Garajea aukeran. 658 75 22 37 edo 943 78 18 38.

Oñati. Etxea salgai San Lorentzon. Garajea aukeran. Prezioa, negoziagarria. Deitu telefono honetara: 656 74 80 47.

102. EROSI
Arrasaten 2logelako etxe berria edo berritua erosiko nuke. Deitu ezazu telefono honetara: 609 41 53 26.

103. ERRENTAN EMAN
Arrasate. Apartamentua hartu nahi dut errentan urtebetetako. Erdialdean bada hobeto. Ainhoa. Deitu telefono honetara: 943 71 20 80.

Arrasate. Erdialdean. Bikote batendako aproposa. Telefonoa: 647 57 84 81.

Bergaran. Erdialdean. Simon Arrietan. 80 metro koadro. 664 73 49 60.

Cambrils (Tarragona). Apartamentua, hondartzatik oso hurbil. Igerileku eta berdegunearekin. Deitu telefono honetara: 610 79 47 29.

Carboneras (Almería). Bi etxebizitza ematen dira errentan. Hondartzan daude. Itsasora ematen dute. 1.000 euro hamabostaldia. Deitu telefono honetara: 950 13 00 27.

Noja. Apartamentua errentan ematen da. Garajea eta igerilekua dauka. Deitu telefono honetara: 635 75 35 29.

Noja. Duplexa hondartzan. Aste Santua eta uda. 696 90 94 43.

Vera (Almería). Hondartza eta urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza errentan ematen da. Guztiz jantzita dago. Igerilekuarekin. Deitu telefono honetara: 657 73 94 25.

104. ERRENTAN HARTU
Bergara. Uztaillean hartuko nuke etxebizitza bat errentan, astebetetz, uztailko bigarren edo hirugarren astean. Miren. Telefonoa: 637 52 89 83.

Debagoiena. Bi neskek etxebizitza alokatu gura dute. Arrasaten bada, hobeto. Telefonoa: 616 05 97 92.

Oñati. Bikoteak etxebizitza errentan hartuko luke. 616 60 13 28 edo 699 06 29 19.

105. ETXEA OSATU
Arrasate. Etxebizitza osatzeko pertsona bat falta zaigu. Etxe erosoa eta handia da. Ekonomikoa. Deitu telefono honetara: 615 72 33 44.

Arrasate. Gela bat errentan ematen da, unibertsitate gertu. Pertsona arduratsua izan dadila eskatzen da. Telefonoa: 616 32 90 12.

Debagoiena. Bi neskek beste batzuekin etxebizitza osatu gura lukete. Arrasaten gurago dute. 636 05 36 18.

Gasteiz. Etxebizitza osatzeko beste neska bat behar da Gorbela kalean. Oso handia. 300 euro. 652 72 18 87.

106. BESTELAKOAK
Arexabaleta. Etxebizitza eraikitzeko baimena duen lokala salgai. Argitasun handia, leku lasaia eta ondo kokatua. Eremua 74 m² eta altuera 3,35 m. Telefonoa: 699 86 14 32.

2/ GARAJEAK
201. SALDU
Arrasate. Uribarri etorbidean. 16.000 euro. 625 47 61 62.

Bergara. Ibargarain garajea saltzen da. 7,50 x 2,70 neurrikoa, 20,25 m². 24.000 euro. Deitu arratsaldeko 6-etatik aurrera. 678 43 31 07.

Bergara. Garajea salgai Masterreka kalean. 607 15 26 62.

Eskoriatzan 21 m²-ko Garajea saltzen da. 652 83 10 42.

202. EROSI
Oñati. Garaje edo lokal bat erosiko nuke Bidebarrieta kalean. 610 01 00 63.

4/ LANA
402. ESKAERAK
Arrasate. Emakume euskalduna gertu edozein lanetarako. Telefonoa: 659 82 75 18.

Arrasate. Emakume gaztea gertu atariak garbitzeko edo umeak edota pertsona nagusiak zaintzeko. 5urteko esperientziarekin. 663 61 74 38.

Arrasate. Emakumea esperientziarekin gertu umeak zaintzeko. 635 70 31 01.

Arrasate. Emakumea esperientziarekin jantzetan mahaia zerbitzatzen du. Telefonoa: 635 70 31 01.

Arrasate. Emakumeak lan egingo luke sukaldari laguntzaile, zaharrak edo umeak zaintzen, etxeak garbitzen... Orduka. 637 21 97 04 edo 943 79 76 39.

Arrasate. Emakumeak lan egingo luke zaharrak edo umeak zaintzen, etxeak garbitzen... Orduka. 697 93 73 32.

Arrasate. Mutil gaztea gertu obran, garbiketa lanetan edo nekazaritza lanetan lan egiteko. 663 61 74 38.

Arrasate. Neska esperientziaduna gertu arratsaldean orduka lan egiteko. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egingo lituzke. Telefonoa: 666 21 88 95.

Debagoiena. Emakume bat gertu umeak edo edadetuak zaintzeko nahiz garbitasun lanak egiteko. Deitu telefono honetara: 619 92 40 86.

Debagoiena. Emakume gazteak lan egingo luke umeak edo pertsona nagusiak zaintzen, edo garbiketa lanak egiten. Etxe barruan bizitzeko gertu ere badago. 679 27 37 53.

Debagoiena. Esperientziadun neska gertu etxeko lanak egiteko, umeak zein edadetuak zaintzeko, garbitasun lanak egiteko edo beste edozein lanetarako. Deitu telefono honetara: 663 46 93 60.

Debagoiena. Etxeko lanak egin eta haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko nitzuzke orduka. 636 91 93 81.

Debagoiena. Mutil bat eskaintzen da sukaldari edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko. 666 21 88 95.

Debagoiena. Mutil gaztea edozein lanetarako prest. Telefonoa: 609 98 02 52.

Emakumea pertsona nagusiak gautz zaintzeko prest. Telefonoa: 685 75 43 80.

5/ IRAKASKUNTZA
501. JASO
Arrasate. Batxilergoko 1. eta 2. mailetako eskola partikularrak hartzeko irakasle bat behar du. 650 62 61 78.

6/ MOTORRA
601. SALDU
Autorako erremolkea salgai. Frenoarekin. Oso egoera onean. 657 77 97 52.

Citroen ZX 1.4 i autoa. Bost ate, aire girotua, 76.000 km. Telefonoa: 659 44 87 08.

Ford Transit salgai. Telefonoa: 618 62 62 51.

Golf GTI III. 943 76 64 71.

Hyundai Accent. 1.3 GLS 82 ZP. 1997koa. 65.000 km. Telefonoa: 619 45 42 87.

Land Rover Discovery TDI salgai. 1997koa, 148.000 km, egoera onean. 659 04 20 99.

Mini One, 2004/04, 23000 Km, kanpotik beltza, barrutik beltza eta gorria. Extrak ditu. Egoera ezin hobean. 11.000 Euro. 685 72 51 58.

Sean Leon TDI. FR modelo. 150 ZP. Urdina. Juan Luis. Telefonoa: 629 65 26 40.

602. EROSI
Renault Express edo antzeko auto merke bat erosiko nuke. 647 24 40 54.

7/ ANIMALIAK
701. SALDU
Artzain txakurra salgai. Hila-bete du. 650 62 61 78.

8/ DENETARIK
801. SALDU
Aulki gurgilduna, tolesgarria. Oso ongi dago (250 euro). Telefonoa: 625 70 11 38.

Lursail bat saltzen dut. Telefonoa: 678 72 75 72.

Nagusientzako taka-taka bat, dinamikoa eta tolesgarria, gurgil gabea. Aluminioko (60 euro). 625 70 11 38.

Olympus SP-500 argazki kamera digitala. Sei megapixel, 10eko zoom optikoa. 260 euro. Telefonoa: 667 94 52 12.

Oñatin Bigarren eskuko estetikista aparailuak saltzen dira. Telefonoa: 610 75 10 10.

Umeendako eserleku jasotzaile salgai. Automobilen jartzeko. Babideak markakoa. 20 euro. 943 79 41 31.

806. GALDU
Bizikletako poltsatxo galdu dut errepedean. Ganbera eta giltzak ditu barruan. Telefonoa: 606 65 85 86.

808. BESTELAKOAK
Trontzan aritzeko bikotekidea behar da. 610 36 39 94.



BERGARAN KOKATUTAKO FORU SUSTAPENEN 30 ETXEBIZITZA ESLEITZEKO ESKAKIZUNEN AURKEZPENERAKO EPEAREN IREKITZEA

2007. martxoaren 7an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 47. alean, Bergarako San Antonio kaleko 7. zenbakian kokatutako Foru sustapeneko hogeita hamar (30) etxebizitza eta eratzikiak esleitzeko baldintza plegua plazaratu zen.

24 etxebizitza 1, 2, 3 eta 4. solairuetan eta 6 etxebizitza behe soliaruan kokatzen dira. Eraikuntza, mugikortasun murriztu iraunkorra kreditaz dutenentzat moldatuako etxebizitza batez (1), logela bakarreko etxebizitza batez (1), bi logelako hogei (20) eta duplex moduko hiru logelako zortzi (8) etxebizitzaz osatua dago, 25 itxi gabeko garaje eta 30 ganbaraz gain.

Prezioak 86.158 eta 189.882 bitartean kokatzen dira, B.E.Za kanpo.

Zozketan parte hartu ahal izateko betebeharrak, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta esleipen prozedura, aipatu baldintza pleguan zehazten dira.

Eskakizunak aurkezteko epea datorren apirilaren 10ean bukatuko da.

**Informazio gehiago behar duenak,
honako helbide eta telefonoetan du eskuragarri:**

Etorlurreko informazio bulegoa
Jose María Sert Plaza 10
(Benta Berri) Donostia
Tfnoa: 943.24.85.50
e-mai: etorlur@gipuzkoa.net
www.etorlur.net

Bergarako Udaletxea
San Martin de Agirre Plaza 1
Tfnoa: 943.77.91.68

Suradesa Debagoieneko Mankomunitatea
Arrasate Pasealekua 5 behea
Arrasate
Tfnoa: 943.79.33.99
e-mail: suradesaelko@telefonica.net

Donostia, 2007ko martxoaren 23a

hildakoak

- **Pako Arregi Agirre.** Oñatin, martxoaren 14an. 65 urte.
- **Maria Isidra Aizpurua Beristain.** Bergaran (Osintxu), 16an. 88 urte.
- **Jesusa Balanzategi Beloki.** Arrasaten, martxoaren 16an. 83 urte.
- **Ramon Tena Sanz.** Arrasaten, martxoaren 19an. 58 urte.
- **Alejandro Arantzeta Arregi.** Elgetan, martxoaren 20an. 77 urte.
- **Gregorio Biain Anduaga.** Oñatin, martxoaren 21ean. 88 urte.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 01

Edo zatoz ordezkari bat, eguazten eguerdia baino lehen:

Arrasate

Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 71 25 11.
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 79 21 00.

Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 01.

Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
Laixan euskara elkartea: Bidebarrieta 18. 943 71 63 11.

Aretxabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

Aramaio

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

Elgeta

Mariasun janaridenda: Salvador 26. 943 76 81 90.

Eskelaren prezioa: 87 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.

ESKELA

Rafael Zubiagirre Txintxurreta

Fifi

Oñatin hil zen 2007ko martxoaren 21ean, 42 urte zituela.

Haren arimaren aldeko hileta elizkizuna gaur, egubakoitza, martxoak 25, 19:00etan, Oñatiko San Migel parrokian.



Oñatin, 2007ko martxoaren 25an.

ESKELA

Rafael Zubiagirre Txintxurreta

Fifi

Oñatin hil zen 2007ko martxoaren 21ean, 42 urte zituela.

*Zure irrifarra eta maitasuna,
gurekin geldituko dira.
Sekula ez zaitugu ahaztuko.*



Zure koadrilako lagunak.
Oñatin, 2007ko martxoaren 25an.

ESKELA

Rafael Zubiagirre Txintxurreta

Fifi

Oñatin hil zen 2007ko martxoaren 21ean, 42 urte zituela.

Betira arte, lankide.



Garay-ko ELA
Oñatin, 2007ko martxoaren 25an.

MEZA

Lucia Regil Agirre

Angel Izarren alarguna

Ceutan hil zen 2007ko martxoaren 15ean, 95 urte zituela.

Haren arimaren aldeko meza zapatuan, martxoaren 24an, 19:00etan, Bergarako Santa Marina elizan. Bertaratuko zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko martxoaren 25an.

Babeslea:



OROILORE

Hileta eta beilatoki zerbitzuak

Zerbitzu etengabea 365 egunean

*Behar bagaituzue aski duzue dei bat,
laster joango gara*

zuekin egoteko: etxera, ospitalera...

Erantzun azkarra, tratu pertsonala

Eskelak: egunkari, irrati eta paperetan

*Aukera lore apainketan: koroak,
erramuak eta zentroak*

Bete beharreko tramiteak

Gorpua prestatu eta dotore ipini

Zerraldo aukera, denetariko prezioak

Oroilore beilatokiak hiru gela ditu, beila egiteko

Amillaga 27, Bergara
Tel.: 617 44 21 55 – 943 76 94 73 /
Faxa: 943 76 94 76

ESKELA

Jesusa Balanzategi Beloki

Pako Berezibarren alarguna

Arrasaten hil zen 2007ko martxoaren 16an, 85 urte zituela.

*Zenbat patxo, kontu eta goxoki.
Zenbat mimo.
Zenbat negar malko gozatu.
Zenbat eta zenbat gauza.
Mila esker, zuri, Jesusa, denagatik.
Agur eta patxo haundi bat.*



Kepa eta Oihana Ezkurra.
Arrasaten, 2007ko martxoaren 25an.

URTEURRENA

Milagros Heriz Aranzabal

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 25ean, 11:00etan, Garagartzako San Migel elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

II. URTEURRENA

Aritz Azpiazu Bengoa

Martxoaren 25ean bigarren urteurrena.

*Bi urte ez dira pasa berehalakoan
zure irribarrea sentitzen dugu
oraindik gure ondoan
bizi garen artean beti
egongo zara gure gogoan*



Etxeokak.
Oñatin, 2007ko martxoaren 25an.

bila-bila 7



hitz gezidunak

	Sasiak	▼	Europako ibaia	▼	Fruitu mota	▼
	Trakets	▶	Politak	▼	Odol ahulezia	▼
	* Irudiko animalia	▶				
	Aurritzia	▶				
Aurkitzen ahalegindu	▼	Barna	▶			
Bilkura	▶	Kostaldeko amildegi	▼		Masuria	▶
					Fruitu mota	▶
Era larrian	▶					Suari dariona
Sindikatu abertzalea	▶					
		Zakoteak	▶			
		Musika nota	▶			
Kolpeak	▶				Bokala	▶
Egurra	▶				1000	
			Ortografia ikurra	▶		

GOIENKARIA



umore giroan

Kike Amonarriz

HAUR-RERATUA


Adinerako aurreratuta datozen haurrak.
Lorategietako eserlekuan zigarroa erretzen ari dela, hirurogei bat urteko emakume bat errietan hasi:
-Zuk zer egiten duzu zigarroa erretzen? Zenbat urte dituzu?
- Nik? 9 urte!
- Eta normala iruditzen al zaizu 9 urterekin erretzea?
- Bai! Putetxeetara joatea bezala.
- Zu izan al zara horrelako lekuren batean?
- Azkena bart gauean!
- Eta non izan zinen?
- Ez dut oroitzen. Larregi edanda nindoan!

sudokua

5	1			4	8
			4 9		
7		1			2
	2	9	5	3	8
	5				4
		6	4	2	7
3			7		4
		2	8		
8	5			7	1

hieroglifoa

Portua




hizki salda

ohianeko 5 animala

A	I	A	F	E	R	I	J	A
N	J	B	T	L	H	K	A	O
D	A	I	I	E	A	I	R	D
A	U	U	R	F	N	O	I	R
R	M	Z	M	A	K	E	T	A
O	I	E	U	N	F	L	D	P
K	X	E	A	T	I	A	O	O
O	T	M	Z	E	B	R	A	E
K	D	Z	P	A	P	O	E	L

soluzioak



L	A	M	O	K		A	R	U	Z
E		K	A	K	A	L	A	T	
K		O	N	A		B	L	A	
		I	K	I	R	R	L	A	
A		M		A	R	A	B	I	
N		R	E	R	B	A	R	B	
A		N	A	H	I	E	N		
R		A	L	D	B	A	L	D	
A		O							

bono fotoa



Ze errekek zeharkatzen du Antzuola?

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkorobereibar

Super BM

Super BMk emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileen artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA.....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

Gullon Creme Tropical galletak
800gr-ko kaxa

1,55 € 258 pta.
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
Bergarako ITZIAR USANDIZAGArendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
Galderaren erantzun zuzena: Garaia.

1	2	7	4	6	3	5	6	8
3	6	1	8	2	8	4	2	6
4	6	8	7	9	7	2	1	3
5	7	1	2	3	4	6	8	9
9	4	2	6	2	8	7	3	1
6	8	6	3	1	5	3	8	6
2	9	6	3	8	1	5	8	6
7	4	9	1	5	8	6	4	9
1	7	5	1	7	2	3	8	2
8	9	4	9	4	3	1	7	2

Jeroglifikoak: kaita

L	A	M	O	K		A	R	U	Z
E		K	A	K	A	L	A	T	
K		O	N	A		B	L	A	
		I	K	I	R	R	L	A	
A		M		A	R	A	B	I	
N		R	E	R	B	A	R	B	
A		N	A	H	I	E	N		
R		A	L	D	B	A	L	D	
A		O							



kutxa mpresas

Loading...

“Biharkoa prest baduzu buruan zabilta lasai munduan”

Internet etengabe berritzen ari da, **kutxaempresas.net** ere bai.

Internet berrasmutzen. Baita kutxaenpresak-en webgune berria ere, sarearen abantaila guztiak kutxaenpresen eskaintza zabalari gehitzeko prestatua.

- > **Intuiziozko nabigazioa.**
- > **Diseinu gaurkotua.**
- > Neurrira **egindako produktuak eta zerbitzuak.**
- > **Aholkularitza.** Enpresa-txostenak, dirulaguntzak, ikastaroak ...
- > **Informazio eguneratua.** Eguneroko prentsa, azken albisteak, burtsa, ...
- > **Astialdia.** Bidaiak, zinerako sarrerak, mugikorrek birkargatzea ...
- > Eta, jakina, **Kutxanet-erako zuzeneko sarbidea.**

Iker Elortza > Errugbi jokalaria

"Zelaian ez naiz batere odol beroa; orain arte ez dut istilurik izan"

Iker Elortza arrasatearrak Espainiako errugbi txapelketako goreneko mailan jokatzeko Ordizia taldearekin. Aste bukaerak autobusean ematen ditu, partiduetako joan etorriak egiten. Baina, kirolaz gain, Elortzak ikasi ere egiten du. Orain, mantenu ikasketak amaitu berri, lanean hasi behar da; partiduetako kolpeak baino gogorra-goia izango ei da lanera joatea.

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Ikasketek eta entrenamenduek uzten dioten tartean izan gara Iker Elortzarekin. Ordiziako taldearekin, errugbiko goreneko mailan jokatzeko du arrasatearrek; bada, bere kirol ibilbidea Arrasaten amaitu gura duela aitortu digu.

Nondik datorkizu errugbian jokatzeko zaletasuna?

Txikitik, hasiera batean, futboleko hasi nintzen, baina konturatu nintzen ez nuela horretarako balio. Hala, lagun batek ea errugbian jokatu nahi nuen galdetu zidan eta beste barik, probatzea erabaki nuen.

Nire anaia Markel errugbian ibilitakoa da eta horrek ere gauzak erraztu zizkidan kirol hau aukeratzeko orduan.

Lehenengo urteak Arrasateko taldean egin zenituen eta gero, Ordiziara pasa zinen.

Bai, infantil, kadete eta gazte mailan aritu nintzen Arrasaten; gero, bi urtez aritu nintzen nagusietan. Bi urte horiek pasatakoan, Ordizian jokatzeko eskaini zidaten eta hara joatea erabaki nuen. Ordizia, Espainia mailako lehenengo mailan ari den taldea da.

Beraz, aste bukaeratan alderik alde ibiltzea egokituko zaizue.


Bai, horrela ibiltzen gara. Egia esan, egunak eta egunak izaten ditugu; batzutan, gogo handiarekin joaten gara partiduetara eta beste batzuetan, bidai luzeen ondorioz, gogo gutxiagorekin ibiltzen gara. Baina orain arte ondo egokitu naiz, giro ona daukagu taldean.

Selekzioarekin ibilitakoa zara, baina, azkenaldian ez dizute deitu...

Bai, hala da, orain ez didate deitzen; nik uste dut nire selekziozko ibilbidea bukatu dela! Hiru urtez jokatu dut Euskadiko selekzioarekin; gauza da, abuztuan entrenatzen dutela, eta nik abuztuan beste plan batzuk izaten ditut. Ez naiz honetatik bizi; beraz, niri abuztuan ez deitzeko esan nien. Agian txarto iruditu zitzaizen nik hartutako jarrera eta ordutik ez didate deitu.

Errugbia kirol noblea dela esaten da baina ederto egurtzen zarete elkarri.

Bai, gogorra da, baina, azkenean, gorputza ohitu egiten da; hasieretan kolpe asko hartutakoa naiz baina denborarekin eskar-



XABIER URTZELAI

PERTSONALA

Herria: Arrasate. **Adina:** 22 urte. **Ikasketak?** Mantentze heziketa zikloa. **Zaletasunak?** Mendian ibiltzea asko atsegin dut eta, nola ez, baita errugbia ere. **Baduzu maniaren bat?** Ez dakit, izango dut bakarraren bat, baina orain ez dakit zein. **Gomendatzeko**

moduko filma bat? Ez dut gustuko zinea. **Egin duzun bidaiarik gustukoena?** Maroko; hirutan izan naiz bertan eta asko gustatu zait. **Debagoieneko zure txoko gustukoena?** Leku asko daude politak baina gustukoena Udalatz da.

mentua hartu dut. Orain, kolpeak hartzera ohituta nago.

Ez dakienak, agian, kirol berritza dela pentsatuko du baina ez da hala. Hala ere, errugbian aritzeko gogorra izan behar da.

Zelaian samur berotzen denerikoa zara?

Ez, mantsoa naiz. Ez naiz batere odolberoia. Orain arte, behintzat, ez dut inolako istilurik izan.

Batzutan, arerioari amorrutik handiagoa izaten diogu, eta orduan, gogo handiagoarekin ateratzen gara zelaira, baina istilutara iritsi gabe.

Taldean Argentinako jokalaririk dituzue; zer moduz egokitu dira taldera?

Laguntzera etorri diren jokalaririk dira. Taldeak lehenengo mailan jarraitu gura badu, etxeko jokalariekin ez du nahikoa, gero eta jokalaririk gutxiago dago. Argentinan, errugbia, kirol ospetsua da eta bestalde, gaztekeraz berba egiten dutenez, taldea osatzeko orduan ez dute inolako arazorik izan. Komunikazio aldetik ez dute arazorik izan eta erraz egin dira taldeko girora.

Arrasaten jokatzeko zenuenean partiduetara joaten zirenekoak. Orain ere, zure ikusle finenak etxekoak dira?

Bai, bai, etxekoak beti etortzen dira. Aitak, adibidez, denboraldia nirekin batera egiten duela esan daiteke. Etxeko partiduetara etortzen da eta baita Valladolidera eta inguruko beste herri batzuetara ere.

Aitari kirola beti gustatu izan zaio; lehen, Arrasaten, partiduetara etortzen zen, eta orain, maila altuagoa batean egonda, gehiago etortzen da.

Anaia eta biok txikitik amari makina bat disgustu emandakoak ei zarete.

Bai, bai, hala da; txikitik maltzurak ginen! Beti egiten genuen zerbait, etxera edozein modutan iristeko arriskua geneukan; batzutan burua irekita, beste batzuetan beste kolperen batekin... anaia eta biok beti borrokan aritzen ginen.

Zenbat urtez jarraituko duzu errugbian?

Oraindik urte batzuk eman gogor ditut. Ordiziakoa bukatzen zaidanean, Arrasatera itzultzea gustatuko litzaidake; herrikoekin jokatzeko polita izango litzateke.



IRAKASLEAK Onintza Belategi, Beatriz Zabalondo, Aitor Zuberogitia, Joxe Arantzabal eta Iñigo Arriaran.

JOXE ARANTZABAL

HEZKUNTZA > MOODLE PLATAFORMA

Moodle ikasteko ingurune birtuala erabiliko du HUHEZIK

Mondragon Unibertsitateko Mendeberrri hezkuntza proiektuaren barnean, Moodle plataforma erabiliko du HUHEZIK, eta irakasleek ikastaroa izan dute

rrean, karrera eta ikasgai ia guztietara zabalduko du HUHEZIK. Izan ere, MÜren Mendeberrri hezkuntza proiektuarekin oso ondo uztartzen da Moodle.

ELEMENTUAK GEHITU, KENDU...

Irakaskuntza kudeatzeko sistema, edo ikasteko ingurune birtuala, da Moodle (*moodle.org*). *On-line* ikastaroak sortzeko programa-multzoa da.

Irakaskuntzaren ikuspuntutik, lankidetzara, jarduerak, hausnarketa kritikoa... bultzatzen ditu Moodle.

Horrez gain, bere ezaugarri nagusietako bat modularitatea da, hau da, plataforman sortzen diren ikastaro guztietan, hainbat elementu gaineratu, ezabatu, aldatu edo egokitu daitezke, betiere, tutoreak dituen beharren arabera. Hiru modulu mota nagusi erabiltzen ditu: baliabideak—edu-

kiak: fitxategiak, web orriak, direktorioak, kanpo loturak...; jarduera-moduluak—ikasmaterialak dira, eta interaktibitatea eskaintzen dute: foroak, txatak, wikiak, blogak...— eta, azkenik, blokeak—ikastaroaren orri nagusiak blokeak ditu ezkerreko eta eskumako aldeetan, eta informazioa eta funtzionalitateak eskaintzen dizkiete ikasle-irakasleei: egutegia, kalifikazio-liburua, orain gutxiko aktibitatea...

MUNDU OSOAN HEDATUA

Martin Dougiamas australiarrek sortu zuen baliabide hori 2001. urtean, eta ikaragarritzko arrakasta izan ditu. Datu batzuk ematearren, 2006ko abenduan, Moodle-ren gune ofizialak 150.000 erabiltzaile zituen, 75 hizkuntzatarantz itzulita zegoen—euskara barne—, eta mundu osoko 160 herriatan erabiltzen zuten, 19.091 gunetan.

LEIRE KORTABARRIA > ESKORIATZA
Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateak Moodle plataforma birtuala erabiliko du aurrerantzean irakaskuntzan. Horretan trebatzeko, ikastaroa izan zuten joan den egubakoitzean fakultateko 12 irakasleek. Aurrerantzean, irakasleok hasiko dira, poliki-poliki, ikasleekin Moodle erabiltzen. Epe labu-

teknologia berriak

> LCD MONITOREA

Eduki digitalak kudeatzeko diseinu fineko 19 eta 22 hazbeteko pantaila panoramikoak

Viewsonic enpresak VX serieari bi pantaila panoramiko berri gehitu dizkio. VX1945 eta VX2245 modeloek funtzio ezberdinetara moldatzen dira. Nabarmentzeko ezaugarriak: erresoluzio handia, ikus-angulu zabala, kolore distiratsu eta zehatzak, diseinu metalikoa beltz kolorean. Baina berrikuntza handiena iPoda konektatzeko oina eta aurrealdean dituen konexio ezberdinak, tartean txartelak irakurtzeko gailua dira. Prezio: 19 hazbetekoa 416 euro eta 22koa 576.



Viewsonic etxearen VX gamako monitore panoramikoak iPoda konektatzeko oina duten lehenak dira.

> DISKO GOGORRA

Trekstor DataStation, txartel irakurgailua eta hub USB duen kanpoko disko gogorra

Trekstor enpresak CeBIT-en aurkeztu du DataStation maxit.uch kanpoko disko gogorra. Disko gogor honen abantailarik handiena bederatzi txartel formatu ezberdin irakur ditzakeela eta hub USB duala duala beste gailu batzuk konektatzeko.

Txartelen segurtasun kopiak automatikoki egiteko softwarearekin dator.

Bi edukieratan salduko dute, 120 euro inguru 250 GBtako eta 175 400 GBtako.



Eguneroko segurtasun kopiak egiteko egokia da abiadura handiko USB konexioa duelako.

> DVD-ERREPRODUZIGAILUA

WiFi eta Ethernet bidez konektatu daitekeen bereizmen handiko erreproduzigailu multimedia

Ordenagailuan dituzun fitxategiak telebistan ikusteko erosotasunaz gozatzeko erreproduzigailua. Exeri, erlaxatu eta gozatu.

KiSS erreproduzigailuak zure ordenagailuaren disko gogorretik (eta beste dispositibo digitaletatik) fitxategi multimedialeak telebistan zuzenean transmititu ditzake.

Formatu multimedia ezberdinekin bateragarria da eta gainera erabiltzaileek Linksys-ek sarean jarri dituen zerbitzuaz gozatzeko aukera ematen du.



Liburutegi digitalean duzun informazio guztia telebistan ikus dezakezu, WiFi edo Ethernek konexioa erabiliz.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko [blog komertzialak](#)

www.goiena.net/blogak

/aebpn
/aiastui
/aretxargi
/argi-plastik
/arregi
/atai
/azkarate
/bastida
/briz-asegurak

/BZ-sistemas
/dragon-oriental
/dukiena
/ego
/ekilore
/ekin
/elejalde
/ezkutuorly
/galgorri
/gallastegi

/ganesha
/garaia
/gertu
/gorkataxi
/gurea
/guztizeder
/hamaika
/itxaseder
/irudisport
/jracing

/joseba
/korozabaleta
/markiegi
/maulanda
/mayte
/merkeopari
/multiopticas
/ohiak
/ogizun
/okipark

/otzeta
/pando
/richimaier
/tabernaberrri
/udalaiz
/urdeki
/urbieta
/vitoria
/zainduz
/ziripot

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-aldejetexea.com
www.ehmf.com
www.gelatzu.com
www.haurtxoa.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.uxarte.net



berriak

> GOITB

Osinalde bertso txapelketa eguaztenez

Osinalde txapelketari jarraipena egingo diogu. Izan ere, bertsoari gazteen artean ospe handia du txapelketa eta urtero gazte askok parte hartzen dute. Goierrri telebistatik helduko zaizkigu irudiok, ibarrekiko ikusleek ere bertsoekin goza dezaten. Txapelketaren bigarren saioa da pantailaratu duguna eta eguaztenez emango ditugu sei saio txapelketaren finala iritsi arte. 21:45ean izango da hitzordua.

> GOITB

Korrika: aurreko ediziokoa gogoraraziko dugu

Aste bukaera honetan pasako da ibarretik aurtengo Korrika, baina orain bi urtekoa gogoratzen? Motorrak berotzeko ez bada ere irudi horiek errekueratuko ditugu eta aste bukaera ikusi ahal izango dira GOITBn (ikus orduak programazio taulan). Iazko elkarte, talde, enpresa eta norbanako askok hartuko dute parte aurtun ere. Irudi berriok astean zehar emango ditugu.

> ARRASATE IRRATIA

Lana izango dugu aipagai 'Asteko gainbegiratu'-n

Astero bezala, aste osoan izan dugunaren laburpena eskainiko du Arrasate Irratiak *Asteko gainbegiratu* saioan.

Oraingo honetan, Agurtzane Arregirekin izandako elkarrizketa berreskuratuko da. Agurtzane Arregirekin Lanbide zerbitzuaren gainean berba egingo dugunez, arituko gara lana aurkitzeaz eta eskaintzeaz, lan munduaren egungo egoeraz, eta abar.

> ARRASATE IRRATIA

Kontzertuetarako sarrerak eskuratzeko aukera izango da

Datorren astean ere, kontzertuetarako sarrerak eskainiko ditu Arrasate Irratiak.

Arrasaten antolatutako den Udaberri III. Musikaldiaren barruan, Tirritarra eta Gokobaluk apirilaren lehen arratsaldeko zortzietan Amaia Antzokian eskainiko duten kontzerturako sarrerak zozketatuko dira, eta baita 360 aretoko kontzerturako sarrerak ere. Parte hartzeko deitu 943-711731 zenbakira.

KORRIKAREN GAINEKO SAIO BEREZIA > MARTITZENA, 21:45

Korrikari jarraipena egingo dio GOITBk ibarrean zehar

Debagoienetik pasako da Korrika aste bukaera. GOITBk korrikalariekin batera egingo du ibilbidea

GOIENKARIA > ARRASATE

Egubakoitzetik zapatara doan gauean, 23:35ean helduko da Korrika Leintz Gatzagara. Horixe igoko dute kazetari batek eta kameralari batek Korrikako furgonetara. Ahalik eta jende gehienekin oinak grabatuko ditugu eta lekukoa hartzen dutenekin egongo gara. Leintz Gatzagatik Oñatiraino, han agurtuko du eta Korrikak Debagoiena. Domeka goizean pasako da Antzuola, Bergara eta Elgetatik. Antzuolan 6:55ean hartuko dugu lekukoa eta Elgetaraino helduko gara 8:00etan. Han utziko diegu lekukoa bizkaitarrei.



KORRIKA Argazkian, orain dela bi urteko ekitaldiko irudi bat.

GOIENKARIA

ERREPORTAJEA > ASTELEHENA, 21:45

Egokitutako igeriketa ikastaroaren gaineko erreportajea astelehenean

GOIENKARIA > ARRASATE

Egokitutako igeriketa ikastaroak duela 10 bat urte jarri zituzten martxan Arrasaten. Harrezkero, Bergarara, Oñatira eta Aretxabaletara zabaldu dute ekimena. Ezintasunen bat dutenei zuzendutako ikastaroak

dira. Amagoia Lasagabaster kazetaria egon da horietako ikastaro baten eta protagonisten berbak bildu ditu.

Ikastaroko koordinatzaileekin, boluntarioekin eta mediku batekin egon da, baina benetako protagonisten hitzak

ere jaso ditu. Aimar, Jaione, Haritz, Ander... horiek dira ikastaroan dabilzan batzuk. Igerilariak dira, kirolari ausartak eta nekazekin.

Arrainen pare izeneko erreportajearen ikusi ahal izango dugu, ezintasunen bat izanda ere, posible dela igerilekuan murgildu eta kirola egitea. Arrainen pare, uretan, horrela dabilza gure protagonistak. Bakoitzak bere ezintasunak ditu, baina horiek guztiak gaindituz murgiltzen dira igerilekuan.

Astelehenean, hilak 26, ikusiko dugu erreportajea, 21:45ean.

telebegi

Leire Kortabarria

Ez dagoenean, egon

Gaur ez naiz telebistaz kexatuko, telebista faltaz baizik. Izan ere, oñatiarrok ondo dakigun moduan, gure herri ederrean lau tanta eta bi tximista botatzea nahikoa da TVE eta ETB ez beste kate guztietan kanpoan dugun eguraldia agertzeko: elurra, baina seinalea hartzen ez deneko hori. GOITBk ere ezin dio eguratsari eutsi. Horrenbestez, astelehenez geroztik, Antena3, Cuatro, Tele5, La Sexta eta GOITB ezin izan ditugu ikusi. Eta telebista digitalak ere ez du Oñatiko *tele-isolamendua* gainditzen: Antena3 ozta-ozta ikusi ahal izan dugu deskodetzailearen bidez, eta hori ere, nekez. Ez dakit egoera hori normala den edo guk normal bihurtu dugun, baina Finlandian elurra egiten duen bakoitzean seinalea joango balitzaie (edo mendateak itxiko balituzte... baina hori beste tarte baterako gaia da).

Telebista zaborrez beteta dagoela esatea eta ematen dituzten programak kritikatzeko gustuko dugu, baina, ez daukagunean, amorratu egiten gara. Neu ere bai. Izan ere, telebistatik ez badut, zelan praktikatu dut, ba, nire izpiritu kritikoa?

arrasate irrata

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.
Elkarrizketak: LANBIDE zerbitzari buruz Agurtzane Arregirekin; Elkarteentzako Iturrigorri elkarte; Zinearen geltokian Amaia Labaien...
16:00 Txomin Iturberi buruzko saio berezia

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.
16:00 Txomin Iturberi buruzko saio berezia

Astelehenean egubakoitzera

10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Lorategiaren geltokia: Bergarako Gorosti loradendako Irene Zenitagoiarekin
Elkarrizketak
Merkatu txikia
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31)
12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurren tarte (errep.)

GOITBko programazioa

Egubakoitza, 23

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musikantoi. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Hitz bitan. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Albisteak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Bertso saioa. 18:15 Erreportajea. 18:45 Albisteak. 19:15 Erreportajea. 19:45 Berria. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berria. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Iragana gogoratuz. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berria. 23:15 Berbaire. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Jazmina. 00:15 Emisio amaiera.

Zapatua, 24

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Fernando Amezketa, Calimero eta Trikitraka trikitron. 11:00 Ikusmira. 11:30 Jazmina. 12:00 Aste-koak. 12:15 Bizitegia. 12:30 Erreportajea. 13:00 Eltze beroa. 13:30 Bertso saioa. 14:00 Ur eta lur. 14:30 Musikantoi. 15:00 Korrika 05. 15:30 Berbaire. 16:00 Didjeridu. 16:30 Ilunpean. 17:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Hasiberriak. 19:30 Klip@. 20:00 Iragana gogoratuz. 20:30 Erreportajea. 21:00 Berbaire. 22:00 Aste-koak. 22:15 Klip@. 22:30 Ilunpean. 23:00 Didjeridu. 23:30 Musikantoi. 00:00 Emisio amaiera.

Domeka, 25

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Calimero, Fernando Amezketa eta Trikitraka trikitron. 11:00 Iragana gogoratuz. 11:30 Musikantoi. 12:00 Ur eta lur. 12:30 KT. 13:00 Gatza ta berakata. 13:15 Klip@. 13:30 Erreportajea. 14:00 Didjeridu. 14:30 Ilunpean. 15:00 Ikusmira. 15:30 Marrazki bizidunak. 18:00 Jazmina. 18:30 Iragana gogoratuz. 19:00 Hasiberriak. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Ur eta lur. 20:30 Erreportajea. 21:00 Bertso saioa. 22:00 Berbaire. 23:00 Erreportajea. 23:30 Ilunpean. 00:00 Musikantoi. 00:30 Emisio amaiera.

Astelehena, 26

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Teknopolis. 14:15 Iragana gogoratuz. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Ilunpean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Klip@. 16:00 Bizitegia. 16:15 Jazmina. 16:45 Albisteak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ur eta lur. 18:15 Eltze beroa. 18:45 Albisteak. 19:15 Musikantoi. 19:45 Berria. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berria. 21:15 Harmailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea. 22:15 Telesaila. 22:45 Berria. 23:15 Didjeridu. 23:15 Iragana gogoratuz. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Ikusmira. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 27

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Fernando Amezketa. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Harmailatik. 14:15 Erreportajea. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Eltze beroa. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Hasiberriak. 16:15 Ikusmira. 16:45 Albisteak. 17:15 Fernando Amezketa. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Bizitegia. 18:30 Klip@. 18:45 Albisteak. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berria. 20:15 Marrazki bizidunak: Fernando Amezketa. 20:45 Berria. 21:15 Berbaire. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Korrika 07. 22:15 Harmailatik. 22:45 Berria. 23:15 Iragana gogoratuz. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Musikantoi. 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 28

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Korrika 07. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Ur eta lur. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Hasiberriak. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Albisteak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Harmailatik. 18:15 Eltze beroa. 18:45 Albisteak. 19:15 Musikantoi. 19:45 Berria. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berria. 21:15 Erreportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Bertso saioa. 22:15 Telesaila. 22:45 Berria. 23:15 Berbaire. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Ur eta lur. 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 29

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Fernando Amezketa. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Bertso saioa. 14:15 Erreportajea. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Eltze beroa. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Telesaila. 16:15 Ikusmira. 16:45 Albisteak. 17:15 Fernando Amezketa. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Eltze beroa. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albisteak. 19:15 Bizitegia. 19:30 Klip@. 19:45 Berria. 20:15 Marrazki bizidunak: Fernando Amezketa. 20:45 Berria. 21:15 Berbaire. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Musikantoi. 22:15 Didjeridu. 22:45 Berria. 23:15 Erreportajea. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Ilunpean. 00:15 Emisio amaiera.

Udaberriko **III. Musikaldia** 2007



Egitaraua

Udaberriko III. Musikaldia 2007

Artajonako Banda

Martxoak 24, 20:00 Amaia antzokian.

J.W. Jansen (Klabezinjolea)

Martxoak 25, 20:00 Kultureteko areto nagusian.

Conductus Ensemble

Martxoak 30, 20:00 Parrokian.

Josu Okiñena (Piano) eta Razvan Suma (Biolontxelo)

Martxoak 31, 20:00 Kultureteko areto nagusian.

Tirri Tarra + Goikobalu + Sotto Voce Orkestra

Apirilak 1, 20:00 Amaia antzokian.




ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

Martxoak 23-30

EDU MENDIBIL
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

Musika



ELGETA

> Mikel Urdangarinen kontzertua gaur gauean Espaloia Kafe Antzokian

Dana diskoa aurkeztuko du zornotzararak gaur, egubakoitza, 22:30ean, Rafa Rueda (gitarra elektrikoa), Bingen Mendizabal (biolina), Saihela (Bateria), Koldo Uriarte (teklatuak eta ahotsa) eta Nikaren (biolina) laguntzaz. Sarrera: 10 euro.

Bertsolaritza



ARAMAIO

> Arabako Bertso Txapelketaren finalerdia jokatu da domekan

Andere Arriolabengoa, Rikardo Gonzalez de Durana, Serapio Lopez, Juan Mari Juaristi, Oihane Perea Perez de Mendiola eta Asier Otamendi arituko dira lehian. Kultura etxean jokatu da txapelketako bigarren finalerdia, 17:30ean.

Musika



BERGARA

> Gasteizko Bandaren kontzertua domekan, Udal Pilotalekuan

Gasteizko Udal Musika Bandak *Melodias vascas* (Guridi), *El infierno* (Smith), *Divertimento* (Bernstein), *Granada* (Lara) eta *Frenesi* (Dominguez) joko ditu, Hilario Extremianaren zuzendaritzapean. Udal Pilotalekuan, 12:30ean.

Txapelketako finala martxoaren 31n

Beñat Alberdi, Egoitz Aizpuru, Joseba Lasagabaster, Andoni Goitia, Josu Igartua eta Iñaki Olalde arituko dira lehian.

Bertso saioa Arrano tabernan izango da, 18:00etan.

BERGARA

> Koldo Eleizalde Lehiaketaren 22. ekitaldia

Bertso eta komiki atalak ibarrera ireki dituzte, eta horiez gain ipuin eta antzerki lehiaketak izango dira.

Argibideak Udaleko Euskara Zerbitzuan, 943 77 91 79 zerbakian.

ESKORIATZA

> I. Margo Lehiaketa Aire Zabalean, domekan

Gaia: *Eskoriatza eta elizateak*. Irabazleak 600 euro eta plaka eskuratuko ditu. Beste hainbat sari ere izango dira. Herri bazkaria izango da partaide guztiakin, 14:30ean.

OÑATI

> Arrasate-Oñati lasterketako kamisetarako lehiaketa

Laixan euskara elkarteak Arrasate-Oñati lasterketaren kamisetarako diseinu lehiaketa deitu du: marrazkiak bi koloretan izan behar du gehenez eta XXV. *Arrasate-Oñati lasterketa eta Jantzi kirola euskaraz* leloak gehituko zaizkio marrazki aukeratuari. Irabazleak 150 euro jasoko ditu eta lanak entregatzeko epea apirilaren 15ean bukatuko da. Argibideak Laixanen, 943 71 63 11 zerbakian.

Antzerkia

BERGARA

> La Rassistens taldea gaur Bergaran

Korrika Kulturalaren barruan, *Bräkala* antzezlanaren egingo du Bilboko taldeak. Maria Urtzelai bergararra ari da bertan.

Gaur, egubakoitza, Munibe plazan, 19:00etan.

Musika

ARRASATE

> Blues gaua Marcus Malonen eskutik zapatuan

Marcus Maloneren emanaldia bihar, zapatua, 3.60 aretoan, 23.00etan.

Gonbidapenak Ekaitz tabernan, Garraxi jantzi-dendan, Gure-Leku tabernan, Iamai kafetegian, Itzalan, DAT tabernan, Jaizalen, Taupan eta Lazkano musika dendan jaso daitezke.

ESKORIATZA

> Ganbara Txiki abesbatzaren emanaldia gaur

Oñatiko abesbatzaren kontzertua 19:30ean izango da. Apirilaren 1ean Oñatin egingo dute emanaldia.

BERGARA

> Karelean taldea Bergaran

Zestoatik eta Azpeititik datorren Karelean musika taldea Euskadi Gaztearen XVI. Maketa Lehiaketako irabazlea dugu. Rock melodikoa egiten dute.

Gaur, egubakoitza, Pol-Pol tabernan, 22:30ean.

ARRASATE

> Arrasate Musikaleko txistularien kontzertua zapatuan

Lehenengo zatian ikasleek bakarka joko dute hainbat pieza eta bigarren zatian

Arrasate Musikaleko txistulari bandak parte hartuko du.

Bihar, zapatua, Musika Eskolan, 17:00etan.

BERGARA

> DJ saioak Ziripot tabernan

Gaur, egubakoitza, DJ Kaiet Klorofila 23:00etan. Bihar, ordu berean, DJ Lalas.

BERGARA

> Los Delinquentes eta Saxon, Jam aretoan

Los Delinquentes gaur, martxoaren 23an, eta Saxon eta Masterplan bihar, zapatua.

Sarrerak salgai Jam aretoan eta ohiko tokietan.

ARRASATE

> Metal kontzertua Gure-Leku tabernan

Lord Witch eta Default taldeak gaur, egubakoitza, 23:00etan hasita.

Erakusketak

BERGARA

> Daniel Txopitearen margo erakusketa

Daniel Txopitea (1950-1997) Eibarko Gorutz taldearen sortzaileetako bat izan zen 1970eko hamarkadan eta Oteitzaren inguruko mugimenduari lotutako ibilbidea izan zuen.

Erakusketa apirilaren 15era dago zabalik Aroztegi aretoan. Martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; domeketan, 12:00etatik 14:00etara.

BERGARA

> Edurne Erañaren margo erakusketa Nahikarin

Bergararrak hainbat lan ditu ikusgai, martxoaren bukaerara arte.

ARRASATE

> Pintura erakusketa Harresi aretoan

Gloria Uriarteren, Angelines Ruiz eta Francisco Mateos *Txikuri*-ren margolanak ikusgai.

Martxoaren 25era arte, aste barruan 18:00etatik 20:00etara eta zapatu eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

ESKORIATZA

> Jose Mari Zenitagoiaren margo erakusketa

Eskoriatzako margolaria-
Aurpegi indartsuak izenburuko erakusketa.

Inkernu tabernan, martxo bukaera arte.

Lehiaketak

OÑATI

> Oñatiko IV. Bertsolari

PROPOSAMENA

ARRASATE

> Taldeko erakusketa Kulturaten

Kulturateko klaustro berritu eta dotorean antolatu duten lehen erakusketak Iñigo Arregi, Juan Luis Goikolea, Kepa Landaluze, Melina Lopez eta Iñaki Riviere artista arrasatear ezagunak bildu ditu. Melina Lopezen eskulturak eta margolanak, Landaluzeren *Ker-Ker* izenburuko burdinazko eskultura, Riviereren eta Goikolearen margoak eta Arregiren eskulturak eta margoak daude ikusgai joan den egubakoitza ezker.

Erakusketa apirilaren 6ra arte izango da zabalik.



Ospakizunak

ARRASATE

> Liburu eta disko azoka Biterin, gaurtik

Gaur, egubakoitza, zabalduko dute Liburu eta disko azoka Biterin. Apirilaren 1era arte izango da zabalik.

Ikastaroak

BERGARA

> Euskal dantzen ikastaroak maiatzera bitartean

Jardun elkarteak eta Abarka dantza taldeak euskal dantzen ikastaroak abian jarri dituzte. Ikastaroak maiatzera bitarteko martitzenetan izango dira, Aranzadi ikastolan. Izenematea Jardun elkarteak, 943 76 36 61 telefonoan.

BERGARA

> Sukaldaritza begetariano eta sabel dantza ikastaroak

Apirilaren erdialdetik ekainera. Argibideak kultura etxean, 943 77 91 60 zerbakian.

nire aukera



Gorette Fernandez
Antzuolako Gazteguneko koordinatzailea

Asteburu librea elurretan

Gorette Fernandez (24 urte) Antzuolako Gazteguneko koordinatzaile lanetan ari da azken bi urte eta erdian. Begiraleen laguntzaz, 12 urtetik gorako gaztetxoei zuzendutako ekitaldiak antolatzen dituzte aste bukaerarako, Errekalde auzoko egoitzan. Hala, normalean aste bukaeran lan egitea egokitzen zaio. Oraingoan, baina, atsedean hartuko du eta elurretara joango dela adierazi digu: "Zapatuan Gabiriara joango gara, Osinalde sariko bertso afarira, eta handik Jaca aldera, astelehenera arte". Kirolzale amorratua da antzuolarra.

Eskizaleok ez duzue aukera handirik izan aurtan...

Behin joan naiz eskiatzera; ea oraingo aste bukaeran eskiatzeko aukerarik dugun... Hala bada, goiz osoa egingo du elurretan domekan eta astelehenera arte luzatuko dugu asteburua.

Bestela, aste bukaerak Antzuolan?

Kanpora joaten ahalegintzen gara, gehienbat lanetik deskonektatzeko: Bergara, Urretxu, Beasain, sagardotegi denboraldian Hernani aldera baita... Libre izanez gero kirola egitea atsegin dut baita: mendia, bizikletan ibili eta horrelakoak.

Aste Santuan, zer? Pirinioetara igual...

Antzuolak daukan onena? Eta faltan, zer?

Orena, herri txikia izanda jende arteko harremana beste erabatekoa dela, hurbila. Horrek ere badu bere alde txarra... Bestetik, bidegorria egitea eta kirola gehiago bultzatzea ondo legoke.

Zinema

ARRASATE AMAIA ANTZOKIA

Babel
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.
Betizu eta Xangaduko misterioa
Domeka: 17:00.
El cielo gira
Eguena: 20:30.

ELGETA ESPALOA ANTZOKIA

Acordes y desacordes
Eguaztena: 21:30.

BERGARA AGORROSIN

Film laburren zirkuitua
Domeka: 19:00.
Jardun euskara elkarteak antolatutako emanaldia.

OÑATI KULTURA ETXEA

Babel
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
Shin Chan
Zapatua eta domeka: 17:00.
Palindromos
Eguena: 20:00.

EIBAR UNZAGA

La vida de los otros
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ GURIDI

300
17:30, 20:00, 22:30.
Epic movie
17:00.
Lola
20:00, 22:30.
Eutsi!
17:00, 20:30.
Llach: la revolta permanent
18:45, 22:30.
Hannibal: el origen del mal
17:30, 20:00, 22:30.
El buen alemán
20:00.
El concursante
17:30, 22:30.
Viviendo el sueño
17:30.
El último show
18:45, 20:30, 22:30.
Aste bukaerako programazioa.

FLORIDA-GURIDI

El jefe de todo esto
17:00, 19:45, 22:30.
El misterio de Ginostra
17:00, 19:45, 22:30.
Atlas de la geografía humana
17:00, 19:45, 22:30.
El último rey de Escocia
20:00.
El velo pintado
17:30, 20:00, 22:30.
Mariposa negra
17:30, 22:30.
Klimt
18:40, 20:30, 20:30.
Tara road
17:30, 20:00, 22:30.
Un puente hacia Terabithia
17:00.
Aste bukaerako programazioa.

ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

Epic movie
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.
300
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.
Un puente hacia Terabithia
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.
El síndrome Svensson
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.
Lola
20:30, 23:00.
Diamante de sangre
19:00, 23:00.
Noche en el museo
16:00, 18:15.
Infiltrados
16:00, 19:00, 23:00.
Azur y Asmar
16:00.
Hannibal: el origen del mal
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.
Aste bukaerako programazioa.

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Hannibal: el origen del mal
12:15, 15:45, 18:00, 20:20, 22:45, 01:00.
Ciudad del silencio
20:05, 22:25, 00:45.
El motorista fantasma
20:15, 22:20, 00:25.
Diamante de sangre
12:15, 16:30, 19:15, 21:55, 00:35.
Persecución extrema
12:15, 16:10, 18:10, 20:10.
Eutsi!
12:15, 16:05, 18:05, 20:05, 00:35.
Lola
20:00, 22:15, 00:25.
Un puente hacia Terabithia
12:15, 16:20, 18:20, 20:20.
300
12:15, 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

El laberinto del fauno

22:10, 00:35.
Noche en el museo
12:15, 15:40, 17:40, 20:25.
Infiltrados
18:55, 21:45, 00:35.
Happy feet
12:15, 16:05, 18:05.
Arthur y los Minimoys
12:15, 15:30, 17:25.
El Ratoncito Perez
12:15, 15:55, 17:45.
Epic movie
12:15, 16:40, 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.
Cautivos
20:20, 22:20, 00:20.
El velo pintado
12:15, 16:45, 19:15, 21:45, 00:15.
Azur y Asmar
12:15, 15:30, 17:15.
The Host
19:45, 22:10, 00:35.
Norbit
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

ÁBACO BOULEVARD

Epic movie
12:00, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.
Rebelión en la isla
12:15, 16:10, 18:10, 20:10.
El velo pintado
12:10, 16:45, 19:20, 22:00, 00:45.
Teresa: el cuerpo de Cristo
18:05, 20:15, 22:20, 00:30.
Un puente hacia Terabithia
12:00, 16:00, 18:05, 20:10.
Hannibal: el origen del mal
12:00, 17:00, 19:40, 22:20, 01:00.
300
12:00, 15:40, 18:00, 20:20, 22:45, 01:00.
Lola
22:10, 00:45.
Ghost rider
15:45.
Diamante de sangre
12:00, 16:25, 19:20, 22:15, 01:00.
Norbit
12:00, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 01:00.
En busca de la felicidad
19:30, 22:00, 00:30.
Noche en el museo
12:10, 17:00.
El concursante
18:20, 20:20, 22:25, 00:30.
Viviendo el sueño
12:10, 16:00.
Babel
22:10, 01:00.
Arthur y los Minimoys
12:10, 16:00.
Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguena, ikuslearen eguna.



La vida de los otros ***

Zuzendaria: Florian Henckel von Donnersmarck.
Aktoreak: Ullrich Muehe, Sebastian Koch, Martina Gedeck.

La vida de los otros film alemaniarra joan zen urteko lan sarituenetariko bat da. Azken Oscar sarietan ingelesa ez den hizkuntza batean eginko film onenari emandako saria lortu zuen. Filma desagertutako Ekialdeko Alemaniaren azken urteetan kokatzen da, eta han izaten ziren askatasunik ezak eta ustelkeria azaltzen dizkigu. Eta garai eta sistema hartako larderiari buruz hitz egiteko pertsonaiegi garrantzi handia ematen dion kasu konkretu bat erabiltzen du.

Thriller politiko hau zerbiztu sekretuko langile baten ikuspuntutik heltzen zaigu. Hark idazle baten bizitza espiatzen du, eta ikusleok, alde batetik, espiak ikusten duena ezagutuko dugu, hau da, idazleak eta haren hondoa mugitzen diren pertsonaia jasaten duten jazarpena, eta jazarpen horrek euren jokabideetan dituen ondorioak; eta beste alde batetik, ikusten ari denaren arabera espiak bakarti horren pentsamoldean gertatzen diren aldaketa prozesuaren lekuko izango gara. Espia idazlearen bizitzaren subjektu pasibo bat izateko subjektu aktiboa izatera pasako da. Eta aldaketa honekin istorioaren alde morala eta thrillerretan izaten diren emozio eta suspentseko osagaiak modu egokian nahasten dira. Ez da intriga elektrikoa, pausatua goa baizik; dena den, nahiko eraginkorra da. Pertsonaia gertatzen diren aldaketak, iruzurrak eta kontzientzia aldurak trama korapilatzen dute eta horrela, *La vida de los otros*-en azken parte benetan interesgarria da.

Antonio Zabala

Eskasa: * Balekoa: ** Ona: *** Oso ona: **** Bikaina: *****

Bosque de sombras ***

Euskal Herria-Frantzia-EB, 2006. Zuzendaria: Koldo Serra. Aktoreak: Gary Oldman, Virgine Ledoyen, Aitaja Sanchez-Gijon, Lluís Homar. 98 min.
Inkomunikazioa da filmaren ardatza. Euskal Herria ehizatzaera doazen senar-emazte ingeles batzuen arteko inkomunikazioa, heziketa eta maila sozial ezberdinetako pertsonen artekoa, baita etxe bakartuetan edo giltzapean bizi direnen arteko inkomunikazio fisikoa ere.

Diamante de sangre

AEB, 2006. Zuzendaria: Edward Zwick. Aktoreak: Leonardo di Caprio, Jennifer Connelly. 142 min.
Solomon diamante meatoiki batean lan egitea behartuta dago, eta haren semea bahitu eta soldatu bihurtu dute. Harribitxi bat aurkituko du egun batean Solomonek. Acher trafikatzailak hori jakiten duenean, haren atzetik joango da, kazetari estatubatuar batekin.

Cartas desde Iwo Jima ****

AEB, 2007. Zuzendaria: Clint Eastwood. Aktoreak: Ken Watanabe,

kazunari Ninomiya

141 min.
1945. urteko otsailaren 19a. AEBetako tropak Iwo Jimara iritsi dira. 40 eguneko borrokan, 6.000 estatubatuar eta 21.000 japoniar hil ziren. Tadamichi Kuribatashi teniente jeneralak porrot egin eta uhartea galduko du. Japoniarren ikuspegia jaso du Clint Eastwoodek.

Manuale d'amore 2

Italia, 2007. Zuzendaria: Giovanni Veronesi. Aktoreak: Monica Bellucci, Elsa Pataky. 120 min.
Irratsaio baten bitartez pertsonaia hauek ezagutuko dituzte ikusleek: Fisioterapeuta batekin obsesinatuta dagoen gazte bat, ama izateko *in vitro* ernalketa erabiliko duen emakume bat, bikote homosexual bat eta pasioa berriro deskubrituko duen 50 urteko gizon bat.

Babel ****

AEB, 2006. Zuzendaria: Alejandro Gonzalez Inarritu. Aktoreak: Brad Pitt, Cate Blanchett, Gael Garcia Bernal, Elle Fanning, Koji Yakusho,

Adriana Barraza, Rinko Kikuchi. 142 min. Drama. 13 urtetik gorakoendakoa.

Estatu Batuetako bikote bat Marokon dagoela gertakari larri batek gertakizun katea ekarriko du. Gertakizun kate horrek lau kontinentetako familia banarengan eragingo du. Jatorri eta kultura oso ezberdinetakoak badira ere, laurak ondorio bera aterako dute: familia da benetako kontsolamendua.

Miss Potter **

AEB-EB, 2006. Zuzendaria: Chris Noonan. Aktoreak: Renee Zellweger, Ewan McGregor. 92 min.
Beatrix Potter idazle arrakastatsua izan zen. Horrez gain, bere independentziaren alde borrokatu zen Ingalaterra vic-toriar kontserbadorean. Editorearekin amodiozko istorioa ere izan zuen.

En busca de la felicidad *

AEB, 2006. Zuzendaria: Gabriele Muccino. Aktoreak: Will Smith, Thandie Newton. 117 min. Adin guztietarako.
Afera ekonomiko korapilatu batzuen ostean, Chris langabezian geldituko da,

eta dirurik gabe. Bikotekideak ere utzi egingo du. Orduan semea zaintzen gelditu beharko du, eta baliabide ekonomikorik ez maitasunarekin ordezkatu.

Infiltrados *****

Alemania-Frantzia-Espainia, 2006. Zuzendaria: Tom Tykwer. Aktoreak: Dustin Hoffman, Ben Whishaw, Alan Rickman. 147 min. 18 urtetik gorakoendakoa. Paris, XVIII. mendea. Jean-Baptiste Grenouille mundua usaimenaren bitartez ikusten du. Amestutako lurrina lortzeko ezagutzak izango ditu, gainera. Hainbat emakumezko dute lurrin preziatu hori.

Noche en el museo **

AEB, 2006. Zuzendaria: Shawn Levy. Aktoreak: Ben Stiller, Carlan Cugno, Dick Van Dyke. 108 min.
New Yorkeko zientzia naturalen museoan segurtasun zaintzaile lanean hasi behar du Larry Daleyk. Lanean hasten den gauean, eraikineko animaliek, argazkiek eta estatuek bizia hartuko dute.

Orain eguenetan, ikuslearen eguna

Zure sarrera merkeago, asteko egun onenean

Eguena, zure eguna da!

www.cinesabaco.com

www.cinebox.es



Telefono kabinak, hilzorian?

11 GUTXIAGO Azken zazpi urteotan 11 kabina gutxiago daude ibarrean; 71tik 60ra jaitsi da kabinen kopurua

IRABAZIAK Telefonicaren esanetan, urtetik urtera kabinetatik jasotako irabaziak %20 txikitzen doaz

ETORKINAK Etorkinek nazioarteko deiak egiteko erabiltzen dituzte kabinak, baina oso gutxi gastatzen dute

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Gero eta telefono kabina gutxiago ikusten ditugu inguruan. Lehen, gure herri asfaltatuen paisaiaren zati esanguratsu ziren, baina gaur egun gero eta urriagoak dira.

Azken urteotan gainbeheran dago telefono kabinetatik deiak egiteko ohitura. Izan ere, sakelako telefonoak indartsu ezarri dira gure bizimoduan, eta gehienok horiek erabiltzen ditugu.

1999an 71 telefono kabina zeuden Debagoienean; 2006an, berriz, 60 gelditu ziren zerbitzua ematen. Denbora tarte horretan, Arrasaten 25etik 16ra jaitsi dira; Aretxabaletan seitik bostera; Eskoriatzan bostetik laura; Antzuolan hirutik bat gelditu da; Aramaion, Leintz Gatzagan eta Elgetan lehen eta orain bakarra dago; Bergaran 20tik ez da jaitsi; eta Oñatin, paradoxikoki, bederatzitik hamaikara salto egin du kabina kopurua.

Cabitel da Telefonicako kabinenez arduratzen den enpresa. Telefonicaren barruan dago eta

haiekin jarri gara harremanetan kabinen etorkizunaren gainean galdetzeko.

ZERBITZUA EMATEKO GUTXIENEOA
Euskal Herriko eta Aragoiko kabinen ardura duen bulegotik jakinarazi digute 1.500 biztanle baino gehiago dituzten herrietan gutxienez kabina bat jartzeko ardura dutela. Hala erabaki zuten 80ko hamarkadan.

Onartu digute kabinen erabilerara asko jaitsi dela. Urtetik urtera kabinekin jasotako irabaziek %20 beherantz egiten dute. "Negozioa izatetik zerbitzua izatera pasa dira kabinak", azaldu digute. "Baina zerbitzua ere eman behar da"; horregatik, kabina kopurua txikitu egin dute.

Horrez gain, azaldu digute etorkinak direla gehien erabiltzen dituztenak nazioarteko deiak egiteko, baina ez dutela kabinetan diru askorik uzten. "Gehienek txartel berezi batzuk erabiltzen dituzte, eta orain dela gutxi arte ez zioten Telefonicari zentimorik uzten".



SAKELAKOAK Sakelakoaren erabileraren handiak kalte zuzena egin die kaleko telefono kabinei.

IKER BARANDIARAN

ahobero

"Neuri euskaldunek ez didate batere beldurrik ematen"

Fernando Puras
> PSNko hautagaia

Asteon, PSNko ordezkari nagusi Fernando Purasek horixe esan du *Argia* aldizkarian egindako elkarrizketa baten. PP eta UPNren aldetik bizi dugun ika-mika eta giro txarreko jarrerak ikusita, ez da komeni halakoak esatea.

Komeni dena da halakoak esan beharrean alderdien arteko giroa hobetzeko ahalegiak egitea.

iturri onetik

Apirilaren 22an egingo dute aurtengo Aloñako igoera, orain arteko goiztiarrena

Mendi proba horren antolatzailerak jakinarazi digute, 2007ko Aloñako igoera apirilaren 22an izango da. Aurtengoa egingo duten hirugarrena izango da. 15,5 kilometroko ibilbidea izango da, eta horietatik hiru asfalto gainean egingo dituzte. Desnibela, berriz, 2.200 metro izango da. Hilaren 24an zabalduko dute izenematea, eta horretarako azkeneko eguna apirilaren 13a izango da.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Goiena, zorionak!

Kostata, baina beste urrats sendo bat eman du Goienak, Hamaika taldearekin hitzarmena sinatuta. Xehetasunik ez dut ezagutzen, baina ideia nagusia da Debagoieneko multimediak bere tokia finkatu egin duela, toki telebistak legezatzeko orduan.

Ez da huskeria. Goienaren sortzeko arrazoi nagusia, hain zuzen, biziraupena izan zen. Garai berriek ekarriko zituzten egoeretan -aukera nahiz mehatxu izan- aurrera egiteko moduko egitura bat prestatzea. Eta telebista zen punturik ahulena, lege gabezia eta handien lehia benetako arrisku baitziren Goienarentzat. Hori bideratuta legoke orain, etxekoen lehiarik ez du izango Goiena telebistak ibarrean. Eta tokiko beste telebistekin, indartu egingo dute Hamaika egitasmoa. Askok poztu nau Goienaren eta Hamaikaren hitzarmeneko albisteak.

ai, ene!



Post-it erraldoiak, ahanzturaren kontra

Internet eta e-posta erabiltzen murgilduta gauden honetan, oraindik post-itak erabiltzeko premia handia dago. Ikusi...

<http://tinyurl.com/pz7op>



Denentzat...

Maalako Errabala 13
ARRASATE
943 79 92 76

UNITED COLORS
OF BENETTON.